



Erref. kodea: LAF-205-042

Izenburua: Euskal literaturaren
paragrafo aukeratuak

hainbat autobreen testuak

Ipar EH
[Nafarroa]

Meditation
Sukhada
1809



1

Jainkoaren zerbitzuango kharraz

Jainkoak gure alderat duen bezembat khar
ukhan dezagun haren alderat. Hari gaiten
Jainkoa zerbitzatzen, ta gure arimak salbatzen,
Jainkoa guri ongi egiten, ta gure salbamendu-
kotzat bere aldetik behar dena egiten hari den
bezain arthoski ta gogo onez. Bere baitharik
kamporat egin eta egiten dituen guzietan gure
arimetako ona bilhatzen du; hortarat darontrate
haren bihotzeko nahiek, haren probidentziaren
arthaguziek, haren urrikalmenduaren samur-
tasunek. Bizkitartean Jainkoak ezte gure behar-
rik, bai ordean guk badugu Jainkoaren beharria
eta demborakotz eta eternitatekotz. Halarik ere,
Jainkoak gu bethi gogoan garabiltzan arren,
gu Jainkoaz hain guti orhoitzen gare! Jainkoak
hambat egiten du gure ona nahiz, eta bereziki gu
sekulako zorionerat helarazi nahiz, eta guk hain
guti egiten dugu Jainkoarentzat, eta guti hura ere
hain hozki, hain ephelki! Zer ahalgetzeko arragoim
arima nagientzat! egiazki errateko liteke, ez hekiek
Jainkoaren, bainan Jainkoak duela hekien
beharria.

2

2

Ikhuserat zein lazoki zerbitzatzen dugun, zembat gauza haren gogorako egin genetzakenak uzten ditugun egin gabe, gure othoitzak zein hotzak diren, sakramenduak zein aphaintza gutirekin errezebitzen ditugun, bertze zembat huts lerratzen den egiten, dugun ongirat, erran liteke Jainkoak eztiela merezi zerbitza dezagun, eta bere zerbitzariet ematen derazten sariak gauza aphaurrak direla. Ezen zer jiza diteke bere sehiak aitharik eta gosturik gabe, gogo gaitzez, zerbitzatzen duten nausi batez? Jainkoa derohoratzen dugu beraz, eta haren zerbitzu seinduari bidegabe egiten diogu, gure ganik galdetzen duena lazoki egiten dugunean, eta mila atsegin chume ukhatzen diotzogunean. Zorigaitz Jainkoaren lana lazoki egiten duenari, dio Espiritu Seinduak; madarizione guziak merezi ditu.

Jainkoarentzat egiten den gauza batek, bere baitharik nahi bezain chumea izanen bada ere, egundainoko gerlari ta erresuma-irabazle guzien balentriek baino miletan gehiago baliodu. Hambat gogo on ta animo erakhusen bada munduko egitekoentzat, zeinak guziak ezpaitire ezjeuskeriarik baizen Jainkoari daront-

3

soten gauzen aldean, zer ezingu egin behar Jainko-arentzat eta salbamendukotzat? Helas! debruaren zerbitzariak ezituzte bere buruak guphida, deusek ezituz lotsatzen, deusez ezituz erenguratzen, nahi bezembat nekhe ta boroka erabili behar izana gatik ere: zer bada? Jesu-Kristo ez othe du debrua bezembat ikhustate ta jainraitasun merezi? edo parabisuak, ifernuak baino gutiago balio othe du? bai, gairero ifernua izanen da nere eskola. Jainkoa maithatzea, damnatuak higuin duten bezembat; Jainkoa zerbitzatzea, mundua ta debrua zerbitzatzen diren bezala, sobra idurituko othe zait?

Étsaminazazu ongi nola zerbitzatzen duzun Jainkoa, eta haren zerbitzuko zein gauzetan gerthitzen zaitzun lazakeria ta nagitasun gehienik, eta entseia zaitte guziak egiterat zerbitzatzen duzun nausi handi hari dagokon bezala.

Zareten khartou, zeren nausi handi bat baita zuek zerbitzatzen duzuen Jainkoa, dio Jaudone Paulok.

Zein ekharria baitzare munduko gauzeta-
rat, eta zein gogo onez zerbitzatzen baitituzte

munduko nausiak eta gure adiskideak, eta
hambat ekharritasun ta gogoon ukhanezazu
gauza guzien egilearen eta nauti guzien nauti-
aren alderat, dio San Gregoriok.

Salbamenduaz.

Azkenean gure arimak salbatzen hari behar
gare zuhurtziarekin. Mundu hau guzia gal-bidez
bethea da salbamendukotzat; gal-bideak compai-
nietan, gal-bideak adiskidetasunetan, gal-
bideak bihi-moduetan, gal-bideak ezkontzan
eta ezkontzaz-kampoan, gal-bideak tratuetan
eta negoziotan. Eskotan gutien uste den
lekhuan dago etsai gachtua gorderik, eta han
kausitzen da gal-biderik handiena. Bada
Kristau gehienei gertatzen zaien zorigaitza
da, gal-bide hetan bere buruak ezartzea,
hekiei aitzinetik behatu gabez: adiskidetasunak
hartzen dituzte, chede gachtorik gabe, egia da;
bainan gero adiskidetasun hetan kausitzen dute
animako izurria; sehi jartzen dire, eta sehigoa
hartan kausitzen dire asko gisetarat Jainkoa-
ren eta Elizaren manamenduen kontra

5

5

behatu egiteko kasuan: ezkontzen dire, eta ezkontza hartan kausitzen dute bere sekulako damnazionea, eta hartzen duten lagunaren eskasak ez ongi jasanetz, eta bere menekoez behar den artha ez hartuz, eta asko bertze manieraz: tratu bati ematen zaizko, eta hartan mila zuzen- kontrakeria egiteko bidean kausitzen dire. Horrela gibelat eta aitzinat ongi behatu gabez, jartzen dire asko eta asko gristino gal-bide handitan; eta ondoan nola ezpaita erretch gal-bide hetarik ilkhitzea, adiskidetasun haren haustea, etche hartarik ateratzea, zuzen kontrakeria ta bertze bidegabe hek erreparatzea, hortarat ezin deliberatuz, gehien gehienak sekulakotz galtzen dire bere ohar-eskasaz sarthu diren gal-bide hetan

Bada gristo zuhurrak eta bere salbamendu seguratu nahi duenak, alde orotarot ekhartzen ditu legi-kaldi gorrotzak, ikhustekotzat, ea baditeken harentzat gal-biderik adiskidetasun hartan, sehigoa hartan, ezkontza hartan, tratu hartan, edo bertze zein nahi gauzetan. Hala aitzinetik ezagutzen ditu, gertha dakiozken gal-bide gehienak, ta hetarik

6

urruntzen da, zer nahi gostaririk ere bere salbamendu egiteko duen gutiziaz; edo aitzinetik ezin asmatu duken zembait galbidetan edireten bada ere, gauza guzietan eta bere urrats guzietan begiratzen duen atzartasun ta zuhurtzia horren beraren aiaz Jainkoak emanen diotza laguntza bereziak hetan ez galtzeko.

Salbamenduko zuhurtzia hark galdetzen du oraino, salbamenduari dagozkon gauza guzietan partidurik segurena har dezagun. Eta zein da eria, dudazko erremedioa hartuko duena, eskuan luken erremedio segur bat utzirik; edo bideantea, dudazko bide bat atekutiko duena, utzirik bertze bat, nahi duen lekhuat segurki leremakena? giza⁽¹⁾ hortan bada, baldin mundu huntako egitekoetan ahalik eta segurenetik jokhatzen bagare, dudazko bidetan bazatu⁽¹⁾ gabe, gauza bera egin behar dugu salbamenduari ukitzen zaizkon gauzetan, hambatez ere bai arrazoin gehiagorekin, zembatez mundu huntako egiteko guziak baino premiatsuagoa baita salbamenduko egitekoa; eta egiazki, guziz auhendagarria da phondu horren gainean asko givis-

7

tinok erakusten duten itsumendua: gogoari eman biezote hainek, behin huts egiten badute bere salbamendua, erremediarik gabea izanen dela hekien zorizaitza.

7

Beraz egiazko dudarik denean, ea hulako gauza bekhatu denetz, ea hulako orrestituzioea egin behar denetz, ea hulako kofesioak erreberitu behar direnatz, edo bertze zembait phonduen gainean, bethiere partidurik hoberenerat; eta salbamendua gehienik segura dezakererat itzuli behar da. Hargatik eskrupulatik ere beiratu behar da; eta hortarakotzat, norik bere dudak kofesor argitu bati orrian eta, lañoki jarri ta sosegatu behar da haren jujamenduaren azpian.

Ikhusazu ea zertan huts egin duzun zure salbamenduari kontu egiteko maneraren gainean; iragan hutsez minki barkhamendu eska zakizko Jainkoari, eta harzazu chede zinena. Baitezpada ta zer nahi gosta behar izana gatik ere, zure salbamendua seguratzeko. Bizkitartean ezta egiteko bat baizen beharra denik, dio Jesu-Christok.

Eternitate guzian izan behar gare, edo osoki dohatsu zeruan, edo osoki dohakake ifernuan: beraz egiterat goazjin guzietan galde diogogun zure buruari: zer baliatuko zait gauza hori eternitatekotzat? dio San Bernatek.

8

8

Aphalezguneaz ⁽¹⁾

Bada nahi bazare aphalezgunean ongi funkatu, arthoski balia zaite, baieta zure bizi guzian, hortako bidez edo mojaner. Ezen kantusteari arazoan guziek kontra egiten dioten arren, hain hertsiki datcheiko berenaz gure izateari, non ezpaitozakegu higuwiki gure baithan arnas suntsituko dela, gure bizia akhabatzearekin baizen. Askotan sartzen da prestugunezko, baieta aphalezgunezko eginkundetan beretan ere, ta hekiei Jainkoaren aitziueko bere balio guzia khentzen derate. Bihor eziteke beira haren khutsu galgarritik, atzartasun handi baten bidez baizen. Horren gatik ere, dio San Jeromek, bai, zeren gutiak diren egiazki aphalgurak, horren gatik dire gutiak salbatzen direnak.

Bada gudu izpiritual huntarik garaitiak ilkhitzeko lehenbiziko bidea da othoitza. Aphalezgunea da prestugune bat, paganotasuneko zukurrek ezagutu ere ezitutena asko bertze prestuguneren gainean gauza ederrik erran duten arren. Gu Kristauei Jesus Jaunak irakhatsi dauku; baina ezugu zeren higuwiki osirik

9

9

begiraturen dugula haren beraren laguntzarekin
baizen. Beraz hortarakotzat behar ditugun grazia
handiak, maiz gogo onez eta entzunak izateko
zinezko chede batekin eskatu behar diotzogu Jainko-
ari.

Bigarrenetik, maiz eta zinez gogoan erabi-
lazu zer phondutaraino izan zen beheratua Jesu-
Christo, gure nausia, gure buruzagia ta gure
modela. Bere bizi guzian ere bai, baina berezi-
ki bere pairameneko misterioan. Ikhusi ondoan
Jainko handi, Jainko seintu hura gisa hartan
beheratua eta ezeztatua; gizonen arbuioa bezala,
gachtaginaren buruzagia bezala erabilia, guziaz
ahalgez estalia ta laidoz asea; nola etzare,
zu ez-jensa, zu bekkatorea, ahalgetuko ta
ikharatuko, jende-arteko aiphamen onari hain
hurbildanik behatzeaz, hain ohore gose, hain
gora-nahia izateaz? Horren gatik dio San
Agustinek, Jainko-salbatzailearen beheramendu
espantigarriak direla gizonaren hantustearen
sendageirik edo erremediarik hoberenak.

Hirugarrenetik, maiz ta zinez gogo-
an erabili behar ditugu ahalgura izateko
ditugun arrazoin handiak, meditazioe

10

hontan ezarriak direnak, eta bertze zerorri
baithan, gure iragan bizian edo orainko eskaseta
kausitzen dituzketzunak. Jaundone Bichuntcho
Paulakoaz errana da, berrogoi urthe bethez medi-
tazionea aphalesguneaz egin izan guela. Eta
egiazki, baldin behin ongi sentitzen ta bihotzean
barna sartzen badugu, gure baithan den on-
guzia Jainkoarena dela, den bezala, eta gurerik
deus ez tugula, ez-jesus ta bekhatusa baizen,
zerorri harrituko gare, nola gure buruak proza
detzakegun, edo nola ukhan dezakegun bertze
ongi bekhatusa eta ongi ekharriak izateko
hirritsik batere: hortarik urrun, ohorei ta
laudorioei arbuioekin behatuko diotequ gure
alderako zuzen kontrakeria batzuei bezala;
eta beheramenduak, laidoak eta desohoreak
maiteki besarkatuko ditugu, baxharrik zor-
raizkigun gauza batze bezala.

Laurgarrenekorik, zinez hartzaitu gogoan,
alde batetik hantustearen, eta bertzetik aphales-
gunearen ondore handiak. Hantusteari darrai-
zko bekhatusa guziak, dio Iskritura sainduak,
eta bereziki desonestkeriorik izigarrienak: hori
ageri da liburu sakratuetarik, eta erakhus-ten

11

dauku mende guzietako, baieta egun orozko frogantzak edo esperientziak. Hala-hala, baldin egiazki ta osoki ahalgura izaten bagare, zure salbamendua seguratzeko bezala dugu; prestugune guzietan, ta bereziki Jainkoaren aitzinean, pregarari direnetan bertze guzien gainetik, garbitasunean, karitatean, pairakortasunean finkatuko gare, egiazko seindutasunerat helduko gare.

Azkenean, ukhazazu artha handi bat, bethi ta gauza guzietan egiazko aphalesguneari dagokon bezalako egin-modu baten atchikitzeke. Ez en ezkaituzte, ez ezagutzak, ez sentimenduek, ez nahi choilek egiten egiazki prestu; obrak eta eginkundeak behar dire. Beraz, dela zutaz gaizki mintza ditezene, baieta hobetik ezuzularik ere dela zembait zerbitzu ukha diezazuten, edo bertze zein nahi gisetara zure alderat hutz¹¹ egin dezaten, guziak ongi hartzerat egizu; bertzek beheratzen zaituzten baino are beherago ezartzen duzularik zure burua Jaunaren aitzinean, zinez sentiturik alde guziz eta arrazoin guziez azken herrunka duzula merezi,

12

12

eta etzarella sekulan izanen munduaz,
merezki duzun bezembat mesprezaturia. Etzaitte-
zela sekulan mintza, arrazoin handiek
hartarik^{ra} baizen, gizonen prezamendua zure
ganat dezaketen gauzez. Zure kampo guzian
ezpedi ager hantustearen seinalerik-batere,
ez behatze, mintzatze edo ibiltze harrogeirik,
ez soineko baliosegirik, edo kolorez airosegirik,
edo artha handirekin arrimaturik: etzare
irhigarri liteken gisan jauntzi behar;
bainan hemen huts egitekotz ere, hobe
zinduke gutiegiz hutz egitea, ezen ez so-
brantiaz. Zerbait onik egiten duzunean,
guduka arthoski bertzez ikhuria izateko
gutiziak; ez halaber horren gatik utzi
egin gabe, bertzenaz egin gogo duzun ongia.
Zuk bilhatu gabe laudaturia kausitzen bazare,
iduki begia erneki hantusteari, beldurrez
eta gizonen aitzinean ohoragarri zaren bezain
madarikagarri egin zaitzan Jainkoaren
aitzinean: orduan beraz bihotz guziaz behera
jaun handi haren aitzinean, eta hari bihur-
loria guzia, hari bakharrik zor zaion gauza
bezala.

13

13

Etzaminazazu zer egin-modu idukiko
duzun orai artean phondu horien guzien
gainean; eta iragan hutzeg egiatzko damutan
sarthurik, berma zaite ongi hantustearen
khutsu guziak zure baitharik suntsitzerat,
eta egidzki ta osoki, aphaigura izaterat;
horrekin batean ardietsiren tutzu on guziak.

O Jainko Jauna! lagunduko ta salbatu-
ko ditutzu egiatzko aphaigurak; bainan behe-
ratuko eta urmariatuko ditutzu hantustetiak
eta ohore-goseak, dio errege profetak.

Aphalesgunea da egiatzko ta skulako
loriarat heltzeko lehenbiziko bidea, bigarren
bidea, hirugarren bidea, eta galde hori
eginen dautazun aldi guziez, gauza bera
ihardetsiko dautzut; prestugune balios hau
besarkazazu beraz zure bihotz guziaz, ta zure
ahal guziez huni zarraisko, iskribatzen zioen
San Agustinek adiskide bati.

O Jauna! egizu, arren, ongi ezagut
zaitzadan zu, zure laudatzeko ta goihesteko;
bainan egizu dembora berean nere burua
ongi ezagut dezadan, nere burua osoki
aphalesteko ta mesprezatzeko. Othoitze labur
hori maiz egiten zioen Jainkoari San Agus-

14

tin berak, berak osoki finkatzeko bertzei
hain hertsiki gomendatzen zeraien egiazko
aphalesgunean.



[Lizarrage Elkanoa]

1

Gaitzetatik libratzea
 Da fortuna amatzen-dena;
 Esko ondasun logratzea
 Fortuna goren gorrena.

Gaitzez inguratutik
 Bigi-gara mundu-gontan:
 Non da libre lekutik
 Negarrezko valle-gontan?

Noen arkatik usoa
 Atrat onat zen egatu;
 Andik kampoan gaichoa
 Etzeike nion baratu.

Noen arka baño obea
 Da Jesusen mai sandua;
 Gorde-bedi emen probea,
 Bai-espada izan galdua.

Nora naike erretiratu
Timbertze gaitzen ertean?
O Jesus, non seguiratu,
Baizik oren egal-pean?

Errefugio gora gora
Emen digu imini;
Emendik ez ya niõra
Ez-nazala utzi ni.

Nion ez, emen baizik,
Ezta nion salbatzen,
Emen bai, zeren gaitzik
Ezta onara ellegatzen.

13

V KAPITULUA

7.9

Ananiasen eta Safiren heriotzea.

Bada gizon batek Ananias deithua zenak,
Safira bere emaztearekin saldu zuen gozamen bat.

Eta itchiki zuen preziotik pharte, bere
emaztearen laudamenarekin, eta ekharri zuen
pharte bat, eta ezarri zuen Apostoluen oinetan.

Bainan Pierresek erran zion: Ananias, nola
Satan jabetu da zure bihotzaz zirikatu
zaituen arteraino gezur erraita Hpiritue
Sainduari, eta baztertzea gozamenaren
preziotik pharte?

Begiratu bazinu, ez gauzuna egoiten?
eta saldurik izanez, preziosa ez zena zure
nausitasunaren azpian? zertako eraztu duzu
zure bihotzean holako chede bat? ez duzu
gezurrik erran gizoni, bainan bai Jainkoari.

Eta Ananias enzutearekin hitz hauk,
erori zen, eta izpirituak egin zeron; horrek
kausatu zuen belortasun handi bat hortaz

*Astezkenerako eta Egunbateko**zelo eta kharraren beharraz.*

I. *Thondua.* Egungo mendean Jainkoak badiruviri osoki ahantzia mundu hontan; guti maitatua da, gaizki zerbitzatua: orotan eta istant guztiez ikhusten dugu laidostatua dela. Nola behatzen derauku Jainkoak, baldin ez bagare hoinbertze desordreez hunkitzera uzten? dugun othoitz egin, eta bederen gauden nigarretan gizonen itsumenduaz, baldin ezin maita araz badezoketegu Jainkoa. Ez gaiten gure buruaz lausengatzera utz geroni ere, arki maita dugula gure Jainkoa, baldin ez acholarik gabe bagare haren loriari behatzen zaizkon gauzen gainean.

II. *Thondua.* Arimak galtzen hari dire, zure aneak multzoka eta alegeraki dohazi lasterka Ifernurat, girichtino othe zare, gizatasunik ere othe duzu, baldin ez bagare hunkitua heion zori gaitzaz? lagun zinezake zure lagun protsimua, animala bat lukenean lezerat eroria, hura handik atheratzeko, zer ez duzu beraz egin behar haren anima Ifernutik begirat-

zako? zer da orai artean hortakotz egin duzuna? zer da bederen egin gogo duzuna? hemendik harat.

III. Ghandua. Libertinek ez dute deusik guphides-
ten arimen liluratzeko eta enganatzeko; inpioek
eta heretikoek enplegatzen dituzte hortarakotzat
bere hitzak, etsenpluak, izkiribuak, adrezia
eta artifizio suerte guziak. Debruak egun oroz
harriapatzen ditu bitima dokakabe frango,
gaichtaginek guzietan gaina daramate bere
gaizkirako kharraz; eta bere ustez bertutots
diren girichtino lachoak ahalgetzen dire
bertutearen sustengatzeaz, eta bai, behar bada,
haren pratikatzeaz ere! zer kondenazionezko,
eta beldurtzeko, zer ahalgisunezko eta dolorezko
sujeta guretat!

jalki satan beca pasciüz m.

Oh! exrakaren handia

Eta fortuna tristia

Ezpetüt khambiarazi ahal

Helena maradikatia.

Mithilak igorri nütian

Beste exesumetarat

Hurak ütziün balite

Bertan ene ganat.

Ezpetüt nik egin

Batere katürarik

Orai jakin nahi nuke

Bertan haien berri.

Aigü, Bülgifer, Jupiterreki

Castorra kartürrik bertan

Ezi impazienki nago

Mündü ororen aitginian.

Pusia jakkhi bi mithilak Bülgifer m.

Adio Satan, hei!

Gure büüzagix maitia!

Uontsa khosta zikküzü

zure gana helzia.

Satan m.

"Soyez bien venus",

Ène mithil abillak

Düzün jakin orai

zien bidagiarien feitak

Jar Satan ; Jupiter m.

Gure bidagiay zira

Orai mintzatzeko

Badizügü kanich berri

zure khuntatzeko.

Satan m.

Minga zitie bertan,

Ène mithil pherestiak,

Sarri ikhonen düüzije

zien phakamentiak.

Bülgifer m.

Zira, izan nüzü

--- eta Ungrian,

Türkian eta Normandian,
Flandresen eta Anglaterran.

Orano izan nüzü
Mexikan eta Tartarian,
eta beste ehün bat
Miliu erresumatán.

Hurak oro üngüratürük,
Huna jin nüzü;
Hanich mündü dit
Ederki khambiatü.

Jupiter m.

Mi ere, izan nüzü, zira,
Pharadüsü terrestrean,
Bai eta hain sarri
Sfernüko dilübiuan.

Sfernian ikhusi dit
Sarjant eta notari
Prokuradore eta avocata
Konseiller eta jüjetarik.

Laborari bat ere bai
 Zedarribat bizkarran,
 Hura erendatü nahiz
 Eta ezari bere lekhan.

Neskatilabat ere bai
 Nigarrez eta marraskaz
 Mündü huntan gizonak
 Gasia eragiz gairaz.

Paradüsan aldiz
 Ertüzü laborari baizi
 Hurak oro dürtüzü
 Untra glorifikatürük.

Haien ororen hartian
 Chapeldün bat badüzü
 Fütü berri oihüz
 Han ari zitzozü.

Khambia erazi dit hanich
 Gure legiala nek
 Bena ifernian ertüzü
 Batere lekürük.

Satan m.

Eginen diagi bertan
 Hferribat beiririk,
 Eta hura ezariren
 Berhala betherik.

Fardie!, Jaunak, ziek
 Egin düzie balentia handirik:
 Zien abilitate ederrak
 Ezarten nai animatüririk.

Chüti

Eta orai gitian
 Hphürbat arren faseia;
 Dezagün gorati khanta
 Eta egin zombait zinkha.

Bülgifex m.

Ah! zer bürüzagia debrüa!
 Han beste faseia onduan,
 Eztügün behar deusere
 Ez jan ez edan jin onduan.

Jüpitor m.

Hare gati orano kovü
 Javraikiren gütüik

Khanta eta zinkha
 Egiten ahal badüğü.

Satanek khanta ; bestek eskernia ; Satanek
 zinkha, bestek orobat ; Bülgifer minza.

Hpkhua hi, hi, Satan!
 Zer, zer khantaria!
 Hiri behatü beno,
 Nahiago nitek aiharia.

Hainbeste erresuma
 Igaran onduan,
 Khanta eta zinkha
 Güre aihaiteko.

Satan m.

Bülgifer segur nük,
 Ziek, gosetü ziriela;
 Hartakoz hobe düğü
 Juanik barazkaitera.

Sonü retina.

(Abrahamek Haranerik Shandorat (?) joateko).

I.

O jinko handia, zü zira	zütarik dependitzen düzü
Ororen kreazalia,	Ororen kuntentamentia,
Ézazü, othoi, nitara	Ézi ene indar tchipiek
Zure grazia eztia.	Deus eztizie balia.

(Soth bere illoba presuntegitik libratü ondoan).

II

Jinko handi lorusa,	Miraküllü egiten düzü
Ororen kreazalia,	Plazer düzün aldi oroz,
Bethi zük plazer düzüna	Khantatü nahi düzügü,
Izan bedi kunplitia.	Jauna, egün boztarioz.

Gitian algarreki

Orai bertan erretira,

Éta joan Sodomako

Éregiaren edireitera.

(Hinguniak abertitü zianian hawra ükhenen ziala)

III

Éhün urthetako gizonak	Éta 90 urthetan,
Othian posible lizatia,	Sara ene emaztia,
Adin hartan, seme baten	Posible izanen deia
Harek injendreatzia?	Seme baten sortzia?

(Sodomak eta Gomorrak ere behar ziala,
Jinkoak Abrahami erran zeionian)
Numquid perdes justum cum impio?

IV

Jauna balimbada

Hiri haietan 50 jüsto,

Othian hanko abitantak

Galdüiren direia oro?

O Sodoma eta Gomorra,

Hori kurrumpitiak,

Ziek ere ikhenen tüzie

Jinkoaren azote kolpiak.

(Abrahamek, Izaaki lephoa muztú behar
zeionian, libratü zialakoz, Jinko hunari).

V

Jauna, zük ikhusi düzü

Ene boronthatia,

Badatikizü nula nian

Gaiza hori prestatia.

Pihaur erregebi neqazü

Zureki bake handian,

Laid'ahal zitpadan bethi

Éternitate güzian.

Ene semiaren ikhustez

Mündü huntan bizirik

Éz zeneitan emaiten ahal

Thakü edenagorik.

Adio, mündia, adio,

Korünpzionez bethia;

Ahatzerazi izadazüt,

O Jinko kreazalia.

Hoxatürük ni banabila mündü huntan
 Hemeretzü edo hogeibat urthe huntan;
 Behin, aitareñ ichilik, juan nüñdüzün;
 Enetzat lektü seqürük ikun ere etüzün.

Hantik ere gairerdi bathez itchasuan,
 Enbarkatü izan nüñdüzün eta juan,
 Larrasi haren ikesi ez jakin nurat.
 Otsuari ezkapä eta bathü zitadazün hartz bat.

Onzi hartako kapitaigna amuruuturik
 Bortchatü nahi ikhen nindüzün maleruski:
 Jinkuari oihüz hasirik enzün nindüzün;
 Düñünda zaparta batek onzia fonditü zizün.

Onzia eta jentiak oro galdü ziren;
 Caulla bakhoizbat huren gaignen baratü zen:
 Hartan gaignen iruski ediren ninzan;
 Jüjatzen ahal düzie zoignen alagera ninzan.

Hirur gai egün egon ninzan
 Gisa hartan; gero lur idovialat heltü ninzan

Anglaterrako oihan bat ediren nian
 gai haxi lüheras etzan, ustoz hil behar nian.

Changri, doloz, bihozminez akablirik,
 Desertü hartan ezin hilez nenguelarik,
 Henni ihizen keltürük bere lagüneki,
 Ediren ikhen nündien eta eraman bereki.

Uontsa tratatü nündian gisa oroz:
 Bihotza hunkirik izan zeron amurioz.
 Runko, zer, nula nanbilan jakini zianian,
 Jaun harek jeneruski espusatü nündian.

Erregignatü izan ninyan hain iruski!
 Bena thempora labiren malheruski,
 Henni juan izan zeitan gerla egitera,
 Aita Sainthioren sokhorri Savrasien kasatzerä.

Ni haldiz, bi semez izorra, han baratü,
 Ama giharrebasari gomendatü;
 Haurdüntürük sendotürük nanbilanian,
 Ene bi haur maiteki gal erazi nündian.

Beso mutz, ene bi hawreki arrainküra,
 Stehasualat arraignekin paseiüra
 Igorri ikhen nündien, gaiag, ichilik;
 Eniz oharit ala ninzan hilik ala bizirik.

Bizirik nula ezkapü ninzan, jinkuak daki!
 Ahal bezala, jakhi ninzan bi hawreki.
 Oihan zar batetan luak hartü nündian;
 Nihaur lo nenguelarik, haurrak galdü nüntian.

Geroz kunat lasterkatü düit hanich berri,
 Hiri huntara heltü niz, orai berri.
 Jaunak, othoi, pietate ene bizitziaz,
 Eta sokhorri negazie zien karitatiaz.

Ene miseriag hunkirik, ziek ere
 Kompasione, jente kunak, ikkharie:
 Jinkuak phakatüren güti bere graziaz,
 Ziek, zien huntarziünaz, eta ni, pazenziaz.

Gurasuakin, ta gurasuen aginduban vizi dirian
 seme alabak, modu askotara pekatu egin
 legijee gazpigarren Agindubaren kontra.

Leengo: Alpererijari emonda, gurasuai biarrian,
 ta euren lanetan lagunduten ez deutenian.

Gurasuak etenaz biarrian, umiak azteko; ta ume
 azjak alpererijan, gurasuen odola chupetan.

Zeimbat seme, ta alaba alper, ta burugin
 ikusten dira, azita, orrectan? Zelan, ta nundi
 vizi dirian, inok asko ezdakijala? Ea auzuak
 deungaro esaten daveela? Izan leiteke au gurasuen
 eruba, ta umen pekatuba. Baina, gurasuen
 eruba, ez bada bere, umen pekatuba da. Ea
 ez sustrai chikikua.

Bigarrenian: Pekatu egiten davee seme alabak,

gurasuak agindu deutesen opizijuan, edo ikastian,
aleginaz, ta errazoez dentatuten ez diranian.
Gejago ikasi lezijela, ta ikasi biar leukela, ikasten
ez daveenian. Kastau eragiten deutese gurasuai euren
nagitasuna, ta arduria gichija gaiti, biar leuken,
taño geijago. Ea au, gurasuai ostutia legez da.

Trugarrenian: Pekatu egiten davee seme alavak, jan
edan laoregijetan, joko gaistuetan, ta pekatuko
ibiltetan, ta lagunakin kastetan daveenian.

Laugarrenian: Gurasuen isilik, echei laboria, diruba,
edo beste gauzak ostuten ditubeenian. Gauza jakina
da, kristinaubak Gurasuen isilik, edo gurasuaren
errazuzko naijaren kontra umiak echeko gauzak
artu, edo kastetan ditubanian, egiten dau lapurretan.
Ea gauza andira eldu ezkeru, atzeria biurtu biar
dau. Bitari, eta amari zerbait ostuta, pekatu
ez dala, esaten davenak, illten dau bere arimia.

Particeps est homicida, dicitur Spiritus Sanctus. Beste
aimbeste esaten da, senararen errazuzko naijaren
kontra gulerijetan, joko charretan, moda gaistuetan,
ta pekatuzko tratubetan kastetan daren emaztia
gaiti.

Ègija esateko, penagarrija da, ta ez eche
gichitan jazoten dana. Tita bat izerdija darijola
dabil, bere rizi moduban zorbait irabazten,
emaztia, ta umiak jandu, jantzi, jaso, ta
lagun artian rizi izaten iminteko. Ea menturaz,
rosita ekarri daren daren laboreti, edo, zorra
pagetako, ozta batu daren okela puskati, ostu
dagijola emaztiak, edo umiak burugintzarako,
gulerijarako, tabernarako, edo jokorako? Ostu dagi-
juela, plazarako, ta piestarako, ta saraurako
soineko barijak egiteko, echan daukan laboria,
diruba, edo irabatzija? Èzda au, gizon bati jazo

lekijon penagaririk andijena? Esko dira bada,
krustinaubak, alako seme alava lapurrak. Ea ez
gichi emazte buruginak, ta eche galzailak. Sitsak
soina jaten daren legez, karrik sentidu bagarik,
echia pobretulen daren amaak, ta umiak.

Lapurrak dira oneek guztiok Jaungoikuaren
regijetan.

Ea ezaututen ete ditubee eurak, euren peka-
tubak? Ez dakit. Gauza bat esan negi. Ea da.
Guraso alperak, ta ordiak, jokolaridak, tratu
gaistuetan emakumekin urte askotan ibili diria-
nak, ta okerreriak inpametan echia saldu,
aziendak zorpetu, ta umiak pobretu ditubeenak.
Premina bagako chokolate, ardao, merijenda,
mizkinerija, adiokidetasun ondo pagau, ta
jantzi sobraubak gaiti, echiari, luur jo eragin
deutsen, edo kastu andidak egin deuteszan

Bigarren ikuspena.

Oi nere Jainko eta nausi baxharra! zu hain Jaun handi, justu eta paindua zarelarik, gurutzean horrela jositik, zergatik, nori edo nola ezarri zaitu? Eranen darotazu, fauna, habeak zarela nigatik eta nere bekhatuak gatik. Zer, nere hobenek gurutzeari josi zaituzte?

- Bai, horiek bere.

Zer, horiek horrembertze oinaze gogor eman darotzute?

- Bai, horiek hemen ezarri, itzatu eta hil.

Ai nere Jesus ona! ai nere bita, eta aitarik hoberena! Mila bizi izan banitu ere, nik zugatik eta zure amorez eman behar-bidean, zu gurutzean josi eta hil izan zaitut bada! Oh! burru gogorak! Oh! bekhatu madarikatuak! Oh! milaldiz lehenago hil banintz zuek ezegitea gatik! eta nere Jainko maiteari damuri ez-egitea gatik! O bekhatu nere biziaren erhaileak! eta zein herio eta arerio garratzak zareten! zein beltzak eta dorpeak!

Bai halsa dudano, zuen asperkuntetan bizi nahi dut.

Oi nere hobenak! Oi zorigaichtoko nere lanak!

Zuek nere Jesus ona horreketan ekharri duzuela! Zuek nere fauna habeari josi eta hil duzuela! Eta ni bizi naiz oraino! Hau ikusi-eta, nigarrez urtzen,

erdiratzen eta hiltzen ez-naiz!!! Oi Jesus, nere hobenak-
 gatik eta amorez hila, oi urrikalmendu guzietako ithu-
 rri nasaia, barkha zadazu, barkha, ez nigatik, bainan
 zu zaren onagatik. Eta nik, Jauna, nik zure graziaekin,
 nere hoben guzien penitentzia eta bekiei dohakioten azo-
 teak bi besoaz besarkatuaren ditut. Bi gorputz traidore,
 honembortze Jaunari damu, eta hantat kalte nerovi-
 ri erakharle eta eragile izate haizena; herorrek
 egina, herorrek paga dezakala

Prari, Jainko amultsua, nik huri zure beldur
 saindua sarraziren diot, eta, merezi duen bezala,
 bere lehia eta galekeria guziekin gurutzezikatuaren dut.

Gorputz likits, gura txarez bethea, bekkatu-
 ren mendeko oraidino izate haiz. Bada orai, hire
 damu gorrian, azotearen mendeko izaturen haiz.
 Hire nahikariak egin dituk oraino; bainan orai,
 nahi ez-dukala, gathibu lohi-bat bezala nik hestutu
 eta karrotaturen haut. Nik janharria izariz eta
 jaunaren zerbitzurako din-dina emanen diaiat,
 eta horiere hire galekeriei begiratu-gabe, eta zeren
 Jaunkoak manatzen duen eta harek nahi duena
 egiteagatik. Lo-ere nequirik emanen diaiat eta
 ezin bertzean. Orai arte baino hestrikiago erabiliren
 haut, zeren ezdukan bertzela merezi.

Eta hi, nere mihi pozoatua; hiri Jainkoaren
beldur sailduaren lokharria jauntziaren diaiat,
ichilago eta begiratuago egon hadientzat. Hemendik
aintzina, oharukiago, ikusiagorik, eta elhe gutiago
erabili beharko duk.

Nere eskuak, zuak-ere, jaunaren lanetan
haritzeko ez bada, lotuak eta hilak egon behar
zarete.

Zuek, nere begiak, zuetarik heldu diren eta bihotz-
zean sortzen diren gogaramendu lohiak, zuenak egin
du. Zuek eta bertze sentzuak, hilak bezala jar
zaizte; ahalkean eta gogohurriduran uzkur zaitezte.

Higana oraino-ere bihurtzen natzauk, oi gorputz
beratzegia, hiri olde gaichtoetan oraidino nahi
bezala ohitua; ja abereen arauko libertate
barraiatuak goan eta akhabatu dira hietzat.
Ez hain ez gehiago hie gogoko urhatretan
ibiliren. Jainkoaren nahia baxharrik egin
beharko duk guzia eta gauza guzietan.

Hi nere Jauna, nere iragan tizi galduaz
lotsa naiz: chede berri hauk ongi begiratzeko
indazu othoi grazia.

Offizio zembaiten kritika

Oi laboraria, gachoa! hikaurek jaten artoa,
Ogi et' ardo *genhatzen* auherren asetzekoa,
Halere haiñ haie maite nula artzainak otsoa.

Arzaina bada beztitzen, josliak tii gomendatzen;
Jaragoilen alderdi bat oihal hobez ezar dezen,
Halere higatuiren dui aitzinia beno lehen.

Dendaria berant jiten, arratsan goizik itzultzen;
Mündiaren jorratzen, arte hartan abusatzen:
Ezpeitü jaten diana küllantzeko irabatzen!

Orai ürüliak oro idorrian nahiago;
Hbanitz agertü beharrez, hari-oro chori-lepho;
Hallikatzen balinbada zekian laur oropilo.

Oihenizainak eta gardak, kontzenziatzko gizonak:
Gerak bazaitze farzitzen, ikhesiren tie postak,
Lagünex bardin har ezaziren gaizo sinheskorrak.

Errejent bat hil dadila, ezti hark prosesik eisten:
Huntarziinak düti harek heññ hunian ezarten;

Zintzurrian kontrolatu eta sabelin ipotekatzun.

Bizier batek bestiarri estakürü eman nahi:
Zoini bere kopadüra hobe betzaino idüri,
Biken gabe nahi denak, huira iüü beza berü.

Aberatsen ilhaginak, arimak hain untsa galtzen:
Shezian bai kontietan zer ezte hek ebasten?
Haiekila behardüke jinkoak aizina iikhen.

Tarjant eta notariak, oi arnes necesariak!
Hen elke iilkün, gezürrek, nahasten gaiza chipienak,
Ezta lagün hobiagorik bertan küsteko etchiak.

Hiriburu
1780

41

1

Kriketak.

Eskaldun emazteak lainhoki beztitzen;
Uzpulurda, jakekin, athorak gordetzen;
Kasakina, buruko eta lephokoa,
Zapata herrestekin, jauntzi beltzikoa.
Igande egunetan, Eteheko-Andreak
Elizarat joaiten lephotik urreak:
Izpiritu Saindua dute gurutzetan;
Beriak hasi dire tunkatzen gathetan;
Soin seda eta kapa hainitzek ekhartzen;
Buruo organdila, churiz arimatzen.
Lutiago direnak bere etorkitan
Mantalinekin dire igande bestetan;
Astelehen guziez, balioan deusik,
Zangarrak gorri eta zangoak orthutsik,
Achiroinak bartz aldiz odol dituztela;
Alaba hoberenak ikuskidin hola;
Edozein lanetako dituzte besoak,
Ondoren ondo segiz bere arbasoak.

Bainan aurkhitzen dire neskatza bakharak,
Bere soinekoetan ederki beharrek;
Heek erosten ongentu ilen leguntzeko,

Orenak ez bekharitzen mirail aitziñeko,
Liztorren fraxe gerriaz, esku churiekin,
Andren gisa josizko soin amarantekin,
Brodekin heretsitarik zimenduz dirdiran,
Eregekinak iduri bere aphainduran.
Luzeki izan dute gudu orrazekin,
Emanoz arreztelu ichura gorekin,
Etzuten ere nahi buztana dilindan
Muruako plegatutik hiru ezkinetan;
He beltzak zituzten papilotatuak,
Beharri aitziñetik flokan hedatuak,
Gexiak hertratuak, sobera bezala;
Eartanak bizkarretik, nardoaz utzi chala.
Ora ere buruan adarrik ezdute;
Erenchoin gibel itchura khoro dakharkate;
Aitziñetik burua ageri erdia,
Ilea sagerdeka bi alde jautria,
Dirdiratzen duela mazelan behera,
Beharri gibelean sar arte ondaria.
Españolek ilea ezpartzatzen dute;
Nola nahi den, artha ungi diotzate.

Holakok ez haintzurrei gustu atzematen;
Ez bezteko larrua, jartzen dire josten,

Hainitz hedatzen ere hiri goibelerat,
Jaun zenbeiten neskato arral higatzerat.
Herrietan badaude, hoita bertz withetan,
Ikusten ohi dire gurutz handitan:
Aphaintzen baizik zeren ezduten ikhasi,
Muthil gazteak zaitze joaiten ihesi;
Buru duten guziek nahi neskatchetan,
Aphainduraz bertzerik, ezkon orduetan.
Zentat neskatcha ezda bazterrerat uzten,
Zeren ethorkiari ukho egin duten!
Esko jaun suspitchekin neskato direnak
Ezditu bilkatuen Eskaldun azkenak;
Joan bidire, joan, ezdute herrian
Beiratzaile bihirik kausten gazterian.
Berek ere ezdute esku beltzik nahi,
Jaunenak dituzteino itzalaren baki;
Prainan kopeta edo larri zimurtzetan,
Edozein har lukete etchola zainetan.
Guti beraz balio kriket bizitzeak;
Lorerik ederrena galtzen fanitzeak;
Baterre zukur dena arratraz orwizzen,
Goizeko iguzkian, ez sobra postatzen.
Gaztelasunak labur ditu mugarriak;
Aitzinetik zukurak hartzen neirriak;

54 4
Begitako fitsekin, ez farfalatuko,
Zokhoetan zaurthua gero egoteko.

Begituzeko gustuak, herunka batean,
Galtzan ditu arimak, sarthuz brepean;
Aphaintza sobraniek sarea dirute,
Begi onik zuhurnak nihoriz ez diote,
Jakina nolako den kalako urrina,
Gorpuztza dutenean uzten desegina.

Nola beraz muthilak, buru duenean,
Eta andrea behar gidari etchean,
Barturen du neskatcha arin ikusia,
Irabaz ahal, sosa khetan egorria?
Ohoizki ogia jan nahi duenak,
Ez soinean ematen irabazi denak.
Zer dohako jendeak ezdizozan beira,
Ikki behar denean laneko bidera?
Nola eman duenak norbaiten begian
Irabazi guti du, jartzeko lorian,
Bizkarneko arropak ez ogi ematen,
Aitzitik bertz zorri hobena egiten.
Kopeta behar batek, konradurik gabe,
Ikkitzeko kanporat, nola urre jabe,

Bi zangoen puntetan gorputza luzatuz,
 Doiean ingururat begiak hedatuz;
 Jaunen bilha dabilza, jaun izanen dute,
 Bainen izenik haurrei emanen ezdute;
 Segidan, ezin biziz, amak ibiliko
 Nork dioten emanen haurrik bulharreko.

Nihor guti heruitik ilahi gaztedeino;
 Etchean egon bedi, arthotik dueino;
 Utz bezate neskathek moda segitzea,
 Muthil tzarren ondotik berak ibiltzea;
 Arimen aphaintzea, bethi da hobeko;
 Hortik heldu ungia, ez chosilki geroke:
 Bizi denari zuhur eta berthutedun
 Etzai eskasturen Jainko ganik lagun.

Mintzatu naiz kriketez, ez hainitz delakotz,
 Bainen bat ez izanik, hobeki delakotz;
 Neskatcha Eskaldunak prezagarri dire;
 Nihongo lozen beldur, argitan ezdire.



28

44

73

46 y
Erlia eta ulla.

Ègün batez bere kofainaren onduan ere batek
ikusit zuen ulla bat. — Zertara horra hiz hurnat? erran
zeion; juntatu nahi hingatze aireko erregiñer, hi,
barbatot teharra? — Egen dit zure ganat hürbiltzez,
ihardetsi zeion ullaik; zure nazionea harro düzu;
güziak mesperatchatzen tizü, eta zer nahi haizü
zañola idüri ziozü. — Nihor eztün gü baino zühür-
ago, erran zeion erleak; batiñagü miragavizko
legeak; hartzen tiñagü lili üsaindüner hümeak,
eta egiten diñagü gozo-gozoko ezti bat. Khent adi
ene aitzinetäk, hik eztakin burumba egiten eta
gorotzetan bizitzen baizik. — Ahal bezala bizitzen
gitüzü, ihardetsi zuen ullaik; emutiqua eztüze
bizio bat, samurqua bai hatik bizio handi bat.
Ezti egiten düzü, bainan zure bihotza gogor.
Zühür zireie zien legetan, bainan eztakizie ematzen.
Zure eztenaz min egiten düzie, bainan hiltzen
zireie, hartaz tehistatzen düzienian. Gaitz egiten
deizüe zuen ertzokeria gaichtoak.

Oi ene ama, kharraiatü naizü hanitz egünez
 zure sabelian, eta gero hazi naizü zure ezpiaz.
 Haur haurto nintzalarik orano, eta eniotzalarik
 enthelega zure arthak, hanitzetan, ahospetürik
 ene khüñara, ene boztarioaz iviz ari iyan zira,
 ene negarren gatik nigar egin düzju. Ene gatik
 sofütü ditüzju dolore handiak, antsiak eta ordü
 güziatako phenak. Bainan poizju nula, zure
 arthen medioz, egiin güziez handitzen nizan,
 eta nula zuretako düdan amodioa, handitzen
 den egiin oroz enekilan.

Oi ene aita, jinkoaren ondolik, zuri
 zox deizüt bizia. Zure haurraren eta haren ama-
 ren hazteko, busti düzju lüria zure izerdiaz.
 Lanian aritzeko, pietateko, doian jan-edateko,
 etsemploa eman deitazü, eta eskolarat igorten
 naizü irakurt ditzadan han bertuteko manü-
 ak. Zeruak benedikatüko ditüzju zure arthak.
 Orano dembora phichka bat, eta ene besoak
 tresotüko ditüzju zurenen lagüntzeko. Egiin batez,
 ikhusten nükeziünian zure nahiküntientzat
 erretürik, errespetüz eta ongi eginen orhitzpenaz

48

betheik ene amaren eta zuretako, kontent zirate
zure lan eginaz, eta ni, zembat enizate dohatsü
zure zori hunaz!

Gau beltz baten ordian, itsü bat zabilan argi
bat esküan eta ferreta bat betheik soinean. Lastertz
zabilan batek harekidan birü egin zuen, eta, argi
hortaz estonatuik: "Zoin enüchent ziren, orran zakon,
zer egiten dauzu argi horrek? gaur eta egüna eptireia
ez ber gauza zuretako? - Eztiat ez enetako ekharten
argi hau, ihardetsi zeion itsüak; ekharten diat
hira idiüri diren chori-bürüak nitara behatstopa
eptitien eta hautveraz eptedezatzen nere ferreta."

Laboraria eta bere semeak.

Laborari etchedun bat

Joan zaharrez hiltzerat:

Bizitu zen ohorezki,

Lanean hariz fechoki,

Eta gastatuz chukurki:

Umeak zituen ere

Ontsa ekharri bethiere.

Baiña etzen fida sobera

Hauk hala eginen zutela:

Laneko baitziren nagi,

Jateko aldiz gormantegi.

Leiturik aldamenera

Mintzatu zaien hunela:

"Ene umeak behautzue sal nioiz ontasuna;

Ezen hor bada tresor bat noizbait gorde izan dena:

Ene aita - ametarik daukat hori nik ikhasia.

Join lekhitan ontsa ez dakit dagoen ehortzia,

Parte guzietan itzul eta lan ezazue,

Segur nekheen paga noizbait badukezue?—

"Aita, diote semeek, tchit trankill bazaudetzke,

Eresora atzeman artio baratuko ez gare,

Bertz inor bezain, gu ere, tresor zale baikare.

Kola eman, hala egin, uzta hek sartu duteneko,
Alhoraren itzultzeko lanari lotzen zaizko.

Lehen baino barnago ere hilloa daramate,
tore, tresna, nekke, izerdi, guphide deus ez dute.

Uzta gelditzen chokorik

Erabili ez dutenik.

Landak ere, hara bada,

Doblea eman zuen uzta.

Bertze tresorik han etzen:

Frankill hill zen zaharra ere,

Kill baino lehen halere,

Irakatsi baitzieten

Uzta den tresora

Lan segituan datzala.

51

1

Brahma.

Brahma, Vishnu eta Shiva egiten dute Indus-
tarren Trinitatea. Brahma da maizenik lehen presu-
natzat hartua. Ez hiririk egin: hark egin zuen
mundua arrotze batetik. Gaineko kroskoa jarri
zen zeru, azpikoa lur; erdia airek bethe zuten.
Ezdu nihork erian zer bilhakatu zen goruingoa,
nahiz kroskoak baino gehiago balio zuten: nasti
Jainkoak iretsi baitzuen gosaitako, lanaren ondotik!
Brahma ganik dire sainduak, zeinen artean
handi baita Narada, chitolari bat, trufaria, nahas-
tatea, ikus ahal guzien porroka garaitzalea;
arras ez bada, bederen heintateraino, ergele
miraila. Zerua eta lurra jendez bethetzeko,
Brahmak egin zituen ehun muthil eta ehun
neskatcha; baina oro zeruan gelditu ziren;
etzuen batek ere jautsi nahikatu luraren
iraultzerat. Orduan egin zuen gizon bat: Brahman.
Nola oihan guziak basa abere baitziren, gizon
berri hori erenkuratu zitzaion deus etzezakela
egin eta nihorat etzioakela. Brahmak athera
zuen besotik seme bat, Brahmanen zaintzeko.
Bethi zelatan egonez ez baitzezaken hil jate-

korik, hura ere errenturatu zen, eta Brahmak
athera zuen laborari bat ichteretik. Azkenean
agertu zuen nonbaitik laugarren gizon bat, ororen
muthil izateko. Balentria handiak dire hoik. Guzi-
en gatik, Industarrek ezdiote ohore berezirik bihurtzen
Brahmani, gaindiz diren arren erresuma guzian
Vichnu eta Sibaren Elizak. Gure hevitako jakinek
nahi liokete egin bere haurrek baino gehiago:
nork zer behar du erian, bereziki jakitean zer
putikoa zen Brahma? Jainko nausiagoko batek
arhiki omen zuen zerutik, gaizki ibili zuelakotz
saindu bat bere etxean. Parhamenduaren ardi-
esteko miliun urtez ibili zen chingili! Lau
aldiz garbiatu zen gorputzez. Ikusi zen aldiz
lohi, niga, bele, izkiribatzaile. Lau buruekin
agertzen dute. Braziuen bortz; bainan Sibak
khendu edo ebaki zion bat, arinegi atzemanik.
Joka nezake gure arteko jakin zenbaitak buru
ideki hura atzematzen dutela adoragarriena,
zeren galdu zuen hek maite duten guduan.
Nola nahi den, bekkoki behar dute horren izartzeko
Jesu-Kristorekin. Aroltze batetik egin du mundua;
berak egin bazuen aroltzea, oilo behar zen, handia
izanik ere. Bederen jainko ttipi zen, gizonak

banazka egin zituenaz geroz, batek bertzearen
beharra irakutsiz. Erunitateko presuna dela diote!
Nihore jakin gabe nola, iztapeka aurkitu zen lore
baten gainean. Berak etzakien zer zen, ez nondik
heldu zen. Bertze Jainko batek eginarazten zion
othoitz, ikhasteko etzakitzanak. Egun goibelelan
soitxu zen, nihork ez jakin noiz. Ez ninteke
beldur errateko nihoriz ez dela izate Brahmarike,
eta alegiazko izen bat dela hori, sorginena
bezala: choroak baitire, eta izanen ere bai,
manuek behar dute bizi! Ezdu balio mintza
gaiten Brahmaren nigarez gaizkien ondotik.
Beldurtzeko zen haren aurkitzea eskaile eta
nigarti guzietan. Etzuen deus irakutsi ikusten
ziren gauzez taizik, non etzen berri handi bat
lurra chitan egotea, egiteko gizona arrotze
bat bezala.

Nola behar den otruuntzatu.

Gauza guzia sainduak izan behar dire Kristauntzat, bai eta gure gorputz herbal hau sustengatzeko diren aktiozeak berak. Sanktifikatu ezatzue beraz zuen otruuntzak Jondoni Paulok dioen bezala:

« Edo jan dezazuen, edo edan dezazuen, guziak egitzue Jainkoaren ohoretan. » Egitzue zuen otruuntzak zuen indaruen erparatzeko chedetan, hobekiago zerbitzatzeari gatik zuen hazten eta kontzerbatzen zaituzten Jainkoa.

Fratretchar gachoa, helas! zuen jaten duzuen ozi harroa, maiz bustia da zuen nigarrez. Jintzurkoiek eta aberats gachotek maite dituzten gurikerien gerizean garet. Egizue beharraz bertute, eta janhari aruntar eta komun batetarat hortchatuak garetenez geroz, sumeti zaitzete Jesu-Kristok gurutzearen gainean edan izan zuen kheldarraz eta miñagiaz. Erakhar ezatzue zuen gogorat Trappako eta Santa Klararen fraide eta serora hek, zeinak bihi baitire hain gogorki eta latzki, zeruaren irabaztea gatik. Jorion bera zuen ganik dependitzen da. Tuhenda zatzue hain bertze aberats, zeinak, bere bizitze labur huntan, mahain onean jartzan baitire, eta zeinek ez izanen ur chorta bat eternitate

guzian.

1: Othruuntza aintzinean. Egizue jan aintzineko othoitzza debotki eta gardia emanaz; usantza saildu hori zuen ezagutzaren seinale bat da: zor diozue hori esku ungi egille zuek behar dituzuen neurrimendua ematen dautzuen hari.

2: Othruuntza hartzean. Zaudetzte molde onean; jantza zue ezteki eta sobranianik gabe; ihes egiozue heraultzia libro, sobra maiz mahainetan aditzen diren heiori. Othoitzaite Jesus Kristok bere dizipulu eta adiekkidiekin hartzen zituen othruuntza saildu eta komun hetaz. Ez nihor behinere bortcha edaterat, eta gibela bertzeak sobraniozki jatetik eta edatetik.

3: Othruuntzaren ondoan. Bihur diozkatzue Jainkoari eskerak eman dautzuen neurrimenduaz. Izan zaitetzte ezagutzaz bethea gozok aberats esker gabe hek baino, zeinak bere mahain handietarik altchatzen baitire, Jainkoaren dokainez gizenduak, othoitze gabe bere ungi egilleari eskeren bihurtziaz.

Ez jan, ez edan zuen othruuntzez kampoan, bereziki ostatutan; han zinezakete zuen dembora, zuen dirua, zuen osasuna, zuen arima eta familliako bakea. Humanitatea desohora zinezakete, jaten eta edaten gartzatuz zuen esposaren eta haurren mantentzeko izan behar den dirua.

mintzatzen enzun zutenei guziei.

Eta zembait gizon gazte jaikirik hartu zuten, eta eramari kaborat, eta hortzi.

Eta gertatu zen hirur orenen ingurumenaren ondoan, haren emaztea ere, jakin gabe zer gertatu zen, sartu zela.

Eta Fierresek hitza hartuz, erri zion: erri ezadazu, hain berzeren saldu duzue landa? eta erri zuen: bai, hain berzeren.

Orduan Fierresek erri zion: zertako egin duzue konzertu bat zuen artean frogatzeko Jaunaren Izpiritua? horra atean zure senharri hortzi dutenen zangoak, eta eramaren zaituzte.

Eta ordu berean erri zen haren zangoetatik, eta izpituak egin zeron. Eta gizon gazteak sartu ziren ondoan, kausitu zuten hila, eta eramari zuten kaborat eta hortzi zuten bere senharriaren aldean.

Eta horrek beldurtasun handi bat eman zuen eliza guziari; eta gauza hauek enzuten zituzten guziei.

emaztiak: Eza guratuena naijaren kontra, edo ostuta,
 edo alperxerijan, edo beste maina charretan gura-
 suai kastau eragin deutseen umiak: Oneek, dinot,
 nekez kompesau oidaveela, echeke aziendiarri, ta
 eukijari egin deutseen kaltia. Jokolarajak ez dau
 kompesauko, famelija pobretu darena. Emakume
 ordiak ez dau esango, echan ostuta edaaten
 darena. Semiak, edo alariak ez dau esango,
 utia ezex ikasi bagarik irago jakona, ta
 gurasuai alperrik kastau eragin deutseena. Eza
 ezda, echan ostatuko jan gauziagaz, adiskide
 ez onari merijandia sarri emon eutsana bere.

Bada jakin, newre entzula onak, (onako gauza-
 rik jazo batjazu, nai aitari, nai amari, ta nai
 umiai) aparteko pekatuba dala zazpigarren
 agindu santubaren kontra, esan dan moduban,

58

echeko ondasunak kastetia. Tekatu mortala
nos dan, ta getaragino dan, ta zelan erremedi-
jau biar dozun, esango deitubee zeuben kompe-
sore Jaunak.

1

1

("JESUSEN BIOTZAREN DEBOZIOA", A. Sebastian Mendiburu;

Nola ta zergatik egin bear diran egiten diran gauzak.

Jesusek Biotzaren debozioa da, len esan degun bezela, zor diogun amoregatik Jauna gogotik maitatzea, ta maitatze onek dakertzien gauza onakin al diran presentak ari egitea: ta gu ez uztegatik, Aldarean egin zaitzan bidegebeen damu aundi bat artzea. Zor diozun amoregatik bada, ta zugatik daramanaren alde, egin bear dezun, egingo dezuna. Ezagu dezazun zugatik egin zuena, egiten duena, ta daramana Jesus onak, itz bian bildurik emain dizut, len luzeago erakutsi zaitzuna.

Ekus dezagun onetarako bein gugatik Jesusek Aldarean egiten duena; ta gero guk Jesusi egin oi dioguna. Borondate osoarekin, edo nai guziarekin eskeintzen digu Jesusek Aldarean bere gorputzaren janari aundia; baña edo nekez ateratzen gara, edo artzen dugunean, izan oi da, ezin bestez, edo nai gabez bezela. Marrik eztuen naiarekin maitatzen gaitu Jesusek; eta ezer zor ezpaganio baña, gelago ez gara gu Jesusez oroitzen ere. Maite gaituela-

ko señaile bat eskatu bagenio, eskatu gabe eman diguna baño aundia-
gorik, ezin eman zezakean. Gugatik eraman dituen neke, izerdi ta
eriotz gogorra, maite gaituelako erakusteko asko ezpalira bezela,
gelditu zaiku lurrean, dituen ondasun, ta izate guztiarekin, gugana
etorri, ta gure biotzean sartzeagatik: ta ematen diguna baño geia-
go ar bageneza, edo artzeko estaduan bageunde, geiago emain liguke.
Non nai, edo edozein errita, eta edozein orduz arkitzen du Jesus,
billatzen duenak. Ongi egiteko ez dio begiratzen, eskatzen dionaren
aunditasunari: den errumesena, edo ~~ur~~ork ekusi naiez dabillena,
artzen du Jesusek, billatzen badu, biotz onarekin, ta beste edozein
bezain ongi.

Baña nola erantzuten diogu Jesusen fabore ezin geya-
goko oni? Agitz gaizki. Gizonen eskutik artzen du Jesusek konta ala
txarkeri ta geyago. Lenbiziko artu aldian, zikindurik utzi zuen
Judasek bere komunio gaiztoarekin aldareko maya: ta zenbat onelako
zikinkeria ez ditu Jesus onak ekusten geroztik? Asko dira munduan,
arpegi onarekin Jesus, Judasek bezela, saltzen dutenak. Asko dira
konfesioko iturrian garbiketa iduri bat egin, ta biotz loi, ta gal-
duarekin komunioko mayera igaten diranak. Onelakoak faboretzat
saldu nai diezte Jesusi, Erejeen sakrilegioak adiña sentitzekoak
diran, bere komunio gaiztoak: bada Erejeen sakrilegioak negarrez
betetzen ditue Jesus maite dutenen begiak, eta damuz, ta urrikiz
biotzak: ta onelako urrikiak, damuak, eta negerrak atsegin giten
diote Jesusi, egiten zaitzan txarkerien artean; baño komunio gaiz-
toen txarkeria ezta ekusten; ta ekusten ez den, bidegabeak edo txar-
keriak ez du negarrik eragiten. Beste alde, gutxi dira komunio
gaiztoen orrenbat berri dutenak; eta gutxiago, oriekatik darama-
tzien miñetan, beren damuz, Jesusi lagun egiten diotenak. ~~Egia da~~
bietatik edozein dela txarkeri arrigarria.

@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@
@@@@@@@@@@@@@@@@

IKUSERAN. Onen-onenean odala norbaitek pütz-eginda legez, ezereztu zan, ja aldean gelditu nintzan nora joan enekiala.

Onako baten txistu-ots luze gogor bat entzun neban. Begiratu bertara ta su-burdia. Zornotzako gelune edo estaziñoan purrustada bat egiñaz geratu zanean, eldú nintzan ni bere kontrara. Begiratu neban burdietetara ta egin kontu beti ikusiriko arpegiak neukazala begien surrean: sur-andi, gizon txapel-txiki, emakuma ~~zax~~ zapi-luze, erdaldun baltzeranen bat... betikoak. Gauza batek arritu nanduan: burdi guztietatik surrik andienen iaube zireanak bateratsu txistakada asi zirean, ta lorarik lora ibiltzen dan erdaldaren ahtzera, mutiltxu bat ebillen burdirik burdi, besapean edozeinbat albistari ebazala.

Begiratu neutsan paper pilboari ta El ikusi nebanean, erderazko paper guztiak El edo La dauke asieran, ta erderazko izango da ori bere, esan neban. Irakurten nengoan bitartean, "zer dok Txirrist?" itandu eutsan norbaitek.

- Eu az? (Gosea zan).
- Ze darabilk?
- Asarbez nago, txotxo.
- Beiren bat il al lak?
- Beia il niri? Orixe nai eukek ik, Gose biotz baako urdail-andi orrek.
- Amama gaisorik al daukat?
- Barriketako gogoa daukak ik. Nik eztaukat ez aldarik, ez alderik, ez odolekorik ez iñor. Zelan eukiko iok odolekoa, odolik eztaukanak?
- Jatuna baintz lanperna zarrak ian ete doazan itanduko neuke. Zer dok, Txirrist, asarre izateko? Erdaldun maisu barriren bat etorri al da Amorebietara?

otseiñak egin dagizuen orrelangorik? Ze ugazaba-andrak gorde ez daruaz gilzpian okela, urdai, ta bestelango gauze asko? Ogiya lotu edo katigetu biar ez jakee otseiñai. Ugazaba-andria zikotz zekena bada onetan, balte geijago izango dau. Biar egiten dabenak, jan biar dau. Praiska, ez enzuterik emon onek esanai: izan zaite esku garbikua. Niri siñistu gura badeastazu, urten egizu bai emendi. Ardao-etxeetan sartuten dira agura baldrsak, mutil gaizto lotsa-~~babeak~~, ta ez dozu enzungo emen berba garbi ta zuzenik, ta bai birao ta zantarkeriak. Ule trenza orisain maite badozu, iges egizu garbitasunaren lapurren arteti.

Prais. - Ondo dinozu, gizon ona: emen barallia, diadarra, euzkia ta nasaitasuna baño besterik ez dago. Nik ez dautsat urik ezarten ardauari; baña bai atso arima bagako onek; ta ixillik badaruat, lagunduten dautsat lapurretan. Edatera datozen gizonak esesten deuste neuk erruba baneuka legez; ardaus makala daguala, neurri laburra emoten jakeela, lapurrak gariala, ta zer ez? Barriz ixildu gura ditut aitatuten deustezan izen lotsagarri damu emoten deusteenak; beintzat urtia egin daidanian artuko dot igesa.

P. - Ze urte ta urte oste? urten egizu ainbat lasterren onelango etxeti, nun Ingoikuaren usainik eztaguan.

M.J. - Zagoz issillik; ementxe dator bentera, ta etxeke andra prinzipala, ta enzuten badeutsube konbersazinua, galdubak gara. Pausu otsa da; orra or itxura ederreko ppendia.

Praiska. - Gorra dago; diadar andi бага eztaanzu ezer, ta egizu berba ardura бага.

M.J. - Ondo dago bada. Peru, zer deritxu eskatuko deuskula pagutzat?

P. - Arpegijan agertu oi da askotan nor zelangua dan. Begira egijozu ondo buruti bietzetara atso oni. Baditu gutxiehez lerogei urte: bekoki guztia tximur tximur eginda bere mamin ta guzti: begi bijak ezkelak, ta gorritubak, piztas ta bekarrez betiak; betseina katubaren gisakua; betuliak erdi zuri, ta erdi murrutubak: betazpiak baltzitubak: ortzak antxina juanak, oi utsak agiri ditubala; suurra azpiti auts gorriz betia, muskil baltza darijola, gañeti zubituba: lepua makurra, ta gita artuba. Bakarrik miña dauka txito ezko ta zolija neskatilliak dinuanaz. Eztaukagu zer itxaren abegi onik; gure lapikoko arbi, aza, ta okela zantarra urre biurtuko jako bere suak, ta diruba ezpadozu ugari, ez dakit zelan ibilliko garian. Alan bere urten daigun ezta-baideetati, ta itandu egijozu, zenbat eskatuten daben gure aparti, gosari, ardao ta oia gaiñi.

M.J. - Ondo: baña ze izen dau? Neskatilla, esaizu.

Praiska. Maisu Jauna, Andra Magdalena deritxo.

M.J. - Izen ederra; bere izeneño Santiaren debotia bada, ezta zekena izango. Probau daigun. Andra Magdalena, esan beigu, zeinbat da gure kontu guztija?

La vieja - Itxaizu kontubak atara daidazan... Atera ditut, ta gizon honraubak zareen aldeti, ez da izango eskudo bi baño geijago; beste batzuk bazinee, geijago pagau biarke zeunakeet.

M.J. - Andra Magdalena, ez gara bi baño geijago; gau bakar bat igaro dogu; eztogu ez ollandarik, ez eperrik jan, ezda pitxar erdi baño edan. Zer esan dau?... Eskudo bi pagau biarke dogula?... Gorra dago?... Peru, ixillik zagoz?... Barre egiten dozu?... Atera egizuz kontubak, ta nik paperian sumauko ditut.

P. - Ondo dago. Lau onza aketirenek, lau lauko. Zortzi arbi buruk, anabi zuriko, edo iru lauko. Azatan kolpe ta guzti, bost lauko.

Urdai apur apur, urtu zana, lau lauko.

Ogi baltzetan, zortzi lauko.

Pitxar eddi ardao, amar lauko bits ta guzti, eukan ura sartu baga.

Nireoe antxinako Eremutar, ta Padarrak gogor ta iguingarriagorik euki ez ebeena, sei lauko, ardi ta imiotxa bakotxeko laumarai esketan ezpadau.

Goiseko kolpatsuba zortzi lauko; ez naiz ni geijagogaz gomutetan. Maisu Juan, jo eragijezu batera lauko guztijai, ta esajoju zer zelan dan, ta begiratu daijola arimiar.

M.J. - Ah zorua! Oni arimia aitatu? Oin bategaz sepulturan jaraok, ta bestiaz inpreiñuban.

P. - Zeuk daukazu erruba: etorri ezpaziña ainbeste soñoko bitxidun ta apainduñijaz, ez eban ainbeste eskatuko.

M.J. - Peru, soñokuak eztabee ezer jan, ez edan.

P. - Zer da ansi, edo ardura? Zulango apainduben zain dagoz orlanguak, ta arnasia bere zoroko dozu.

M.J. - Leenago inpreiñuko guztijak eruango lajauket atso sorgin au, nik, eskatu dabena, pagau baño.

P. - Egizu egingo dozuna, ta esaidazu zeinbatera joten daben gabak, ta gois dontsubak.

M.J. - Paperian batu ditut laukuak, ta igoten dabee berrogeta zortzi laukora, ta oneek egiten dabee bost errial, ta bost lauko ta erdi. Inpreiñuko atsuak, sei errialera ~~erdi~~ ^{erdi} eztaben kontubari, igon erangigo deuteka eskudo biraño? Ez gaur, ni bizi banaz. Magdale-na, kontubak atara ditugu zeatz, ta joten dau gurekastubak bost erriak, ta bost kuarto ta erdiraño; ona emen sei errial, ta iru

lauko geratuten dirianak, isten ditugu Fraiskarentzat burukorra-
tarako. Agindu ta agur. Peru guazan.

La vieja - Piko bergantio, sei errislegaz paguba niri egin? Zuben
kontu arinetara ni etorri? Suba, ta enbarazuba nun dira? Nor
pagauko ditu nire etxiaren errentak?....

P. - Ez neutsun esan zer jazoko jakun? Zer egin orain?

M.J. - Zer egin? Itxi egidazu neuri eskrupulubetan sartu baga, eta neuk
emoten deusut berbia urtengo dogula lauzuri bere pagau baga.
Fraiska, ekatzu goiseko urdaijaren azala...

(Toma Maisu Juan la corteza o pellejo de tocino; cae la
vieja en tierra, se maltrata y exclama)

La vieja - Al, al! il naz; atera dot besua, ebagi jat buruba; odola
darijat arpegitik bera. Fraiska, Fraiska, eldu zakidaz; galduba
naz betiko. Nire ditxa bagia! Gizon onak, jaso nagizu, ta ezarri
oera. Dakrdela barberuba.

M.J. - Ezta zer ekarri barberurik; neu naz barberurik asko. Zorijonlan
zuretzat urten ezdogunlan etxeti. Lenengo egin biar dana da sangri-
ja bat: gero kurau buruko epaija, ta azkenlan zuzendu beso ateria.

La ventera - Al orrelanguak egingo bazeunstaz! Parkatuko neuskezuz guzti
eskudo bijak, ta ipiniko litxakezu gaur bere bazkari ederra duarik.

M.J. - ... Fraiska, berotu egizu laster ura, ekarri egizu gero terreña
bat; presta egizuz benda ta sangrija txapataak, ta kontu ixillik
eukitiaz zelen izan dan. Ama-ama gaisua; ekartzu beso karrebaga
ori; ozteutsut miñik emongo, lanzeta barri ta zorrotza daukat;
zure zeeanak agirijan dagoz.

La ventera - Al, neure gizon ona! Egizu laster sangrija est
zerren nire buruba miñez ebaten da besua

~~M.J.~~ M.J. - Ekartzu bada beso ori; ez deustut min andirik egingo.

La ventera - Larregi daukat miñik. Ala n bere zabilz kontuz.

M.J. - Larga niri; bada pultsubak ezteust ikararik egiten. Ardura geijago emoten deutsee beso ateriak, ta buruko mallatu, tontor, ta epaijak... Orra sangria eginda. Ekartzu orain, amandre, beste besoori, ikusi daigun ze kaltiak egin dirian.. Ai, ai! Galdu jatzu betiko; azur ateria-baño izan ezpalitz, neuk imiñiko neutsun bere tokijan. Ezin neurtuko dozu onezkero ardaorik, ez erabilli esku onegaz giltzik. Azur ausija, nok osatu? Jangoikuak bakerrik, imiñiko deustugu koipe, ta malmazko emplastu bat, miñak gitxitu dakizuzan.

M.J. - Atsegiñez; baño animo; ezin osatuko deustut buru zaurituba min andi бага. Ibilli bear dabee jostorratzak, binagriak, ta bai lanze-tiak bere,

Ventera - Ai nire galduba! Josi gura deustazuz aragiak, erre gero binagre ta gatzaz, ta epai barridak egin? Ilgo nozu tormentuz beterik. Maisuba, ikara jabiltaz azurrak, izerdi larri batek urteten deust gorputz guztiti; begiak lausotuten asi jatuz; il biot.

M.J. - Ez amandre; aldi gaizto txaarren bat geijen egingo jatzu, ta obago zuretzat; zerren gitxiago sentiduko dozun miña. Fraiska, sartu dozu arija orraatzian?

Prais. - Bai; eutsi.

M.J. - Ama-ama, animo, eskatu egijoju paziencia Jainkuari, nik bere egingo dot kurutzieren señaia, ondo urtendaian kurazino gogor ta gatx onek. Asten naz....

Ventera- Oi, oi!... galdu nozu neure biziko... txut, txut,.. Itxi egidazu arren il nadin orrelango borrarukerija бага.

M.J. - Or konpon bada. Egin dot alegiña. ta ez esan nire erruba izan dala. Neskatiila ona daukazu Fraiskagan: gu bagoaz, zu ta ni kitu. Agur amandre gaisua: gera zaitte Jangoikuaz....

oooo oooo 000 0000 oooo oooo

3 9
Saiakera

("ENSAYO", José Ignacio de Gaerrico; 108-109 orr.)

Seme guzien artean maiteena izan zan Jose: eta oni besteak ez bezelako soñeko bat Aitak egin zion: eta orregatik, eta baita pekatu izugarri batez anayak salatu zituelako, beste senideak gaitz iritsia artu, eta ezin ikusi zuen: asi zan gaitz iritsi ori, Josek, izan zituan, eta batere gaitz gabe kontatu zien ames misteriozko birekin: esan zien: guziak kanpoan zeudela, amesetan ikusi zituela amabi garizko azau: eta berarena beste guziena baña altxatuago zegoela: eta beste guziak makurturik agur egiten zibela: eta orobat esan zien, beste batean, ikusi zituala, eguzkia, illargia, eta amaika izar, bere oñetan etzin zitzayola, eta adoratu zuela. Orra Joseren geroko goratasuna, eta aunditasuna aditzera emanen zuen misteriozko amesak: aren anayak gelyago sumindu zituenak: eta ura saltzera ekarri zituenak. Ona artarako izan zuen era, edo okasioa. Berekin etxean eduki oi zuen Jakob santuak Jose bere seme gaztea: besteak eren artaldeakin kanpoan zebiltzan: bein bidaldu zuen bada anayetara, nundik, eta nola zebiltzen berriak ekarri zegien. Urrutitik ikusi zuenean, eren artean esan zuen: ona nun datorren gure amegillea, gure agintari izan bear duena: eta bereala iltzeko asmoa geyenak artu zuen: baña Ruben anaya nagusiye-nak aragotsi zien: esan zien: etzitzela senide baten odolean eskuak busti: sartu zezela legorturik zegoan potzu andi batean, berez anakehatu zedin: baña asmoa zuen, andik atera, eta aitari biurtzeko: eta potzuan sartu zueneko, andik zihoazen tratulari, edo merkatarri batzuek Egiptora: eta Judas eren anayaren konsejuz merkataria saldu zien eren anaya Jose: eta au esklabo egiñik eraman zuen

merkatariak Egiptora; eta an saldu ziohen Putifar zeritzon anditsu bati. Eta Aita Jakob Santuari bidaldu ziohen Joseren arropa, antxume baten odolez bustirik, edo gantxiturik; eta gastigatu ziohen, aren seme Jose abere gaizto batek desegin, puskatu, eta ilzuela. Eta nork esan Jakobena orduko pena, eta naigabea? Ezin iñola ere konsolatu zan bere seme maite Jose era lastimagarri artan galdu zuelako. Eta orra nola gure Jaungoikoaren probidenziak atsegiñak, eta atsekabeak mundu onetan bere adiskide maiteai partitzen dien, aen birtutea probatzeko, eta geyago, eta geyago irabazi eragiteko.

oooooooooooooooooooo
oooooOoooo
ooOoo
oo

4 11

("JESUKRISTOK BERE ELIZARI UTZI ZIOZKAN zazpi Sakra-
mentuen ~~gañean~~ ERAKUSALDIAK",
Juan Bautista Aguirre; 286 ss. orr.)

Ez dañor bere estadu, ta bizi moduan neke ,
edo lanari jarraitu bear ez dionik, dala nekazaria, argiña, arotza,
dala jostuna, okiña; dala ardazlea, edo eulea, dala Apaiza, dala
edozein. Obra oek egiten badira, bear diran doayakin, guziak, eta
bakoitza izango dira Zerurako irabaziak, eta gañera gutxituko due
gure pekatuen zorra, dakarten nekearen neurrian. Au da fedeko gauza,
eta Trentoko Konzilioak aintzaskotzet erakusten diguna. Beraz zuk,
nere Kristaua, zure bizi moduak eskatzen dituan lanak egiten baditu-
zu bear dan eran, edo bear diran doayakin, irabaziko dezu Zeruko
Erreñus, eta gañera bakoitzarekin eranzungo diozu zure bekatuen zo-
rrari, egiten dezun lanak duan nekearen neurrian. Ez digu gure Jau-
nak eskatzen gauz sundiak egin ditzakula. Ez digu eskatzen batetik
bestera mendiak aldatzea, eriak sendetzea, illak piztutzea, eta inoiz
eskatuko balu, berak emango lituke artarako doai egokiak; baizik
nai du gure estadu, ta bizi moduari dagozkan gauzak ongi egitea.
Orregatik dio San Paulok: "Egiten duzuen guzia, dala itzez, dala
obraz, guzia egizue gure Jaun Jesu-Kristoren izenean". Baña zer

Fedeak
doai ote dira gure lanak bear dituanak, dala Zeruari irabazi izateko, dala bekatuen zorrari erantzuteko? Ara zer doayak bear diran. Lenengoa da, Zerutikakoa edo sobrenaturala izatea. Zerutikakoa, zeren Espiritu Santuaren grazia, ta lagunza gebe ezin Zerurako irabazirik txikiena ere egin ditekean, ez eta Jesus bat bear bezala esatea ere. Ala esaten digu San Pauloak: "Nemo potest dicere Dominus Jesus, nisi in Spiritu Sancto". Zerutikako gañera, zeren egin bear dan, ez lurreko gauzetan begia ipintzen dala, baizik erakusten duan motiboren bate gatik, Bigarren, lana egiten duana Jaunaren grazian egotea; bestela illa dago animaren aldetik, eta illak irtengo dira egiten dituan obrek. Matsaderra igartua badago, ez du fruturik emanango. Alaere ez ditu bekatariak utzi bear obra onak, zeren, Zerurako irabaziak izan ez arren, asko laguntzen duen bekatutik irteteko, eta beste on asko iristeko. Irugarren doaya da, egiten dan obra nekagarria izatea. Ala aditzera ematen digu Trentoko Konzilioak; baña nola obra on guziak guretzat nekeak dakartenak diran, orregatik Teologoak dioenez guziak dira egokiak bekatuen zorrari erantzuteko, gañerako doayak baditue. Laugarren doaya da gure lan, eta obra onak egitea Jaunaren onra, eta gloriarako. Era onetan egiten diran lan guziak, ala andiak, nola txikiak egokiak dira bekatuen zorrak ateratzeko, eta eu da guk bigarren lekuan egin bear gendua.

Baña egin ote degu? Begira begio bakoitzak bere bizi-tzari, eta arkituko du negar egiteko gai asko. Zenbat egun oro, ta urte guzian goizetik arratseraño ari dira nekean? Zenbat Zerurako irabazi egin, eta zenbat bekatuen zor atera zitzakeen lan oriekin? Baña ez due zorrik atera, zeren bear dan eran egin ez dituen. Gertatzen da gurekin gai onetan S.Pedrorekin gertatu zana. Irten ziran S.Pedro eta S.Andres beren ontzi, edo txaluparekin arranzara arrats batean, arrats guzia igarota, etzuen atxitu ezer ere. Goizean arkitu

zitian Jesusek itsasbezterrean sareak altxatzen. Sartu zan ontzian, eta esan zion Pedrori, eraman zezala itsasoan barruna sareak botatzeko. Erantzun zion Pedrok: "Maisua, arrats guzian nekatu gera arrai billa, baña alferrik. Alaere zuk agintzen dezun ezkerro, botatzera noa sare zure izenean". Ala egin zuan, eta ainbeste arrai sartu zan sarean, non arriturik jarri zan Pedro Jesusen oñetan, eta esan zion: "Jauna, ni naiz bekateri andi bat, eta ez naiz zure aurrean agertzeko diña". S. Pedro bada arrats guzian nekatu zan alferrik, zeren Jesusen izenean bota etzitian sareak, baña izen onetan bota zituanean, atxitu zuan ugari arraya: eta ons egun oro askorekin gertatzen dana. Nekatzen, ta desegiten dira lanean, eta ez due ezer atxitzen, edo ez due Zerurako irabazirik batere egiten, eta bekatuen zorrik ateratzen, zeren ez dituen lan oriek egiten Jaunaren izenean. Nork esan alde onetatik datozkigun kalteak! Au ezagututa, ez ote zera, Kristaua, azkartuko, zure lan, ta obra on guziak Jaunaren onra, ta gloriarako egiteko? Baña goazen aurreraxeago eta begira, nolako penitziak egin dituen Santuak bekatutik aldegitiko, eta bekatuen zorrai erantzuteko.

oooooooooooooooooooo
oooooo

(EUSKAL-OLGETA TA DANTZAK", Aita Frai Bartolome;
III garren Kap., 47 orr.)

III Kapitulu
Plaza-jaietarako jentia zelan prestetan dan

I. Edadia.- Plazan tanboliñegaz dantzen egiten dabeenak, bai gizonak bai emakumiak, amazortzi urtetik berrogeta amarrekuak dira. Egon leitekez gaztiaguak eta zaarraguak bere; baiña gitxi. Plazako piestia darabillanak dira esan dan edadekuak. Mundu guztiak daki edade atan ze zeregin ta lan andia dan, ixiokiasubari urreretu bagarik bere, luxuriaren tentazinolak goitutia. Eta dira dantzari onek Sanson baino senduago? Dabid baino santubago? Salomon baino jakitunago? Arek okasinoe txikiaguan jausi zirien.

II. Edana.- Piestara duzananak, piestia erdi^z erdi daneko, trago bat edanda, bai gizonazkuak ta bai emakumiak. Ez diñot ordituta dagozala; ez bada, ardaua edateko eria guztiak edo geienak euki dabeela. Geienak edo guztiak, gitxi edo asko, edan dabeela. Ta aretari asko biar leukeen baino geiago bere bai. Eurak esan oi daben legez, ia puskabat arda^uak al^egeratuta. Mundu guztiak daki, bada, ardao puska bat edanak, ta endamaz zerbait geiago edanak, arrazoi illundu, gogua alageretu, odola berotu ta luxuriaren suba biztu eragiten dabena.

III. Jantzia.- Plazako piestara eruaten dan jantzia da ainbat ederreña ta edertuen iminia. Ainbat onduen buruti blatzera apainduta, moduztauta, garbituta, orraztuta; al dakianak larrosia, kabe-linia, ispliguba, edo beste bedar usain gozoko bat buruban, ~~papa-~~ rrian edo eskuan dabeela, juaten dira plaza-piestara, bai gizonak ta bai mutillak, bai andrak ta bai neskek. Diñot bada, piestara duazan guztiek diriala ainbat onduen apainduak; guztiak bakotxari ta bakotxak guztiaisondo begiratu dagluen, eretxi dakiuen ta amau dagiezan. Au autor ez daben dantzaririk ez dago piestan, egia esan gura dabenian.

IV. Nasaikeria.- Dantziari ta piestiari jarraituten deutsee-nak, beste mandamentuak bere ardura gitxigaz austen ditubenak; konzientzia nasaituak. Begiratu errazoe onetan; orrako plazako piestetara ~~uts-~~egiten ez dabeenak, diñot diriala, pekatuaren bil-dur gitxi daukeenak. Birao bat edo juramentu bat alperrik egitia; meza bat ondo entzuten ez jakitia; erdi entzunian, edo ondo entzun bagarik geratutia; jai-egun santubetan jokuan, tabernan, dantzan, edo errietan egunik gáiena ta gau zati bat igarotia; umiai aziera galdua emotia; gurasuak gaiti gura dabeena umiak egitia; iñori ezer ez parkatutia; edozein gati ~~gurasuak gaiti gura dabeena umiak egitia~~ deungaro esatia; urtian bein edo birritan, ta orduan zelabait baño ez kon-pesetia; sarriago konpesetan dirianai, Eleizako zeregin santubeta-ra juaten dirianai, ta eurak legez nasai ez dirianai barre egitia; Jaungoikuaren berbia edo sermoetan esaten dana barre-geitzat artu-tia; berbetan ta egitadetan, eduten dirian leku guztian, berdekeria erakustia.... Au guzti au diñot, edo obeto esateko, pekatutegi guz-ti aux ez eskrupulutzat artutia; ez konpesakizuntzat bere artuten ez ditubeenak dira plazan piestia egiten dabenak.

V. Estaduba.- Juaten dirianetati geienak dira libriak. Gizon ezkondu batzuk bere ba-dagoz, zeartuta, burua urdinduta euki arren, guztiak baizen berdiak. Arek bere inundik al badagie, piestan izango dira. Emakume ezkonduak bere ba-dagoz, iñoren upako ardaua edaten dabeenak; arek bere, oizā jaso al badagie, an izango dira piestan begi zoliakin. Berbeta onetan ezer geituta ez daguana, piesta-zale guztiak dakie. Ta egia esateko lekuan, au ta gelago, eurak autor dabee.

oooooooooooo
ooooo

8 17
("OGEITAIRU JOLAS", ^{Bascual} ~~Agustin~~ Iturriaga)

Seigarren jolasa:

....B.- Arritu zihan joan dan egunean zenbat on aberetxo batzuei zor diotegun ikustean. Zirikoa inguma bati, ganbusirik ederrena eta altisteak maishkor batzuei. Bada, oraindik arrigarriagoa da aberetxo batzuk erakusten digutena, ematen digutena baño. Erakak goizetik arratsera ari dira lanean gelditu gabetanik. Ez dute jaten egunean eguneko anoa baizik. Badakite nagua etorriko dala eta orduan ezin irtengo dirala beren eultzetik. Onea erakusten digute lan egiten al degunean, ezin deguneko; eta degunean gordetzen ez deguneko. Itz batean erakusten digute langilleak eta kontuzkoak izaten. Lanegitetik eta zurra izatetik datoz aberastasuna eta ongi izatea. Lana da birtute guztien ama, eta alferkeria gaitz guztiena. Guk guztiok egingo bagendu erakleak egiten dutena aingerusk bezela biziko ginateke.

Amakagarren jolasa

A.- Azkeneko jolasari jarraitzeaz egizu atsegin, Basilio.

B.- Atsegin andi batekin jarraituko diot, nekatzen ez zaitudala ikusten dedan ezkeroz. Lurrak ditun bere barrenean asko ezade mota.

Landare bakoltzak nai du berea; baña beti landare mota bat aldatzen bada lur batean, geroago eta txarrago etorriko da.

A.- Ori gauza ikusia da, zergatik geroago ta ezade gutxiago geldituko da.

B.-Argatikan eman bear zaio lurrari lur berria edo gorotza; bestela aldatu bear dira orain mota batzuek eta gero besteak.

Badira landareak elkarrekin ongi datozenak; eta badira elkarri kalte egiten diotenak. Ezade diferenteak bear badituzte, egon ditezke lur berean bi landare mota; baina ezade bera bear badute biak, ez.

Ez du abere batek zatirik gorotza egiteko ona ez danik. Beatzala, ezurra, adarra, illea, guztia da ona txit gorotza egiteko.

Karea ugari dan tokietan nekazari onak bear du bota karobi zulora arrapatzen duan guztia. Kare pishka batekin nastuaz, guztia biurtuko da gorotz. Ara bota bear dira zapata zar, abere ill, eta zekarrerria guztia.

Badira tuparriak kare asko daukatenak, eta buztin lurrarentzat txit onak diranak.

Karea daukaten edo ez, ozpinean zatitxo bat sartu eta eza gutzen da. Irakiten edo maskulloak botatzen asten bada, karea duen señailea da.

Autsa da ongarririk onenetatik bat; baina auts asko egiteko erragin asko bear da.

Lur zelayak dira onak landutzeko; zeren berenez txarrak izan arren, nekazari onak ondutzen ditu; bada ematen zaioten guztia bertan gelditzen da.

Lur aldapetan ifiñi bear dira abbolak.

Lur gutxi ondo landuak gelago ematen du, asko gaizki landuak bano.

Lurrak ongi landua egoteko, auts egiña bear du egon.

Ale mot asko erein bear dira urte berean, bita baten faltan bestea arrapa dedin. Argatik esaten da bat duenak batere ez duela.

Amairugarren jolasa:

A.- Ezin esan dizazuket zer gogoz zure jolasa entzuten dedan. Otoitzen zaitut jarrai dezazula oraindaño bezela.

B.- Atsegin andiarekin jarraituko det, ala nai dezun ezkeroz.

Abereen geitzik gelenak ardura gabetik oi datoz.

Bustiroa da abereentzat, guretzat bezela, etsairik andiena. Belar bustiak ~~on~~ dituditzen dituen bezela, etzauntz bustiak eritzen ditu.

Argatik urte bustietan eman bear ~~zate~~ zaitote jaten legor pishka bat, eta al bait gutxiena bota bear dira larrera.

Batez ere, beaute iduki etzauntza legorra. Abereari ederrretsitzen ez dion nekazaria, ez da nekazaria: zeren alerik gabe ez da gorotzik, eta gorotzik gabe ez da uztarik.

Beste aldetik, berriz, bazka gabe ez da abererik. Bazkaz, eleak eta lur landuak, berdin egon bear dute.

Iñork ez daki lurrak zenbat eman dezakean. Esan oi da egiaz artzen duen ainbat ematen duela.


Lurrik ongiena landua da apurtuena dagoana. Ez du nekazariak lur landu gaberik euki bear al bait.

Zenbat eta sberea denbora gelagoan dagoan ukulluan, ainbat eta obeago; zeren simaur gelago izango du nekazariak.

Ez du lurrak etsai andiagorik elearen beatzala baño, buztin lurrak diran sokietan beintzat.

Nagusiak eman bear dizka lurrak maisterrari egoitz onean; bestela ez du nekazaritza onik egingo.

Badira denborak eta giroak igarotzen utzi bear ez diranak, ala ereiteko, nola jorrazteko, eta itaitzeko; argatik bear du esku artea nekazariak, ona izateko; zeren giroa igarotzen uzten badu, nekazaritza txarra egingo du; eta giroa igarotzen ez uzteko bear



20

jornaleroak iñoiz.

```

○○○○○○○○○○○○○○○○○○○○
○○○○○○○○○○
○○○○

```


("IPUI ONAK", Bizenta A. Mogel)

XXXII IPUIA

Eskua, Oñak eta sabela

Eskuak eta oñak, alkar arturik, ekin zioen sabelari, esanaz: O lagun gaiztoa. Gure bear ta nekeekin daramazkitzu egun gozatsuak; asetzen zera jan ta edanaz gure irabaziak. Oñakin goaz sorora; esku ta oñakin laiatzen da; mastiak ardorik emango badute, ezin dute eskuen neke andi gabe. Aldi askotan beso guztiak arikatu bear dute. Zenbat bider oñez bide luzeak egin bear dira zerbait irabazteko? Zuk, o sabel gaiztoa, daramazkitzu zere barrunbera gure neke ta izerdi guztien irabaziak, ogia, ardoa, ta zer ez? Eta asetzen ote zera beti gure irabazi al guziakin? Guretzat ez dago nekea baizik. Ez degu ezer jaten. Ala bada, ikasi bear dezu bear-gintzanen bat zer jan izaiteko: erabaki degu guk, ez bearrik egitea zuretzat.

Erantzun zioen Sabelak: Ez, arren, orrelako asmo txarrik artu. Ez dakizute nik ezin ezer irabazi dezakedala? Zer bear-gintza ikasiko det? Asko zor dizuet, egia da: egiten dezute bearra neretzat; ordea zuek partil izan oi zerate. Nere barrunbera datorrena, ez da guzia bertan gelditzen, neretzat bear dedane gorde, alper dana bota, ta zuek gana igarotzen da bizi ta ^{er}sandaia.

Nik jaten ez badet, nola zuek bizi? Noaa bear egin? Alkarri bear diogu lagundu; bada etxe batekoak gera.

Diotsate eskuak ta oñak: "Asko jakiña, asmatzalle, ta berritxua zera guri zoroerazotzeko. Gezurra diozu, ez gera gu zure bear, ta ez dizugu lagunduko". Larga zuten Sabela egun batzuetan janik eta edanik eman gabe; il zitzaion barruko berotasuna, leortu ta ugartu mingaña egarriz. Sabelaren jan-ezaz argaldu ta indar gabetu ziran eskuak eta oñak. Ezagutu zuten oek nondik zetorken kalte ura. Ematen diote jaten ta edaten Sabelari; bafia berandu zetorren sendagarria: il zan sabela ta il ere ziran esku ta oñak.

Ipui onek esan nai du, ez dala bakoitza guzia beretzat; edozein gizonek bear dituela lagungarriak senide, adiskide ta ongillen artean. Errege bat ere ez dala izango errege, bere mende-koak laguntzen ez badiote. Etxe, soro ta baso asko dauzkan andiki-rik aberatsensak, burua galdu ez badu, aitortuko du, alperrik dirala alako ondasunak, nekatzen ezpada beargiña; ez duela ez errenta, ez gari ta ez ikatzik izango nekazariaren eskubear gabe. Eskuak, onak ta sabelak alkarri lagundu bear dioen bezela, ala gizon batzuek bestesi, galduko ez badira. Ezaguera onek ekarriko gaitu alkar maite izatera, beragokoai ez erakustere gogortasunik. Baledukate au gogoan nagusi ta etxeko lagunak, oniritzi ta maitasun gela-go ikusiko litzake beren serbitzari ta errenteroen alderontz, zeintzuen neke ta bear-egüñez dauden anbeste era ta jauntasunean.

Orregatik:

Bat beretzat ez da asko:
Laguntasuna du bearko.

ooooo0000ooooo
0oo000ooo

10

23

("TESTAMENTU ZARREKO ETA BERRIKO KONDAIRA";
Francisco Ignacio de Lardizabal;
13-15 orr.)

NOEREN KUTXA EDO ONTZIA.

Jainkoak, gizonen gaiztakeria ezin eramán-alako muga ga-bea, eta mundu guzia loikerian sartuta, eta kutsutua zegoala ikusi-rik, orainago esan dan bezala, oso garbitzea erabaki zuenean, Noe gizon on eta serbitzari leyalari esan zion, zer asmo zuen; baña be-re ontasun eta zuzentasugagatik Noe berari, ondamen arka atziola ukituko, eta gordeko zuela, Onetarako agindu zion, kutxa, arka edo ontzi zurezko, kanpotik eta barrutik betunez igortzia, egin zezala. Zer ~~neurri~~ neurri, eta gisakoa izan bear zuan, erakutsi zion. Noek kutxa au egiten, urte asko igaro zituen. Bitarte onetan gizo-nak baziekiten zertako zan, eta guziak ondatzera zetorren ugoldea edo diluvia zerk zekarren: baña onduaz Jainkoaren eskua atzeratu bearrean, beren gaiztakerian aurrera zijoazen; eta Jainkoaren esan, eta keñadarik etzuten ezertan artzen. Jainkoa kastigurako baño bar-kaziorako prestago zegoan, ayen aldetik zerbait demutasun ikusi ez-

kero; baina ^{dei} ondonayezko guziak alperrik ziran, eta merezi zuten zigorrada latza erori zitzayen.

Jainkoak agindu guzia Noek egin, eta kutxa bukatu zuenean, barrunen egongo ziran egunetarako bear ziran janariakin bete zuen: ugoldea asi zan aurreko zazpi egunetan kutxan sartu zituena abere edo animalia-mota guziak bakoltzetik pare bat, ~~ar~~ ar-emeak; eta Jaunari sakrifizioan eskeintzen zitzayozkan abere garbietatik, iru pareatu aldi, eta bat bakarra edo laguntzaka. Lan au berez nekeza badirudi ere, Jainkoak erraztu zion, kutxa ate-aurrean guziak ipiñita. Noe atzenean, bere iru seme Sem, Cam eta Jafet, eta lauren emazteekin kutxan sartu zan, eta urik sartu etzekion, Jainkoak ~~ata~~ kutxako atea itxi zion.

Noe bareakin kutxan sartu zaneke, euri-jasa izugarri batek eraso zion, eta berrogei egun ta berrogei gauean atertu gabe iraun zuen. Euri-ur oyek baizer guzietara zabaldu ziran, eta mundua osotoro bete zuten. Mendirik altuenak ere zazpi kana eta erdiz gorago estali ziran. Gizonak, lurreko abere eta piztiak, aireko egazteak, guziak itz batean, ugolde izugarri artan galdu eta ondatu ziran. Kutxan gordeai bakar bakarrik bizia utzi zitzayen, dembo-raz mundua bertiro bete zezaten.

Berrogei egunen buruan aterrunea agertu zan, baina eunda berrogeita amar egunean urak gora-beerarik egin gabe, mundua guzia estaltzen zutela, iraun zuten. Egun oyek zigarratakoan, aize aundi bat irten, eta urak piskaka beeratzen asi ziran. Emendik larrogeita zazpigaren egunean Ararat zeritzan Armeniako mandi gañean kutxa gelditu zan. Amar ilabeteren buruan mendi-tontorrak agertu ziran. Oñeaa berrogei egun igarotakoan Noek kutxaren leyo bat idikita, belea bialdu zuen, eta etzitayon itzuli. Gero usoa bialdu

(BIALDU ZUEN? ETA NON OÑA IPIÑIRIK ARKITU ETZUELAKO), kutxara biurtu zan. Andik zazpi egunera berriz ere usoa bialdu zuen, eta olivo-
-adar-osto berdeduna mokoan zuela itzulá zan. Orduak Noek ezagutu zuen, urak beeratu zirala; ala ere beste zazpi egunean itxedon zuen, eta irugarren aldian usoa bialdurik, etzitayon geyago etorri.

Noek ikusi zuenean urak beren lekura joan, eta mundua txukatu ~~zuztu~~ zala, kutxan sartu zanetik urte betera, bere emazte, iru seme, eta iru errañakin irten zan; lurreko eta aireko bizikor, kutxan iduki zituen guziak, berekin atera zituen, eta nor bere era-
ra munduan zabaldu ziran. Kutxatik irten, eta lurrean jarri zanean, aldare bat egin, eta abere garbi zazpigarren banaka pareatu gabe ayek Jainkoari offendan eskeñi ziozkan, beraren esku oparotik artu zituen mesede aundiakatik esker ona emateko, eta bere aitormena erakusteko.

Jainkoak ofrenda hura txit onetsi edo estimatu zion, eta esan ere bai, gizonakgatik etzuela berriz mundua madarikatuko: mundua mundu ~~artean~~ dan artean ereite-itaiteak, otz-beroak, uda-ne-
gak, gau-egunak elkarri jarraituko zitzayeztela. Gero Noe, bere emaztea, eta oyen iru seme-errañak bedeinkatu zituen, eta esan zien, semeak sortu, ugaritu, eta mundua gizakumez bete zezatela. Kutxan egondako abere, piti eta egaztiak oyen mendean ipiñi zituen, eta Noeri esan zion, gogoak ziona, oyekin egin zezala; bada bere mende-
koak zituela. Atzenean, igaro zuten ondamen latzik berriz izateko edo ikusteko bildurrik gabe, lenagokoan bizirik gelditu ziran zor-
tzi lagun ayek egon zitezen, Jainkoak esan zien, ezuela ugolderik geyago lurrera bialduko, eta bere itzaren sinisgarritzat ostrellaka eman zien, esanaz, zerua odeyez estaltzen danean, ostrellaka ager-
tuko da, eta zuekin egin dedan batasunaz, orduan oroituko naiz.

oooooooooooooooooooo
ooo0000000ooo

12

26

("BIGARRENGO A B A R R A K ", Bustintza ter Ebaista
(K i r i k i ñ o), 94 ss. orr.)

Zentzuduna barruan, zorua kanpuan.

Lengo egun baten izpar au irakurri gendun.

Badajoz en ixilleko poliziya batek lapur bat gelditu ta juzgadura erua-eban.

An izen-abizenak artu eutsiezan. Espetxeko nausiyentzaz papela bat idatzi zan lapurra preso sartzeko; baina juzgadu idazliak, lapurraren izena ipiñi biarrarian poliziyarena ipiñi eban papela aretan, nai ezebala oker bat egiñik.

~~Txu~~ Juzgadutik espetxera jua ziran poliziya ta lapurra. Espetxeko nausiyak papela artu ta itandu eban: Urtia nor da? Neu, erantzun eban poliziyak. Orduan zu emen, esautson espetxeko nausiyak.

Eta gura-ta-ez, asarratu yakon arren eta zatatska ibilli zan arren, poliziyakua preso gelditu zan. Andik lastertxu okerra zuzendu eban, poliziyakua kaleratu ta lapurra barrero topau ta espetxeratu.

Ispar orrek gomutara ekarri euskun Bilbon orain ogetaz urtiak dirala izandako yazokun antz-antzeko bat.

Emen bizi zan orduan (urte gitxi da il zala) yoskin bat, txoriburu utsa, beti barriketan, mundua zuzendu eziñik ebillena. Ber

rez ain burutsua izanik, ukondua goitik erabilten be ikasi eban ta, yakiña, apur bat edan orduko, zoro benetakoaren antza artzeban. Edan berik eguenien etzan zorua, gizon buru ariña baño.

Aldi baten, sarriyago edaten-ebalako edo, zein ziran aturau beragaz, ez bere etxeak, ez bere inguruko aizkide ta lagunak; esan eikian guztiz burutik einda eguala.

Itundu ziran ba, etxeak eta aizkidiak zorotegira bialtzeko; zuzendu ebezan biar ziran garbitasun guztiyak Diputaziñuan, eta garbitasunak eruzan gizon bat lagun ebala, bialdu eben yoskin txoriburua zorotegira.

Berau ta laguna sartu ziran tñenian, zorotegiya eguan urira yuateko, ta sekuleko ederto, bake ta alkertasunik andiyenian, ibilli ziran bide gustiyan.

Zorotegi-urira elduta, asmau eben alkarregaz bekaldu biar ebela, ta gero uriko basterak ikusi, eguraste on bat arturik.

Esan da egin. Arratsaldiyan illundu baño lenago eldu ziran zorotegira ta bertako Artezkariyaren aurrera agertu ziranian, yoskiñak bere sakeletik atara bere garbitasunak eta esautson a beste gizona zorotegira ekarrela...

Au entzun orduko barráz bestia, guztiz asarratu ta didarka asi zan; bere etzala zorua esaten. Yoskiñak, orduan, Artezkariyari bestela-baitakuan esate-utson apur bat berotxua zala. Artezkariyak ikuste-eban garbitasunak emon eutsozan gizona (yoskiña) zintzo ta nasai eguala ta beste gizona (laguntzallia) ebillela beso urtika ta garrazika, ta siñistu eban au zala zorua ta berau lotu eban zorotegiyan, eta yoskiña aske itxi eban.

Diputaziñoko garbitasunak zelan aldatu ziran yoskiñaren eskuetara eztakigu orain, ala sakeletik igarri barik atara eee eutsozan ala gizon arek berak, yoskiñari emon ete eutsozan, eukiteko; dana dala, garbitasunok zoruak, edo zorotzakuak eukazan, eta... zorua azke ta zentzuduna zorotegian gelditu ziran.

Biyaramoneko yakin eben zorotegiko nagusiyak zelako orde-
zokerra izan zan eta bialdu ebezan gizonak yoskiñaren billa, baña
ezeben izan izerdi asko bota biarrik idorotako; zorotegi-uriko
taberna baten aurkitu eben, guztizko umore ederraz txikerdi batzuk
paparlepo bitartera ustuten.

Amaika barre gozo egin zan orduan Bilbon zorotegi-urayan,
zorotegiyan bertan, yoskin txoriburu aren egitadia zala ta etzala!

ooooooooooooo
ooooo0000
ooooo

("ITUN BERRIA", Olabide'tar Erraimun; Yon, XIV.
299-301 orr.)

X I V

NORA TA ZERTARA YESU DIYOAN

Ez bekizue biotza larritu. Yainkoagandik entzindu zaitezte, ta Nigandik ere entzindu. Neré Aitarenean egoltza asko dira. Bestela, ba nesaizueke; tokia zuentzat atontzera noa-ta. Yoanda, berriz, zuentzat tokia atondutekoan, berriro natorke; ta Neregana artuko zaituzt, Ni nagon tokian zuek ere zaudeten. Noan tokirako bidea ere ba-dakizute. Toma'k diotsa: "Yauna, nora zozzenik ez dakigu ta bidea nola dakikegu?" Yesu'k dasayo: "Bidea, egia ta bizia Ni naiz. Nere bidez baizik, Aitarengana iñor ez dator. Ezegun ba ni-ñuzute, nere Aita ere ezagungo zenuteke; baita dagoneko ere ba-daguzute, ta ikusia daukazute". Pillipe'k dasayo: "Yauna, Aita erakuskiguzu, ta naiko guretzat". Yesu'k diotsa: "Onen aspaldi ezkeru zuekin nago, Pillipe, ta ez ote nazaguzu? Nakusanak, Aita ere ba-dakus. Nola diozu: Aita erakuskiguzu? Ez al duzute siñesten Ni Aitarengan nagola ta Aita Neregan dagola? Dasaizuedana ez dut Nik Neronez esaten; ta dagidana, Neregan dagon Aita Berak dagi. Siñetsi-

dazute Ni Aitarengan ta Aita Nerengan gaudela; osterantzean, egiñakatik bederem siñetsidezute. Zin ziñez dasaizuet; nere siñestea dunak, Nik dagidana ez ezen, geyago ere berak dagike; Ni Aitarengana noalako, ta nere izenean Aitari zuek edozer eskatuta, orixe Nik egingo dudalako, Aita Semearengan goretsi dedin. Zerbait Niri zuek nere izenean eskatuta, Nik egingo dut.

Maite ba nauzute, nere aginduak bete itzazute; ta, Nik eskatuta, beste Pozemalle bat Aitek bidaliko dizue, beti zuekin egoteko. Au da Egiaren Atsa, lurkoyek ezin artu dutena, ez baitute ikusten, ezta ezagutzen ere. Zuek, berriz, ezagungo duzute, zuetan dagolako ta zuengan egongo dalako. Ez zaituzt zurtz utziko; zuetara ba natorke. Apur bat ezker ez nau gizadi okerrak ikusiko; zuek, ordea, ba nakusezute, Ni bizi naiz, ta zuek ere biziko zerate-ta. Egun artan ba-dazagukezute Ni nere Aitarengan, ta zuek, Neregan, ta Ni zuengan gaudela. Nere Aginduak euki ta betetzem dituna, orixe da maite nauna. Maite nauna, berriz, nere Aitek maite izango du, ta Nik maite izango dut, eta ageriko natzayo".

Yuda'k, ez Iskariot'ek gero, diotsa: "Zergatik, guri ageri bai, ta bestelakoel ez?" Yesu'k yardetsi ta esan zion: "Iñork maite ba nau, nere esana beteko du, ta nere Aita maite izango du; ta orrengana gatozke, ta nerengan egotez gaudeke. Maite ez naunak, berriz, nere itza ez du aintzat artzen; ta dantzuidazuten itza, nerea ez da, bidali naun Aitarena baño. Auek esan dizkizuet, zuekin nengola. Bañan Aitek nere izenean bidaliko dun Goteun Pozemalleak dana irekatsiko dizue ta Nik zuei esandako guziak gomutaratuko dizkizue. Gentza uzten dizuet, nere gentza damazuet; ez giza-yiteak damanez Nik emanda. Ez bekizue biotza larritu, ez kankindu. ~~Zuek entzunda~~

Zuek entzunda esan dizuet: Ba-noa ta ba-natorkezue. Maite ba'ni-
 ñuzute, poztuko ziñakete Aitarengana Ni yostez; Aita Ni baño
 sundiagoa da-ta. Orain, berriz, gerta baño len esan dizuet, gertatu-
 takoan siñetsi dezazuten. Ez ditut gaurdanik izketa asko zuekin
 izango; ba-dator, ba, lurrealdi ontako nagusia, ta Neregan ez ~~erri ez~~
~~du ez~~. Bañan Aita maite dudala ta Aitak agindu didenez ari naizala
 guziek dezaguten, yaiki ta gozaz emendik".

@@@@@
 @@@@
 @@@
 @@
 @

("ARDI GALDUA", R.Ma. Azkue; 116-123 orr.)

Azken-eguna iritsi zan, guretzat egun goibela. Nere laguna, beretertegitik Gaztelu-aldera joante, urruti ezten Arkaitz-gaineko txoritokian sartu zan, goizerditik arratsalderarte antxe egoteko. Toki artarako igitu-aurretxoan nere gelako atea jota, Jesusek ikasleai, txerren erauzteko indarga ziralarik, esan ziena orotarazi zidan: "Onelako txerren-mota otoltzezetan baruz baizik ezin erauzi diteke". -Justo: bazkal-orduan, besteak nere galdez asitakoan, ain ongi ere enabilela ta goi-aldera joen naizela.

Gogoketan asi nintzen, bakartu nintzanean. Alperrekoak izango ote dira gure lanak, batez ere lagunarenak? Utsak, alberrietako apaiz ta monjen eskariak? Antzuak semearen negar-malkoak? Enaiz, neronez, inoren aultasunak agertzen zales; nerau inor baino aulagoa ta ezerezagoa bainaiz. Nere Aita probintzialaren agindua zintzo, alik zintzoen, betetzeko, esango det, ordea, zerk eman zidan egun aietan iguinik aundiena: gu zeinbat estuago ta larriago Isabel ainbat lasayago ta pozago ikustek. Gutxienez sei aldiz entzun nion, aurreko gabeen ere, neronen belarri ondoan esaten: - Aita: alperrik sri dira. Gizon au zuritu baino errazago litzake trikuari bizkarreko arantzak amoztu naiz katu batu sagu-uzia kentzea. Au itzuli! Au kristautu!

Illuntzeko itzaldi-aurretxoan, Belauntzekoak itz auek erderez zuzendu zizkion nere lagunari:

" bere/
(2) irakast-
aulkera
(pulpitora))

- Azken kartutxoaren oraintxe dijoa.
- Gurea bai, erantzun zion A. Batizek. Goiko eizariak ezta kigu,
alabaina, noiz jaurtikiko dion lenengoa. Ark eziko du eizakia, ark.

Beste izmitzik inori esan gabe, igo zan iztuna (pulpitora). Elizen orratz batentzako ere utsunerik ezegoen: txil txil betea zan. Opalmai (aldare)-ondoan baziran gutxienez amabi bereter. Amezketako parrokoa ere an zan, bere uritxotik mendirik mendi etorris.

Iztunak bere arazoa asi-aurrean, erriak, gero egiteko ez tulak, orduantxe atera zituen. Etzuen gure Aita Batizek, oi degunez, asikintzat Ebanjeliko itzik aipatu. "Artzain ona" eresiarren lenengo epaldia (estrofa) astiro ta ozenki entzun arazi zigun.

Artzaina dei ta ardia arengandik igesi!
Zer arabil, gaizo ori, galdu ta deslai?
Larrez larre, biotza miñez ta esiz esi.
Dabil Jesus, ta ik ezaldiok entzun nai?

"Egun auetan emen oyukatu diran itz ederrak dira auek",
isiltxo gaineratu zuen iztunak.

Tamala da, damugarria da, Aita Batizek arkaitz-gaineko txoritoki artan, oso-osorik lan eder au ez idatsi izatea. Argitaratuko balitz, eredutzat ar lezakete gure anai gazteak, eredutzat iztunik trebenak ere. Hura zan etorria! hura erraztasuna! Itz guztiak Jainkozko maitasun-garretan irtetzen zitzaizkion; eta gu, zerutiko gar onen artean, gero buruz antziak bezela geunden adi. Lurra baino gorago, odeigeneratuak, ginala esan zitekean. Ar-

tzain onak nola ta zeinbat eraz dei egiten digun, azaldu zuen len-
nengo; ardia nola ta zergatik galtzen dan, gero. Arako "know no-
thing". Medelek jakinarazi zigun zer hura ere aipatu zuen; bai zearo
porrokatu ta austu ere!

Bigarren ataltzat, eresiaren bigarren apaldia esan
zigun, paperetik irakurriz:

Obeki nun Jesusen besoetan baino?
Nun, or bezain zoritsu, pakez eta alai?
Jeiki, jeiki ta ator pozik artegiraino,
Artzain-deyari gaur erantzun: Jauna, bai.

Jesusen besoetan izatea zer dan, ez tet uste Krisos-
tomo aundiak ere egokiago ta gartsusago azaldu zezakeala. Jesusekiko
zoria, pakea ta alaitasuna banan banan ta argiro erakutsi zizkigu-
nean, ezin kendu nuen nik nere buru ta biotzetik gogamen au:
- Eta i, Justo; Justo ere ezaizen ori; i, Juxto, misiolari onen
lagun!..

Urrengo itz auk, apaiz betzuk lagun nituela, berak
esan zituen erara artu al izan nituen. "Ardi galdus: artegia utzita
nora os? Jesus ire artzain ori baino onagorik, biotz aundi ta sa-
murragodunik nun arkitzeko? Nun egiatzko El izan bezelako bazka gozo,
janari osasungarririk? Artzain onak bere gorputza janaritzat eman
digu, ederitzat bere odola. Zeruko intza ta ~~erazi~~ euria ta eguzkia-
ren gerra lurrean gari biurtzen dituenak, gari ori gure barruan
geron gorputz aldatzen duen berberak, Jesusek, aldareko ostia me
zuri garbi ori beraren gorputz itzultzea nai izan du, gure arima
erorkor onen janari indargarri izan dakigun. Eta au noiz? Kurutze
santuan josita ardi galduen onerako bizia eman ta gero. O ardi gairxo,

• ardi errukarri bezain maitagarri, deslari, sasirik sasi, galduta abilen ardi argigabe ori! Adi ta entzun zak gaur ire jabearen deya. Nork daki azken-deya, o, bai, azken-deya ezotedan!"

Itz su "azken-deya" bigarrenez esatean, zotina bezelako zer bat erakori zitzayon barru-barrutik iztunari, entzule guztioi zauzkada sundia eragin zigula. Inor, battxo ere, ezalzan, beal-dean, gora, oyutegira, begiratu etzuenik. Gero, kurutzea eskuetan zuela, iztunak artzain onari egin zion-eskari samurra entzutean, guztioek geunden negarra tantoka-tantoka, zerigula. Enuen buruz ezer artu al izan.

Aita Batiz izerdi-patsetan, elizgela (sakristeyan) barruna, etxera sartu zan iñori itzik egin gabe. Neri, barrura dei eginez, Leonek eman zezala, esan zidan, Leonek eman zezala gau artan kurutzeaz onedaspene. Elizatik "Jesus gure Jaun maite atsekabetus" ezpainetan genduela, zugaztira joan ginanean, Medel etzan sartu; bestetan bezela, oyulari-arteon.

Bazkaltegian, apalorduan, betiko bi apaizez gainera, beste bi: Amezketakoa ta Belauntzakoa, bildu ziran. Medel etzan ageri. Luzarotxo bera igurikitzen (berari begira) egonta, Isabel agertu zitzaigun, Medel etzela etorriko esatera. Gure estuasuna ta jakin-naya!

- Zer agitu oteza? zinoan bata.
- Ongiezik oteda? besteak.
- Ala sapustus, gaineratu zuen A. Batizek, nere itzal zorrotzegi eritzita, esarretu?
- Ori ez, erantzun zion Amezketakoa. Eizakia, mindu gabe, ezta atxitzen. Mindua dala ageri du. Zein min duen, Jsinkoak, mindu duenak, daki.

"Medelek au goyan, oyutegian, arrizkoa zirudien.

attention au pied

(2) (hendizioa)/

15

37

("GIZARTE AUZIA", Eguzkitza'tar Jon; 144 ss.orr.)

X X V I I I

Gizartekeria ("Socialismo") ta alogerekoak.

Beargiñen lana alogeraz ordaintzea, okerkeri andia ta langille gaxoak joputzera errukarrian eukitako bidea dala diñoe sozialisten buruak. Ori dala-ta, oraingo ugazabok eta oneik langilleai damotsezan alogerok bein betiko kendu bear ei-dira, estadia baño beste ugazabarik iñongo iñon laketu baga. Ugazaba bakarria izango dan estadia onek, ordainbide-txartelak emongo ei dautsez langilleai, ta biziteko nai jolasteko bear dabena, txartel orrien bidez erosi ta eskuratu al izango ei-dabe langilleak. Baña ordainbide-txartelok ¿zer dira? Ondo begiratu ezkerro, estadiak langilleai emongo leuskioen alogera baño besterik, ez. Au onelan izanik, alogeraren izena aldatuaz eta estadia ugazaba bakar egiñaz ¿zer aurreratu eke-litzake? Ugazaba bakar onen menpean alogerekoak geitu ta ugaritzea baño besterik, ezer bez.

Gizartea gexo andi ei-dago. Txarto dagoalako sendakai edo erremedio indartsua bear ei-dau. Bear dauan sendakai ori gizartekeriak ei-dakartso. Sozialisten buruak ori diñoe beintzat.

¿Egia ete-da? Gizartekeriak alogerean dabilizan langilleen bizibidea ¿obetuko ete-leuke?

Sozializtak bayetz diñoa; baña diñoen ori on egiten, egia dala erakusten, eztakie. Ori on egitea gauza gatxa da izan be. Gizartekeria nausituko ba' litz, edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauza guztien jabe gizabatza aña estadua izango litzateke. Gauza orrein ugazaba izenez gizabatza ala estadua; izanez eta benetan gizabatzaren nai estaduaren buru ta agintariak, beneteko ugazabak oneik izango litzakez, eta langilleak orrein o-tsein eta morroi. Lanak eta lanaren irabaziak banatzea, gizarteko agintarien ta onein ordekoen ardurea izango litzake. Agintari ta ordekoen aizkideak ondo ibilliko litzakez: enparauak gaur egunean baño be txartoago, estadua sabel andi ta biotz txikiko ugazaba da-ta.

Gizartekeriak alogerekoen bizibidea asko obetuko leukela diñoa sozialistak. XIII Leon Aita Santuak bizibide ori txarra-gotuk egingo leukela adierazo euskun, eta Aita Santuak zer ziñoan ondo ekian. Edozein langillek bere lanaren ordaña, bere alogera artzeko ezeze aloger orregaz nayan dauana, bere ta berien mesedera-ko ondoen deritxona egiteko be eskubide osoa dauko. Irabazietatik zerbait aurreratu ba-dagi ta ardurez bizita aurreratu dauan diruaz etxe naiz bazter bat erosi ba-dagi, erositako etxe naiz bazter ori langillearen alogera baño besterik ezta; beste era baten bai, baña langilleak bere alogeretik aurreratu dauana da-ta, langilleak orre-lan erositako etxe naiz bazterra, bere izerdiz irabazitako alogera baizen berea dau. Ondasunetzazko jauntza edo jabetza orixe baño besterik ezta.

Baña, sozialisten eretxiz, edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran gauzen gaur eta jabe gizartea baño beste iñor ezin izan daiteke: gizon bakotxak orretarako eskubiderik ez ei-dauko:

origaitik eskubide ori gizon bakotxari kendu ta gizarteari emon bear yakola diñoe; baña onelan alogerekoen bizibidea, obetu bearrean, txarragotu egiten debela ¿nork ukatu? Lenengo ta bañ langilleari bere izerdiaz irabazi dauan alogera ondoen deritxonez erabilteko aukeramen edo libertadea moztu egiten dautse sozialistak; gero, bere ondasuna, bere aziendatxua geitzeko itxaropen eta almena be errotik ebagi. Ori ta guzti be, gizartekeriak alogerekoen bizibidea asko obetuko leukela esango dauskue. Lotsa gitxi bear da ori esateko!

Bakotxaren jauntza ta jabetzea lapurreta garbia zala esan eban Proudhon'ek.... Edozelako ondasuna ekarteko gai ta bide diran geuzen jabetzea gizon bakotxak beretu ba-dagi, ori lapurreta garbia da sozialisten eretxiz. Ori diñoe beintzat; baña diñoen ori guzur birilla da.

Guzurra dala ikusteko, egin daigun kontu langille bik zeregin eta irabazte bardiña daukezala: urtean bost milla bana irabazten debezala. Batak nasaitxu bizi nai dau: ondo jan, ondo jantzi, ara ta ona ibilli, au ta bestea ikusi, jolastu ta assegin artu. Orrelan bere irabazia urtero eralgi ta sautu daroa. Berea dau ta bereagaz ondoen deritxona egiteko eskubidea dauko -esan leike norbaitek-. Ori be ezta beti egia; baña eztaukanik be eztiñogu.

Beste langillea arduratsu ta begiratuagoe da: bear-bearekoa baño ezta eralgi nai; urritxu bizita, urtean bi milla lauerleko aurreratzen ditu. Etxagun izan nai leukela-ta, urte batzuen buruan aurreratu dauanaz etxaldea erosten dau ta etxagun egiten da.

Langille biok zeregin eta aloger bardiñak euki dabez; baña biak ¿bardin lan-egin ete-dabe? Ez orixe! Gizon askorentzat irabaztea baño irabazitik aurreratzea gatxago izaten da.

ooooooooooooo
ooooo

("PERNANDO AMEZKETARRA", Gregorio Muxika, 38 ~~...~~)

B I A S T O

Pernandoren burua nola ete zebillen egun artan! Astoa surrean artuta joan zan goizean perira, ta astoa nun zuan ez zekiala zetorren gauean etxera.

Asto gabe zetorrela ikusteaⁿ emazteak zer esango ote zion, bildur zan. Geldi-geldi, berekasa itzegiñaz, burua alde batera ta bestera erabilliaz zi Joan etxe-aldera. Ostatu-aurrera ala irixtean ikusi zuanean, ostalariak esan zion:

- Zer dezu, Pernando, orla etortzeko? zerbaiz gertatu al zaizu?
- Bai gizona. Astoa perira eraman det, eta perian aztuta ez nator bada? Oraindik orrelakorik... Tokitan dago ura orain arren billa joateko. Zorioneko astotzar ori... emango nioke!.. ..

-Utzi zaiozu biar arte, gizona. Biar ere an egongo da bai.
- Bai, ori bai, ondo lotuta utzi det-eta. Baña nere emazteari zer esango diot? Egia esaten badiot....
- Gezurra esan. Esaiozu... esate baterako... Ara. Zure lagun batek txal txikidun bei bat erosi duala: txal txiki ori ezin eramanik arkitu dezula bidean, eta txala gañean obeto eraman dezan, astoa eskatu dizula ta biar berriz ekartzekotan eman egin diozula.

- Ez zera makala, adiskide! Buru iaioa daukazu gero gauzak asmatzeko! Nere Mari-Joxepari egia esan ~~izantzen~~ bear izan banio, ixtilluak izango ziran gure etxean.... Orla, ordea.... bapo zio!

Uste bezela gerta. Sartu zan Fernando etxera, astoa nun zuan galdetu zion Mari-Joxepak, lagunari nola eman zion erantzun zion Fernandok, Mari-Joxepak sinistu zion... itxuraz beintzat, eta pake santuan ceratu ziran.

Urrengo goizean joan zan gure gizona peri-tokira asto bila... ta an astorik ez. Ara bigarren itillua!, ta bigarren gezurra asmatu bearra!

Etixeratu zanean:

- Astoa ez al dakarrek, Fernando?

- Are, ez bada. Atzo, txela gañean zuala bidean zijola, beiak bultzada bat egin omen zion eta elbarrituta dago. Ni ikusi nauean etorri nai izan du gixaxoak, baña gaizkiagotu ez dedin nere adiskidearen ukulluan bertan utzi det egun batzutarako. San Bartolometarako emen izango degu.

Fernando izketan ari zala, bere astoa ukulluan arrantzaka asi zan.

- A kirtena!.... -esan zion Mari-Joxepak senarrari-. Aditzen al dek ori? Gezurrak asmatzeko ere burua bear dik, burua; ez ik orlepo-gañean daukekan ~~kapiko~~ zar"ori". Bi asto zeuzkeago guk etxean, bi asto.

- Bi?

- Bi, bai, bi: atzo ezkeroztik ukulluan dagon ori ta i.

Aurreko egunean Fernando bera baño lenago ez zan bada astoa etxera etorri! Bai Mari-Joxepak ukulluan ixil asko sartu ere. Toki onean zeuden Fernando gizarajoaren ziriak!

oooooooooooooooo

(1) ori

17

Trents du: 4.: Baditzute...

42

("ITZ-LAUZ", Lizardi'tar Xabier; 61-68,orr.)

EUSKERA AUNDIKI-SOÑEKOZ.

Eusko-aundiki guziek euskeraz ariko ba'lira, euskera gaizkatua, salbatua, omen genduke. Amaika bider entzun diotegu orixe "Larreko" ta "Teadoñ-Zaya" idazleei.

Ta orren atzetik ari ere ditugu ainbat egiñal: gure aundikiei, euskera, biotzetan ezezik ezpañetan ere, nondik itsatsiko.

Baña, orrelakorik beñere iritxiko ba-degu, aundiki euskeltzaleok leen-leenik ari bear degu euskeraz: au eskolako aurrei ere ematen diote buruak. Ta, ots, gare au aunditzat yoa barkatu: ezta eder-uste, baizik-eta zigorrari ez igesi naia.

"El Euskera en las empresas de cultura" buru dula, Ur-lia jaunak lan bat agertarazi du arestian "El Día" n. Aren eskütikako izenik, eder da. Baña badegu susmo, egiaren ingurukako izketa polit utsa ez ote-dan: ala oi-battegu maiz, egiari aurrez-aurre begiratzeko bekokirik eztegunean.

Nerekiko, urrengo auxe da egia, ta auzi ontako iltzea.

Alegia, zoritxarrez, are aundiki euskeltzaleenok ere gure yardunak euskeraz aritzea gaitz degula. Geren buruon yazte osoa

~~ERDERAZ ESINZBAITIGUZALPERRIKZITZAKUZBAITZIK~~

erderaz egin baitegu, alperrik litzake besterik eskatzea: nai-ta-nai-ez bear alegin zalla, geronen artean bederik gai biurri-samarrak euskeraz erabiltzeko. Ta, baitetik erderaz aritzea errezago, b stetik erderaren bidez geren buruok ederrago erakusten aal, milla akiakula sumatzen ditugu egitezko erdeltzaletasun ori bidezkozteko.

Baña, eztegu ori, nik uste, osasunerako bidea.

Maitetasuna egitez agertzen oi-da, ez izkutuko biotzaldi utsez. Maitetasuna eztute nekeak ez yasanbearrak izutzen.

Ori orrela ba-da, zertan gibel ez eman maldapbeera gozo ari, ta ekin ez, kementsuki, malkarresan gopa, goien ta ez beean maitea bizi baitegu?

Gogora datorkit oroitzapen zear bat. Ni ta zenbait adiskide abertzaletu-garaiakoa. Eztabai aundien ondotik, yausi gaituzu guziok noizbait egipean: euskozaletu gaituzu buruz ta biotzez. Ez ordea egitez, artean. Ta emen dator alkarri esatea: ¿Au eztiagu aski. Orain euskeraz ari bear diegu. - Bai-al-dakizute nolako nekeak genduen ori? Euskera umetan erdi-ikasari, gero erdi ortatik iru laurden atzendu... Masallak gorritzen zitzalzikigun ederki, beti elkarrekin erderaz ari-izanak ordudanik euskeraz ari-bzarraz. Baña, egiñal latz askoen bidez yaundu ginduzun geron buruez, ta geroztik, ostera, ezin erderaz ari gaituzu.

@ @ @

Urlia argiak diona egia da, baña erdikako egia. "Eusko-Ikaskuntza" n euskerak betidanik omen-du yerleku berezia: iru illabetez beingo "Deia" n lantxo bat eta zenbait berri gure izkeraz sartzten ditulako.

Baña ezta aski. Ta esango deguna yaso dezake gureetatik

~~Orain euskeraz ari bear diegu. - Bai-al-dakizute nolako nekeak genduen ori?~~

beste Bazkun nagusiak, "Euskaltzeindia" k ere.

Ezta aski, ez. Izkera idatzia bai-daiditake izkera illa. Mintzatur, ordea, ezpañek darsbiltena, uraxe badakigu eskier bizi dana.

Leengo batean amets txar bat egiñik nazute. Euskalerris nenkusan, ordeka soil bat iduri. Ez mendi, ez baserri, ez ezetasunik iñon: ez-eta ere euskerarik, illa beitzan betirako. Baña, ordeka-erdian yaun illezuri agurgerrri batzuk ari zenituen zerbaitean, maibatzen inguruka, paper ta idazti soil aundien artean. Urbildu natzeie, ta.... badakizute zer ziar duten?.... Euskal-iztegi bikain bati azken-orratuak egiten, euskera ordurako illa ta lurperatus zanik oartzeka. Agian, bazekiten berak, artean; baña..., erderaz ari baitzenitun....

Olakorik ez bezaigu gerts, Yainko ona, otoi.

@ @ @

Badakit nik, bat-batean, euskera utsez, bere batzarrak egiten asi ezin ditekela "Eusko-ikaskuntza". Baña, beintzat, izkera biak naasi lezazke, ta batzerrero ordu-laurdentxo batean euskeraz aitzeko oitura artu ere bai.

Ikasbide txiki oien indarra aundia baita; aundiagoa, alegia, eskatzen duten alegiña baño.

Elebitza eskatzeko, zer beso emate aal-zigun "Eusko-Ikaskuntza" n, "Euskaltzeindia" n, Aldundi edo Diputazioetan, Udaletxe edo Aluntamentoetan, euskerari ordu-laurdentxo ori bederik eskeñia!

Ori egin ez bitartean, eskubide berririk eskatzea yardun alperre.

Elebitze dala ta zera dala, nola, guri botatzeko, erantzupen auxe buruak eztiote ematen Madridekoei?:

Izan ere, alperrik ari gara. Euskerak eman digu erri-izena. Euskera da gure bereiz-alderik (hecho diferencial'ik) nabariena. Euskerak etxekotu gaitzake oraindik senide guztiok: euskera-gabe- tzeak arrotu.

@ @ @

Zaarxeagoa dezu, Urli agurgarria, orain gogora datorkidan zure illeta bat. "Eusko-Ikaskuntzak" eratu ikastaroan -zenion- euskerazko jardunek betetzen dute aretoa: erderaz ainbeste gaitz yakingarri azaltzen, bai?, ta alkietan bost lagun. Zergatik ori?, galdegiten zendun.

Belarri-ertzera erantzun nai dizugu. Euskeltzalea baita euskozale guzietarik egiazkoena ta egiatiena. Orra esan.

@ @ @

Yaun Urli begigarri ta adiskide: barkatu jardun luze, lotsegabetxo au. Egoarri gitxikotzat jotzen gaituzu, ta eramapenez X lasa ori gaitela, diguzu esaten. Aolku egiazki bikaña! Egoarrririk, eramapenik eta gibelik asko bear baita, euskaltzaleak txintik atera gabe euskeraren igesiari begira egoteko.

oooOoooo

18 46
("SARRERA ITZALDI", Altube 'tar Seber; "Euskera",
II garren urtea, I z. (1.921)
46-49 orr.)

Aintxiña izkera asko agertzen ziran orain gurea beze-
la, ezetarik batasun barik. Alemanitarren izkeria bera ere olantxe
aurkitzen ei-zan orain sei-zazpi eun-urtekorarte; baiña utsune ori
gora-bera, orduko munduaren bizi-moduak ez eutseen orduko izkerai
oraingoak oraingooi beste ~~ko~~ kalterik erakarten; gaurko munduko ikas-
te ta artu-emonak, il edo bizizko indarrez eskatzen deutse izkerai eu-
ron idazkuntza batasuna; ta geu euskaldunok, diñogu barrero ere, aur-
kitzen gara il edo bizizko dei orri jaramonik egin nai ezik, beste
izkera oroen azpijan.

Idatz-izkeriak, erri-jarraitzaillea alde batetik, eta
bestetik orontzat bardiña izan bear dabela esan dogu. Bearkizun bi
orrek, alkarren kontrakoak dira eurenez, itzez-itz artu ezkerok; baiña
ikusit daigun zelan aitu bear ditugun: Idatz-izkeriak erri-izkeriaz bat
eginda bizi bear dabela esan oi-dogunean, eztogu esan nai, berak, erri-
-izkera oro, osorik edo guztiz beraganatuta bizi bear dabenik; erri-
-izkera mota guztijak idatz-izkera barruan ezlegokez; bestetara bai
barriz, idatz-izkera guztija, zabal, ~~z~~ustraitsu ta sendo erri-izke-
reen barruan.

Izkera bijoen alkarkidetasun ori, gorago esan dogun
baizen zustraitzkoa eta benetakoa izateko, idatz-izkeriak, errijaren

era askotako baiña esan-gura bardiñeko itz eta gramatikakijetatik, bizitzarik sakon, sendo ta zabalena dabeenak aukeratu bear ditu; ta bardiñean, orretara nagositzeko jokeria dabeenak; auxe da, beti, geure gogoaren barru-barruan sartuta euki bear dogun jarraipidea.

Idatz-euskerarik egokijena, eta beraz, aintxiña, errijaz urrin bizitzeak il zituan izkera andizurenezkoen edertasun eta aberas-
tasunen antzekoz jantzitakoa; ezta noski gure usteak ederrenentzat, garbijenentzat, txukunenentzat etsi leikeana; ezta zeatzen edo zentzuhe-
nezkoen eretxi leikeoguna ere; euskadunik geijenen belarrijetan zear bigunen eta aitukorren sartu leitekena baiño; erri-izkeriaren gungunez beronen izerdiarik ugari, barruko, eta beroenez, burutik eta oiñetara elikatu, anduta guritutakoa baiño.

Eta orretariko idatz-euskeria lortzeko, ezta bear maitekeririk, ezta bear biotzkeririk ez buru austerik, ez eztabaidarik, ez jakituri andirik. Entzun, begiratu, ikusi ta gaurko euskeriaren benetako bizitzia zein dan azaldu; beronen gramatika-eraki benetan zustraituak zeintzuk diran, beronen iztegi zabal⁽¹⁾ eta ots-joskera jokera-rik geijenez agertzen dituanak zeintzuk diran, itz batez, tokirik geijenetako euskaldun jator geijenen artean zabalak, sakonen eta sendoen zustraituta bizi diran izkerakijak zeintzuk diran azaldu, ikusi ta argitu eta eurok izan daitezela idatz-izkeriaren gorputza osotu dagijanak.

Auxe dala biderik onena irakasten deusku gaurko izkuntz-jakintziak, gure euskera gaixoa beia-jo-agiñean aurkitzen dan tokitik zutitu eta lerdentzeko. Auxe dala dirausku, izkera orok jarraitu bear dabeen bidea; gure euskera onek atan-be, errijaz landa, errijaren berotasunaz gaiñetik, beste geijenak daben indar-laguntasuna eta gurasotasun barik, ume-zurtz aurkitzen dan euskera maite onek, atan-be.

(1) ta sakon bizi dana zein dan, beronen izkera, izki ta itz-otsak

Itxi daiguzan bada alde batera, gure aurre-erretxijok, geuretzat, bakoi tzarentzat, eder, atsegingarri ta zentzunezko litzateken euskeriaren alperriko atzean ibilteok.

Idatz-izkeriaren jokeria, gogoa, bidea ta indarra alde bateruntz eta erri-izkeriarena besteruntz, ori iñoiz, ere ez; erri-izkeria geuk nai geunkean eratatik, geroago-urriñagotzen ikusita ere, jarraitu egin bear deutzagu idatz-izkeriaz; erri-izkeria geuk maiteen ditugun erakijak, itzak, itz-otsak eta abar utzi ta beste batzuk, geure gogoko eztiran batzuk artzeko bideetan ikusten badogu ere, asztu daiguzan geuretzat maitegarri diran izkerakijok eta idatzi daiguzan errijarrenak; iñoiz ere ez, diñogu barriro ere, errija alde bateruntz eta gu besteruntz; bijok al-daikegunik urren, batuen, eta adiskideen baiño. Orretaraxe egin daikegu lan onurakorra, orretaraxe, alkarren berotasunaz indartu leitekez izkera agerkun bijok; bestetara barriz, alkarrengandik urrinduz, bijok otzitu ta makaldu erazo eta euroi eriotz-bideetaruntz bultza baiño ezteutseegu egiten.

Ta azkenez gogoan euki daigun egi itzal au: gaur eguneko giza-artu-emonetarako, batasunezko eta errijaz adiskide bizi dan idatz-izkerarik euskeraan aurkitzen ezpadogu, gura nai ez, ezdereetara joko dogula danok, utsune ori beteteko. Sori txarrez, egi itzal eta saminorren ondorenak, larregi ere agiri dira, daborduko ere, euskaldunon artean.

Baztartu bada buru-gogortasunok, eta autu daigun geure idatz-izkera batasunezko ori, orokarrori, geure izkera maiteau laister il-otzik ikusi nai ezpadogu.

Asmo bat baiño eztaigun izan danok: euskaria eztaitelatela il. Zelako eraz bizi bear daben? Bere oraingo erderiaz inguratutako egokera estu orretatik, garbijago ala loijago, ederrago ala itxusiago urtengo daben? Ezteigun orrezaz larregiko ardurarik izan; bizirik

urten daijala, ezta itela il, izkereen eriotzia betiko eriotzia da-ta. Guk bizirik emon daijogun geure urrengoko gizaldijari, eta au edo urrengokoagoak gu baiño era obean aurkituko aldira euskeriaren osasuna zainduz gaiñera, al-daiten bestean berau garbitu eta edertzen ekiteko.

Lengo gizaldijetako gure gurasoen euskal-lanak ain gogor jo zituan eta gaur ainbeste bidar aitatu dogun Hovelacque izkuntzalari jakitunak, gure euskera au, aintxiña-aintxiña-aldijetan European bizi izan ziran izkereen erlikija^{ta} baliño aundikoa dala diño. Jesukristo jaijo zan aldira baiño oraindik millaka urteak leenago Arius-tarrak Europa'ra etorri orduko bertan zirean izkera ugarijetatik bizirik gelditutako bakan bat dogula geure izkera maite au, diño Dauzat'ek. Bardin uste dau Gregoire'k ere. M.Broca'k Europa'ko izkerarik zaarrentzat deusku geure euskera maitagarrija; eta bardin edoxantzeko izkuntzalari orok.

Ez litzate bada negargarrija, oraintxe, errijen nortasuna, euron-burutasuna, goratzen eta euroi lotsia artzeko bideetan munduau asi dan gizarteon bertontxe, burutasun edo nortasun ori, gure erri oni, ezek ezleikeen neurritz ta indarrez agertzen deutson gure izkera eder au, geuk, geure eskuetan ilten iztea? Geure gurasoetatik belaunik-belaun, ainbeste milla ta millaka urteren buruan zuzen-zuzen artu dogun etorki eder au, etxaguntza buru-goi ta argitarrau, oraintxe, geure itxitasunez, semerik deunga ta gaiztoenak bezela, bertanbera ilotzik izteko adore lotsagarrikorik izango ete-dogu geuk?

Goratu daiguzan bijotzok, goratu daiguzan gogook, eta ekin daijogun, euskaltzaiñok aurretik eta beste errikide oro lagun ditugula geure euskera kutun onen eriotzia betiko urrinduten; geure euskera maite ta eder au sendotu, bizkortu, zabaldu, zustraitu, eta anai oroen

eder

ago eta belarrijetana, maitekijen eta gozoen bizi izatea lortu
arte.

eta bide zuzenez. Ekin bada gogor eta buru argiz. Jarrai nekatu barik

oooooooooooooooooooo
ooooo0oooo
ooooo
ooo

19

57

("BERTOLDA TA BERTOLDIN", Garro'tar Bernarta Ma. (OTXOLUA);
57 ss. orr.)

Zangurruba eta Karramarruaren Ipuña

- Ekixu, jauna, gure ~~atak~~ amar semerartekuak ixan zituzala, eta ni oindiñokarren nazan lez, beti ixan zala txiro ta biartsu. Makiña bat bidar aparitarako ogirik be ixan eza eta jaten emon ta ase-ase eginda eratzu biarran, iñon diran ipuñak esan eta lo-erazo egiten euskun gure ~~atak~~! Sabela goseturik baña buru-belarriak gozaturik ~~iruan~~ izaten genduban onetara urrengo goxerarte. Areri entzuniko ipuñen artian, zure itaunari erantzuteko bete-betian yator dan bategaz gomuta naz orain, eta egonarriz piska baten aditu ba ziñeist, erdein ixango elitxakizun zerbeit entzungo zenduke.

- Esan, gixona, esan; atsegin andija ixango dot-eta -erantzun eutsan bakaldunak.

- Gure ~~atak~~ esaten eban ez -asi zan Bertolda edesten- beñola, aberiak berba egiten eben aldiran eta mozoluak kapusaia erabilten eben sasolan, bai-ei-ziran adizkide urko bi: zangurruba ta karramarru. Beste errijetakuak zelan bixi ete-ziran ikusi biar ebela-ta, munduba ziar alkarregaz juatia erabagi ei eben. Aldi atan zangurruba aurrekera ibilten zan, osterantzeko piztijak lez, eta karramarrua etzan gaur lez albokera ibilten. Adizkide bijok, gurasuen etxetik alde eginda,

asi ei ziran bidez munduban barruna, ta ibilli ta ibilli, otijen
errira eldu ziran; andik muskarren lurraldera jo eben, eta gerua-
gogarrenian onein mugan dagon mitxeletien. ⁷² Eta ibillijaren-ibi-
llijaz lurralde asko ta askotan ixan ei ziran eta ainbat baster
ikusituei zitubezan eta beredin piztiren ekandu berezijak uartu. Eta
Juan eta Juan, azkenez, katamixarren errira eldu ziran, gabez
atan ⁸ eldu. Aldi atan, katamixarrak eta ogigaztaiak guda ⁹ Xuga-
rrija ei erabilien ¹⁰ alkarraren artian; antza danez, bitzubon lurral-
diak bata bestieren onduan ei egozan, eta saldukerijen bat edo-ixan
zala-ta, iskilluak artu ta alkarreri erasok ¹¹ eragoien. Katamixa-
rren gualtegiara eldu ziranian, ango jagolak ikusi egin zitubezen
gure lagun bijak, eta zelataritzat arturik, bat-batian atxillotu ta
txikotez ondo lotuta buruzagijagana eruan zitubezen. Buruzagijak
ziatz-ziatz arakatu ta itaunketa estuba egin ostian, ezeutsen idoro
besterik munduba ikusi gurarik ebiltzezan lagun bi zirala baño, eta,
biarba, arrotzak ziranez, ezeren barririk jakin ez-da leku aretara
uste-uste barik eldu zirala; eta itaundurik ia euren gudari ixan
gura eukienentz, bayetz erantzun eutsen zangurrubak eta karramarruak.
Arenbeste adar, beso, ta ankadunak zirala ikustian, gudarako berebi-
xiko tresnak ixango ¹² begitandu ¹³ jakon buruzagijeri, eta azke izteko
agindurik, gudari-lerruetan imiñi zituzan. Eta aurduban jazo zan
jazotekua. Agindu ei eutsen gure zangurrubari arerijuen landan
zer egiten ete-eben zelatan juateko. Katamixarrak uste eutsuben
ezebela ogigaztaiak zangurruba ain errez ezagutuko, lurralde arei-
tan zangurruba pizti barrija zalako, ta ganera ibilkera ixillekua
eta pitian-pitian gorputzik geyena buztan barruban eskutauten ebana.
Ain baxen bizkor Juan zan zangurruba nagosi-barrijaren aginduba
betetan, eta arejijuen ¹⁴ landan jagolak lotan aurkiturik, aurrera
egin eban eta ogigaztae-nagosiaren guda-txabolaragiño eldu zan,
ango jagolak be lo-egingo ebela uste ixanik; baño gixagaxuak ezaban

*Zirala

adu onik ixan. Ezegozen lotan, ez, ango jagolak, ondo itzarturik jokuan baño, ta gure zangurrubak txabola barruban buruba sartu ebaneko, aretariko gudari batek ikusi egin eban beinguan, eta jokua itzi ta zangurrubak nabatu ezegijan maitik geldiro-geldiro jagirik, kisket bat artu ta buru-burura jaurti eutsan indarrik andijensz. A ixan zan kisketekua -.esus!- kasketekua! Krakadeaz beraz ~~konorte~~ ene zangurruba ilda lez jausi zan lurrera konorte barik, eta buruban beti daruan maskorrari eskerrak, osterantzian ba-yuakoz garunak axiak artzen! Ogigaztae jagoliak, lurretara jausirikua zelaterija zanik bururatu be egin barik eta ildakotzat arturik, adarretatik oratu ta luebaki batera bota eban, eta beste susmo txar barik lagunakana juan zan atzera jokuan. Zangurru errukarriak, bere senera etorri zanian, ezin eban miñaren-miñaz bururik jaso be egin, ain ixan zan andija arturiko kaskarrekua; eta zin egin eban etzala geyago eguno buruz aurrera iñon sartuko, buztanez atzera ibilli baño, ta onetara, ukaldirik emongo ba eutsen be, buruban baño nayago ebala bizkarrian artu. Oñazez eta miñez, al ixan eban lez eldu zan atzera katemixarren landara, ta jazoriko ta ikusiriko gustija edestu eutsenian, iskilluak ixil-ixillik artzeko agindu eutsen gudaritai buruzagijak; ta arerijuen landara juanik, eraso-aldi irrima bategaz otoz-otuan ogigaztae-nagosijaren txabolea artu ta barruban egozan gustijak il egin zitubezen. Onetara aspertu eben zangurrubaren kaskarrekua; baño zangurru gixagaxuak ezaban gura alakorik barriro jazo egikijon, eta ba-diñotso karramarruari:

- Amutil; gayuazan emetik Jaungoikuagaz, gudaketea eztok guretzako egiña-ta.
- Baña, zelan iges egingo yuagu -esan eutsan karramarruak- gure oñatzen aztarrenak artu egingo yaezak-eta?
- Ibilli adi i albokera, ta nik atzekera egingo yuat; onetara iruzur egingo yautseguk eta estura gustijetatik urten al ixango yuagu.

Atsegin ixan yakon karramarruari burpide au ta ^viatzen
 puntetan jarririk, txairo-txairo asi zan ariñketan, or^biden, eta
 ba-yuskon zangurru gaxua atzetik, eldu eziñik. Katamixarrak ezeben
 iñoiz igarri norantz alde egin eben gure lagunak, euron ibilkera
 zakarraren oñatzakaz buruba naspildu egin ixan yakelako, ta gogait-
 -eginda uts-emon egin eutsen jazarkatziari. Nekez eta lorrez eldu
 ziran etxera zangurruba ta karramarrue; ta bidian jasan zitubezen
 estura ta larrijakaz beti gomutau ixanik, il-burukotzat itzi eutsen
 ondorenguai arrezkero ibilli etekezala beti eurak etxera etorri-
 ran egin ixan eben letxe; eta gaur berton ikusi ziñegiye, oindiño,
 zangurruba atze-atzeka ibilli duala, ta karramarrua, barriz, albo-
 -alboka. ~~Etax zangurrubak egin gaxua atzetik, eldu eziñik. Katamixarrak ezeben~~
~~igarri norantz alde egin eben gure lagunak, euron ibilkera zakarraren~~
~~oñatzakaz buruba naspildu egin ixan yakelako, ta gogait-eginda uts-emon~~
~~egin eutsen jazarkatziari. Nekez eta lorrez eldu ziran etxera zangurruba~~
~~ta karramarrue; ta bidian jasan zitubezen estura ta larrijakaz beti~~
~~gomutau ixanik, il-burukotzat itzi eutsen ondorenguai arrezkero ibilli~~
~~etekezala beti eurak etxera etorri ran egin ixan eben letxe; eta gaur~~
~~berton ikusi ziñegiye, oindiño, zangurruba atze-atzeka ibilli duala,~~
~~ta karramarrua, barriz, albo-alboka.~~

oooooooooooo
 oooooo
 oooooo
 oooooo
 oooooo

("AITZIN - SOLAS", Lekuona'tar
"Gero, XX-XXII orr.)

Kritika apur

LIBURUA: Diogun orain Liburuari berari buruz zer-edo-zer. Onezkero irrikiturik egongo zeta ta, irakurtzaille.

GERO, gure libururik aipatuena dala esan dizut lentxuago. Eta benetan. Eta benetan alaxe da, izan ere. Bañan, aipatuen eta guzti ere, ez bear aña, ez merezi-ainbat.

Itz bat da gure Iztegietan, Liburu onentzat egokia, egokirik bada. "Oparoa". Liburu oparoa. Luze eta zabal. Oparoa gaiaz, oparoa eraz. Oparoa mamiz, oparoa azalez. Ixuri ugariduna, benetan. Ixuri errezekoa. Euskal-Liburuetan facile princeps. Ongitxoz guztien gañetikoa, gorena, ederreña, jantziena, jakintsuena, jatorrena, erreza, txairua, apaña... facile princeps.

Oparoa esam det. Eta benetan. Eta edozeñen eskutarakoa gañera. Guztiontzat "duena". Ez euskal-zaleentzat bakarrik -Euskera jatorraren ur bizia iturburuan bertan xurgatu nai duanare'tzat bakarrik-; baita zuretzat ere, Apez Jaun, zuretzat, Mediku Jaun, zuretzat,

Jaun Abokat.... Zerana zerala: guztiontzat. Guztioek arkituko degu Liburu onetan nun edan, nun goza, nun esse. Olakoxea da.

OARRA. "Guztiontzakoa" esanda, ordea, beste esan-bear bat etortzen zait burura. Esan-bear praktiku bat.

Erderaz irakurtzen oitua -oso oitua- bazera, mabarituko dezuz zenbait oitua ezkutu, zenbait resonantzi, zure barrunbean, GERO irakurtzen diarduzunean. Aldiz, oarturik; aldiz, oartzeke.

Ezta orregatik eder Axular. Ez orregatik; ori arren, baizik. Irakurtzaille arruntak, berriz, Eliaako sermoi-antxa arkituko dio GERO-ren jardunari, galez eta eraz; eta, sermoietara oso oitua baldin badago, errez adituko du irakurtzen duana. Irakurtzaille arruntak, ordea, bere egunoroko artu-emanetan ez bait-du ola itz egiten; beste era batera josten bait-ditu bere jardurioak. Eta ola, bear bada, bere ez-lakiñean, euskera arrunta, euskera zatarragoa, eritziko dio bere euskera jatorrari; apañagoa, berriz, an irakurtzen dionari.

Bañan, berriz esanda ere, ezpaitago ortan gure Axular-en benetako apaingasuna, Axular-en apaingasun jatorra. GERO ezta orregatik apain jator. Ori arren, baizik. Ori gora-bera, ba du Axular-ek beste zerarik, beste jatortasunik, beste gaitzik, beste grazirik.

Zertan dagon jatortasun ori? Ez bait-da erreza esaten.

Oparotasuna esan degu lentsuago. Bañan itz-jario oparoaz eta jakinduri oparoaz gaitera, bai bait-du beste zerbaite ere. Argitasuna? Bereiztasuna? Bai, ta izan ere, eztago Axular-engan bat ere kalpar kardatxik. Ille leun da, dan guztia. Ille leun, ondo orrazetutako ille leun. Argi. Dana argi. Bereiz. Nahasirik gabe, kardatxik gabe.

Lerroa beti garbi.....

Argi ori, leuntasun opi, berdintasun ori -ori bai-asko laguntzen dio laburtasunak. Esakun laburra. Estilo laburra. Eta, izan ere, Axular eztegu bat-ere parrafo-zale. Luze itz egingo dizu aldiz aldiz; bañan inoiz ere ez parrafo bakar luzean. Sorta txiki asko dun itzaldia degu beti aren itzaldia. Eskutada txiki asko batuko dizkigu arek zama aundian; bañan beti ere olaxe, ^{so} bertaka; ez bein ere, nahats-aiena iduri, parrafo nahasi, klausula luze, arnas-etengabeko periodo bakar batean. Aditza, berboa, maiz indica-tivoan. Gerundioz eta partizipioz eta subjuntiboz eta relatiboz asko luzatu gabea, "anpatu gabea", berak liokean bezela.

Ots, orratik! Ez uste izen orrenbestez, Axular'en estiloa, arnas-estuko estilo lakonikoa danik. Estilo lakonikoa, ebakia, itz-neurtua, Kempis'en De imitatione-rena bezela, edo Salomon'en Proverbia-rena bezela, azal eta mami, dana labur. Ez. Axular askotan gai luzeari ditxeko. Eta eraz, berriz, zati labur bakoitza leunkiro alkartzen du zati urkoakin. Oratarako du ark, daukan bezelako arte, daukan bezelako Retorika. Retoriko bortitza baita, izan ere, gure Sara'ko Erretor ~~ziana~~ zar, antziñako Tolosa'ko edo Salamanka ko ikasle gotorra....

Olaxe da, dan bezain aditzen-errez eta irakurtzen-atsegin gure Axular aundia.

Eta orixen du bere jatortasunetan bat aren GERO'k.

ooooo00000ooooo
0000o0000
ooooo

("Euzko Gogoa"; 1.952 gko. Ilbeltza-Otsaila; 15-17 orr.;
Ormaetxea 'tar Nikola ("Orixe")).

A R G I - E R R I

Donibane Gurutzeko

El.- Irakurria duzu nere seme Donibane Gurutzeko? -arek-

N.- Eta, bai alaba Teresa ere -nik- "gure aita Elias" deitzen baitzaitu. Zure alaba aundi onek nasiarazi nindun gero esango tokian.

El.- Berak ere automaten du, -arek- "neri ola gertatu zaida; bestero ba diteke bestera".

N.- Baiña, -nik- ez du aski aldiz esaten, edo askotan biribilegi aitor-
tzen dula esan nezake. Donibane orrek ez nau batere nasiarazi; orrek eskola-
tu nau obekienik. "Ia ere, zure irakaskizuna ez diteke batere motxago.

Zer derizkiozu -nik- "otoitz bikaiñena" dalako ortaz?

El.- Nere ustez -arek- Iainkoari begi-emate edo "contemplatio" ori alde
aldera artu bear da, eta ez, otoltzean dan gauzerik bikaiñena bezala, otoltz
bikain orri dariona baldin ba da ere. Iainkoa gure ezagueraz mundu ontan no-
labait atzemate ori ba-diteke belarriz bezala ere, itzik eta olakorik entzun
gabe. Au adierazi bear dizut ongi. Iakiña, fedez lenbizi ta baitipat; baiña
laguntzeko ez daude gaizki animaren zentzu bezalako oriek. Zergatik ez aza-
kete esan bestera "auditio Dei", belarriz bezala atzematea ere?

N.- Ortan nengon nerai ere -nik-. Askotan gogora zait zuri gertatua: Iain-
koa etzegola aize-erantsi artan, ez ostots artan, ez sugar aietan; xixtu
legun artan mintzatu zitzaizula.

El.- Eman dezagun -arek- Iainkoa atertu gabe oroitze soil ori bakoitza-
ren alegiñezkoa dala; ez Iainkoaren ixurizko bereizi ua. Belarri soilu antze-
ko ori (egiazko soilu, sorgin-soilu edo idurimenaren soilu dala), lagungarri
zaigu Iainko-oroitze ortan, eta otoltzean luzarogo iardun dezakegu orri es-
ker. Ixiltasun osoa ere belarriari dagokio, ezer ez entzutea baita. Ortan

askoz luzeago egon diteke Iainkoa oroitzuz, begiz bezala baiño. Emen ere begia ez dagoke luzaro zabalik itxi-ideki bilti gabe. Belarria beti zabalik dago, ta lotan gaudela ere, erne dagola esan diteke, zer gerta ere.

Ez nuke esan nai otoitz bikain ori belarriaren mende dagola; lagungarri dala baiño; ta begi-emate edo "contemplatio" orrekin otoitz bikaina zer bait kaxkartzen dutela mistiku oriek, idurimenaren zentzuetara xurtzen baitute. Iainkoa ez dezakegu atzi e z begiz bezala, ez belarriz edo beste zentzuz bezala, egia; baiña sinismenak zentzu bezalako oriek ederturik eta bikaindurik, ala bezala atzi oi dugu, edo obeki esan, orien bidez baitaratzten gera otoitz bikain orri darizkiola. Iainkoaz oroitze ori, Iainkoa nolabait atzemate ori, lañotsuago ta illunago esan diteke belarriz bezala, begiz bezala baiño. Orregatik, otoitz bikainari gagozkiola, artarakoago dirudi animaren belarri ori, begia baiño. Zentzu guzietan begia daukate nagusi, eta aldeez aldez ala ere da; baiñan zenbait geuzetan eta eskotan, belarria ez ote nagusiago?

N.- Ala daukat nik ere: "fides ex auditu": belarriz siñesten dugu; "auditus autem per verbum Christi": belarriz siñeste ori, berriz, Kristok esanaren bidez.

El.- Izen ere, -arek- Iainko-Semearen izena VERBUM da: ITZA; beraz zer bait entzungarri, ta batez ere belarriari dagokiona. Otoitzik gairnenekoan Ori entzuten dugu nolabait, edo Iauñ Orren ixiltasuna. Zein ederki esanik utzi zigun Aitioki-ko Iñaki Apaizguresoak: "Kristoren ixiltasuna entzutea". Latiñak ala biurtzen du: "exaudire silentium Christi" baiña griegoan beste adierazpen bat ba du orrekin batean: "Kristoren pakea entzutea".

N.- Ori gauza bikain esana!

El.- Ez nuke esan nai Iauñak Ebangelioan itze gin bear eta etsaien aurrean egin zitun ixilaldi aietakorik; ez. Ixiltasun eta pake ori, Aren itzeri darie; lenbizi mintzo da, itz ori, gero oiartzun, geroago ixiltasun. Iesukristo begiz ikusi ez duzutenok, batez ere, -nik ikusi baitut- Aren itzak entzun eta gero oroitze utsean, Iauñ Iru buruan idukitze soil ortan -buru-i-paulketa gelegi gabe- irauñ dezakezute luzaro, itz oien mintzoa, oiartzuna,

ixiltasuna auznartuz. Ikusi dugunori ere, luzaro ari gerala, Aren aurpegia atertzen zaigu begi-idurimenean, zueri beste edozein gizonena bezala, aspertu egiten baitzaigu idurimen ori, begia bera bezala; alare aietaz oroitzea etzaigu atertzen belarri-idurimenean. Beraz, Ebangelioko itzen mintzo, oiartzun, ixiltasun ori askoz luzaroggo dagoke animaren belarrarian, Aren aurpegia animaren begietan baiño. Asko ta asko dira munduan, ottoitzari ekiten diotenenartean, Ebangelio zati bat irakurririk ottoitzera sartzen diranak. Gero, liburuia, itxi, ta itz aiek entzuten iarraitze bezalakoa ori, ixiltasun ua datorreño, -itz aiek esan zitun Ua mintzatuz- lañotsuago ba da ere, ez da bate-re txarrago begi-emate edo Contemplatio ori baiño.

N.- Neretzat bezala ari zera, ni oso belarritar bainaiz. Beste aldera, begia ez diteke esan belarria baiño bikaiñagoa. Nagiago dala bai, itxuraz. Argiak margoari bertatik bertara laguntzen dio; ez ala soñuari, eguratsak. Tximista lenago dakusagu ostotsa entzuten dugun baiño, egia; baiña, mintzo-argailu berri auetako baten ondoan gaudela, era berean entzun ere egiten dugu ioñazturaren zarratakoa. Gogoan daukat, Guatemala ko Katedralean nengola, sarreratik berela, -irurogeita zenbait metro ba ditu- beste mutturanean ari ziran kaatarrien mintzoa baiño lenago bukatzen zan nere ondoko mintzoargailu arek nere ekartzen zidana; Hertz-ugieñek usuago ekartzen baitzuten. Belarria berez ez da nagiago, here ustez, bikaiñean ere ez gutxiago. Begiak zazpi margo oiñarri bereizten ditu, ta belarriak beste zazpi edo sei, baiña begiak margo-antxaz eunke gutxi bereiziko dituzu; baiña belarriak millaka asko. Eta asko batean eta bereiz. Zazpikote bat entzuten ari ba zera, bakoitzaren mintzo-lerroa garbi entzungo duzu, ta zazpiak erabat ere. Begiak ez du olako doarrik. Baiña, dana dala, berriketa gelegi ari dizut, eta itza zuri eman nizula aztu zaida.

Esaidazu -nik oraiño- ottoitz bikaiñ ori zer dan eta zertan dagon, itz laburrez nola mugatu zenezake?

E.- "Berekin gauzkan Iainkoa, siñestez eta maitaro gogratzea". Dakizunez, ez dago ain ongi "guregan daukagun Iainkoa" esatea, Berak baigauzka. Aurrean daukagula ere ez diteke esan, orotara baitago. Bitertterik gabe gauzka Berekin, bakoitza bakoitz gerale. Barrenez barren arturik gauzka, geran oso erasaten digula.

N.- Oso ederki. Baiña, zer diozu -nik- seme Donibane 'k diona? "Siñestez eta maitaro Iainkoagana ernai egotea?"

El.- Ongi -arek-, baiñan ez ain egoki. Erne edo adi zur edo atzarri egote ori -guzietara esaten baituzute Euskalerrian- len ezagutu dugun zerbaite-na esan diteke; baiñan Iainkoa ez dugu ikusi, ez ezagutu. Beraz, ezin gogora ekarri ba-dalazko siñestapena baizik. "Iainkoa ez du iñork ikusi; Aitarene eltzoko Seme bakarra mintzatu zaigu Arengaz".

Iainkoa siñestez eta maitaro gogoratzea esan dizut -arek- eta aski da: "Memor fui Dei et delectatus sum": Iainkoaz oroitzeak atsegiñez bete nindun.

N.- Ni ere luzaro egon nazu aburu ortan; baiñan begizale orien bildur nintzen, otoitz bikiñ ori kaxkareraziko ote nien. S.Agustin aundiarenean ikasi nun, "nere orōipenenan bezain ongi ez dut iñon ikusten Iainkoa", ez begiz bezala, ez belarriz bezala. Zenbaiti iduri zaie Iainkoa alde guzietan ikusten dutela, luze-zabelak litun gisan. Neurri eziña dala. zeruen zeuretan kokatzen ez dala entzutean, iduripenak engañatzen ditu. Iainkoa ez dago luze zabalean; ez da neurri eziña neurtzez ezin buka ditekelako; neurtzen asi ez gaitzekelako da. Neri S.Agustiñ'ek on aundia egin zidan. Zoaz aurrera.

El.- Iakiña, oroitze ori ere ~~arek-~~ ikusiaren, entzunaren, ukituaren, usmatuaren, naiz atsegiñaren berritze bat bezala da zentzu bakoitz orien idurimenean; baiñan emen entzunera lo dezagun, ots, siñeskizunak dionera batez ere Kristoren itzera.

Geronezko argitasunak ere esaten digu Iainkoa ba-dala, ta egi 'au ondorioka arkitu dugu; baiña Iainkoaz oroitze bakoitzean ez ditugu berritzen argibide oriek bakoitza; geurok iritxi ditugun egi orietan, siñesten bezala dugu. Gizon lakintsuak maite du, bai, atzi dun egi ua zer bidez arkitu dun zearo ikustea; baiñan egi bakoitzak baliatzeko bide guzi oriek erabili bear ba litu, nekagarri litzaioke. Maiteago du, labur oroitzuz, aurrera egitea; baita ere, arkitu dun egia soil soilik gogo-ematea, ondoriorik atera gabe.

N.- Ortaz, gure siñesterik ez dun norbaitek ere, Iainkoaren berri ukan ezkerro, otoitz bikiñ ori egin dezake? -nik.

El.- Ez ain luzaro -arek-, eta ez siñeskizunak irakatsiaz baliatuz bezain ongi. Siñestuna ere ezin dagoke ordu ta ordu otoitzaldia ortan, Iain-

koaren laguntza bereizia gabe.

N.- Nola egon luzaro -nik- geuron indarrez eta alegiñez?

El.- Ederki diozu geuron indarrez eta legiñez. Au adieraziko dizut alik argien eta garbien, gizonak ez baitezake ortik aurrera ezer erakutsi. Iainkoaren ixurizko otoitz bikaiñ ori, Berak irakasten digu, eta ez daukagu ezer egiterik geurok geuren indarrez iritxi nai dugunean. Antola batzuk egin, bai, Berak eman nai da ligu.

N.- Eta zer antola dira oriek? -oriek-.

El.- Eta, Siñestek Iainkoz esaten esaten digunau oroitzea, ots, Iainkoa ba-dala, ta berekin gauzkala bion artean terterik edo bitartetik gabe. Au e soil soilik gogoamanez, Iainko onengana maitaro egotea da otoitz bikaiñez ortara irixteko bidea.

N.- Zer alde dago otoitz onen eta bikaiñen orren artean? -nik-.

El.- Eta, ez dakigula. Bi orien muga non dagon sekulan ez dugu ikingo. Geroago mintza gaitzake ortaz. Ba dira zenbait, ordu bete, bi, iru, lau, atertu gabe, Iainkoa oroitze soil maitetsu ortan egon oi diranak.

N.- Begizale oriek nekez siñestuko dute, ortan lau orduatertu gabe egon eskero otoitz bikaiñena ez denik; baiña grazi ori dutenen artean otecan daudenak ere ba ditugu.

(-nik-) (-arrebak-).

N.- Orten eta orrela ezer egin gabe egotea? -nik-.


El.- Iainkoa maitatzen atertu gabe egotea ezer egin gabe egotea al da?

N.- Alperkeri dala ere asmatu baitzuten; -nik- baiñan esan nai nukena, ezer eskatu gabe, ez Elizaz, ez lagun urkoa etaz axolatu gabe egotea. Irakurria bainago bat edo batenean, eskaria ez dala otoitza, edo otoitza ez dala eskaria.

El.- Iainkoaren itza bestera dago -arek-; "aska, bila, io atea" dio Iainak Ebangelioan. Eta Iondoni Paül'en agoz: "Zuen otoitz eta arren guzietan, eskerrak emanez, adierazo izkiozute Iainkoari zuen bearkizunak". Otoitza, berez, eskari da, ta ez alde batera uztekoa; baiñan otoitzaldi bikaiñ ortaz landa ere egin diteke. Orrek ere ez du galeraetzen Iainkoaz maitaro oroitze ori, eta surren-berrian galerazi ba leza, utzi Iainkoari gure kezka; Guk

naia Arenarekin bat egiñarazten baldin ba' dugu, agoa zabal dezagun baiño
len, Berak emango digu. Zer esan Iainkoa sutuki meitatzen ba dugu?

N.- Atertu habe Iainkoa gogoratzuz eta maitatzuz egotea, esaten errex
dañ Iainkoazko egi bat buruan iraultzea ta aren inguruan ondorioke iardutea
baiñon errexago esan diteke alde batera; ontan sorraldiak izan oi baitira,
egi batetik bestera goazala; baiñan ori ere gauza zaila dala diote.



21

64

("Euzko Gogoa", 1.951 gko. Orrille-Garegarrilla; 26-27;
Ormaetxea'tar ~~Andino~~ ("Orixe")).
Nikola

ON ETA EDER

Eder ez da Egi, ez On, bai bien arteko jarloko. Adimenak egia du jomuga, ez berez gezurra; naimenak ona, ez berez gaiztoa; atsemenak, nolabait esan, ederra. Egi-antza, ta on-antza, arlo zabalagoan dauzkagu egia ta ona bano, zentzuen menpean baikaude. Ortaz, gezur-antzer ta gaizto-antzer a-
gin dizagukete gaizki eziz.

Egi-antzean ta on-antzean daukagu eder-iturria, Egi eta On len dira-
la. Onetik eta egitik ez datorke gauza gaiztorik; egi-antzetik bai gezurra,
on-antzetik bai gaiztoa. Egian eta onean geron adimena ta naimena nolabait
ikusten ditugu. Obeki ikusi nai ordea, ta egi-antza ta on-antza duten gauze-
ta ere balia nai, geron burua, geron barrena ongi ikusi naiez. Ez naski ge-
rekoikeriz. Askotan besteren antza artzen dugu, batez ere onean. Egite bi-
kain askoren jabe gerok izan nai genduke.

Jainkoak egin-ederra ta guk egin-ederra ein batetsuan ikus ditzake-
gu. Jainkoak egin-ederrik oro, Bere aztarrena du beti, gauzerik kaxkarrene-
tan ere. Zenbait gauzetan; guk ederren derizkiegunetan ispillu ere bai, gan-
duzko samarra izan arren. Antza bai beintzat, "ad imaginem et similitudinem"
egiak baikaite. Jainkoak ez dezake Bere ispillu garbirik arki, beraz kanpo-
stera ditun gauzetan; bai ordea aztarrena. Guk ere, gerok egin gauzetan, ba-
tez ere antzelanetan, geron aztarrena billa nai dugu, ta al ba gendu, ispi-
llua.

Gizonak ez dezake antze-gauzarik sortu, bere buruz beste ditun gauzetaz baliu gabe. Bere buruz-besteiko gauzetan isuri bear du bere antza ta antzea ere. Jainkoaren antzekoa da ontan. Jainkoak beregandik kanpora mundu-~~za~~ au eginki, bere buruaren antza-urrutitxikoa bederen-ezarri zion.

Eder eta On elkarren lagun aundi dirala ager-beerrik ez dugu. Ortaz, eder-lanak eta on-lanak-otura onak-elkarren kide ditezkeela aitortzea, ez da aundi. Ez omen, ordea, zenbaitek esan digutenez: antze-gauzak eta oiturak ez omen dute ikuskizunik edo ar-emanik. Antze-lanak edo eder-lanak bere buru omen du begira-muga, ta beraz ez omen da beste ezereen eta iñoren mendeko. Hero azalduko baitut "l'art pour l'art" deritzaiotem esan ori, orain ager dezadan gezur xuri au: antzea ta oitura bi gauza dirala ta beraz ezê dutela ar-emanik alkarrekin.

Emen beraz dionak ez du bere denboran logikarik ikasi, edo aztu egin zaio. Antzea ta oitura bi gauza dirala. Egi aundia. Zeren eskubidez atera ditekete, ordea, beraz elkarrekin ar-emanik ez dutela? "Au ta au bi gauza dira, beraz elkarrekin ar-emanik ez dute" esan al ditekete? Ederra gauza bat da; bere mugak ba ditu. Ona beste gauza bat da, bere mugakin; baña ez al dira auzko samar? "Ardo eu ona da" dionak, zerbait dio; "ederra da" dionak, ez du lengo-arenik ukatzen, emen ona ta ederra elkarrekin ar-emana edo ikuskizuna duten gauzak baitira. Ortaz, beraz, ona ta ederra bi gauza izan arren, ar-emana ba duteke. Adierazi dezagun astiro.

Ar dezagun gizon bat. Urtia mendizale da, ta baita kristau ere. Mendizale izateak, goiz goiz igandean ere mendira egurastera igotzeko agintzen dio; baña kristau izateak lenik meza entzutea agintzen dio. Mendizale izatea, ta kristau izatea, bi izate ditu, baña bi izate oriek ba dute beren eskubidea ta beraz ar-emana gizon batengan.

Ni bat naiz, eta idazten ari dudana luma beste bat: oso besterik. Ala ere ar-emanik ez dugula norik esan dezake? Luma ta tinta ere bi gauza dira, oso bi gero; bata zurezko, exurrezko, urrezko edo gogorra beintzat; bestea

isurkaia, uraren antzekoa. Norik esan ordea ikuskizunik ez dutela? Lumenen, tintaren eta nere artean, iruron artean etera dugun letra, gugandik oso besterik da. Norik esan, gurekin ar-emanik ez dula? Ortaz, gaizki esane dago, gauza bat eta beste gauza bat oso bana diralako, ikuskizunik ez dutela. Ondore ori, logikarik ez dakinek ateratzen du.

Esan beza nai dunak: "jakintzak ez du ~~ikuskizunik~~ ikustekorik oitursakin; matematikak naiz pilospiak ez du ar-emanik oitursakin". Bedi; buruari, adimenari soilik baitagozkio; antzelana ostera, biotzari, naimenari ere ba dagozkio, gizonaren atsegiñerako baita, ta atsegiña naimenara sartzen dan gauza da. Jakintza egi billa baldin ba dabil, antzea atsegin billa. Beraz eder danak, atsegin danak, antze-lanak, ba du ar-emanik oitursakin.

Jainkoak egin-gauzak, eginak diranez, elkarrekin ar-emana ba dute, guziek Jainkoa baitute azken-muga. Gizonak ez ezen, gizonak egin-lanak ere ba dute beren begira-muga, naiz gizona bera, ta aren bitartez Jainkoa, naiz bitarterik gabe, Jainkoa.

Egi, On, Eder, gizonak iru etxeko ta barrango ditu. Gezurra ez diteke berez beñere eder izan. ez ta gaiztoa ere. Gizonak sortu-ederrak egi-antzabear du. Gaiztakeria berez ez da edergarri, inoiz ontasuna areago nabari-bearrez edo ez ba da. Egi-antzak zenbait aldiz gaiztakeria ere agertzea eskatzen du, ez ordea artara eragitea. Gezurra ere par eragiteko edo, edergarri diteke zenbait aldiz.

Egia ta Ona ditu gizonak bearrenik. Ederra oietatik sortzen da nolabait. Egi ta On dira dira aizparik nagusienak. Eder aizparik txikiena dute, alaba ez ba. Egiaren eta onaren erdian bezela dekusat nik ederra: bien dir-daietik sortua. On eta Eder, aizpa ez ba dira, ama-alaba dira, ta alaba orrek ama orrengandik bular-goza artzen du. Eder'ek ez du asmozat edo jo-mugatzat Oitura. Ala da; baña zuzen begiratzen ez ba dio ere, zear-begiratu bat ematen diola inork ezin uka. Nere ustez, egizalea berez bikaiñagoa da ederzalea

baño; on-zalea areago. Homer baño Aristotel aundiagoa; biek baño Xabier
areago. Egia bera zenbait aldiz eder da; ontasuna areago.

@@@@
@@@
@@@
@@@
@@@
@@@

("Euzko Gogoa"; 1.950' gko Orrilla ta Garagarrilla; 14-16 or.)

(Ibinagabeitia' tar Andina)

J. S. B A C H

Arbasoak

Yatorriz zekarren gure Bach'ek ereslaren indarra bere zainetan. Amaseigarren euntarotik bere arbasoen artean, Bach izenpean ain zuzen ere, zenbait ertilari loratu ziran. Baina Jon Sebastenen arima, ereslariek batez ere goganbeartu zuten. Izen aundirik ba'zun garaitikoen artean: Jon Kristobal Bach eresgille trebea Eisenach'en organulari izana eta Jon Mikel Bach, au ere Gehren go organulari antzetsu ta bipila. Jon Anbur-tzi biolinari azkarra zenuten eta Erfurt'en erriko musikari izateko tokia eman zioten. Ementxe, 1.671 grnk. urtean, Elisabeth Lammerhirt'ekin ezkondu zen. 1.671'ean Eisenach, Luther'en errira, aldatu ziran. Zortzi seme-alaba izan zituten. Etxeko gaztena Jon Sebasten BACH 1.685 garreneko Martiaren 31 garrenean yayo zan.

Etxe-giroa ere musika-kantuz inguratus arkitu zun gure ereslari aundiak. Egunero, etxadi artan, seme-alabak, gurasoek lagun, eresaldi goxoenak zemaizkiten, bakoitza zegokion ereskiñeri lotuta. Anai-arrebak zoriontsu onek seaska-ertzetik ereskin ezagunenak laztandu zituten: naiz txirula, naiz klabiera, naiz biolina dagozkion neurri guzietan, ezagun ezagun zituten. Or ikus, nola gure Bach'ek, oraindik gazte zalarik, ereskin bat bederaren ikkutu, izkuntza berezi ta mintoa barne barnetik zezagutzin. Eres-paperean soñukin bakoitzaren oiu, zinkurin eta ametsak ixuriko zituanak, ala bear ere, noski.

Gazterik, ordea, Jos Sebasten'ek gurasoak galdu zitun: amar urte bete-ala. Anai nagosiak gaztexoaren ardura bere gain yaso zizun,

Jon Kristobal'ek. Ereslari trebea zenuten orduko, organulari otsandikoa ere bai eta bere aipua eginga zuan Jon Sebasten ardurapean artu zuanean. Ereslari nagosien lanak ere zain-zanetik ezagutzen zitun. Bere bildumetan maitasunez idatzirik zeduzkan Pachebel, Froeberger, Kerl eta beste eresgille aunitzen lanak. Bach gaztetxoak orduantxe bere begiz musikalan aipatuena irakur eta arakatu al izan zitun.

Amabost urte egin zituaneen ordea, askatasun-azkura bere barnean nabaitu zuen eta anaia utzirik Ohrduf'era kantari bezela joan zitzaigun, ango Michaelis-~~Shul'era~~-Shul'era. Ementxe, batez ere, Korala ezagutu zuen, baita XV-XVI gerren euntarotsko polifonilarien lan aipatuena ere; Viadana, de Lassus eta beste zenbaitenak.

Gerora, Doisländ'eko beste uri askotan ibilli zuan, ango ereslarien nabastarrea iritxi ere bai. Batzuetan kantari, bestetan biolinari, noiztanka txirulari, ereskin guziok, arestian esan bezela, mûin-muinetik ezagun bai zitun. Baina bere neurri osoa Arsntadt'en eman zuen, ango organu ederraz yabetu zanean. Garai artakoak diotenez, Bach'ek antxe aberastu omen zuen bere organu-teknika arrigarria eta Alemaniko organulari ospetsuena izatera iritxi ei zuan. Emetik Mulhausen'era aldatzen da ango organulari kokatzeko. Geroago Weimar'era eta andik Gothen'era Kapera-maisuagoa (Chapel-maister) artzeko.

Ordurako aririk zegoen Jon Sebasten gaztea eres-lanak idatten eta inguruak arritu ta arrotzen. Leipzig uri ezagun aundira diyoa eres-zuzendari (director musices) izateko. Orrez gainera Thomas Schul'en Kantari (Cantor), au da, ikastetxe artako koro-zuzentzeke izendatzen dute, baita ere Unibersidadean eres-irakasle ta koro-zuzendari ere. Beraz KANTARI AUNDIAK, bere gogo ta sofaren izari betea uri onetantxe g~~a~~ emango zigun. Atergabe lanean, tai gebe eres-lan berri ta sakonak idatzen. Aren aipuek goi-mailak ukitu zitun, eta Postdam'era ere, arregesaren yauregia, ots-egin zioten zenbait eresaldi adieraz zezazkien. Ederki erakutsi zizkien bere musikaren gogo sakon eta giar sendoa.

Berriz ere Laipzig eratu zan eta Yainkoaren gorasarrea gogo-andiz eta erti bikainez kanta ondoren, egileari arima biurtzeko garaia eldi zitzain

Gaixo, erball itsu zelarik, azken-atsa Yaunari itzuli-urrean, oeburitik azken ereslerroak, azkenengo koralarren neurri ta armoni nare ta sakanak yaulki zitun, bere suin Altikol ek paperean ~~gaitz~~ maitasunez eta lotsaz yasotzen zitun bitartean, ondorengo itzak gaitzat arturik, bereak suek ere:

Yainko ona zure aitzinean
agertzera hoa.
Naizen au, osorik, zuri nagokizu,
Zure antz-ederra itzul niregana,
Ordu ontan Yauna ez uka grazia.
Nere azken-atsa onetzkoa bedi,
Iratzar nadila Zure aurpegiaren
so bete-betean, beti ere
ezagun zaitzadan.
Amen, amen. Zure nsi gurena
egin bedi Yauna!

~~gaitz gainstaik zabaxeraz KANTAKI ZUNDIRA pen berrikasid~~

@@@@@@

@@@@@

@@@
#

.("ARRANEGI", Erkiaga.....)

Goizaren soñña billozik egoan ipar aizetan. Izadiak irriparra eukan begitartean eta usotxoan urrumak errez entzun eitekezan isiltasun haren kolkoan.

Neska-mutillak elizara bidean ioiazan. Neskatillea, urrunera begira, ta mutilla honeri begiratzen ausartzen ezta, Zumardiraiño heldu ziran.

- Ba al dakizu zuk gauza bat? -esan eutsan batbatean mutillak.

- Zer, gero?

- Txoriak dakien kanta hori nork irakasten ete dautsen. Bataren kantuari besteak horren errez sumatzea ta igartzea! Ezerezetik sortzen ahal dira kanta horrek? Amesetan nabillela uste izaten dot nik neuk, sarritan; baiñan amets hori itzarrik hagola egiten dodanean, sinistu egiten dot.

- Zer dozu, bada, amets hori? -iñotsan Zuriñe-k, entzun nahirik eta ez entzun nahirik, lilluraz ta bildurrez.

- Hona, Zuriñe. Ikusten ahal dozu han urrunean itsasoak eta zeruak bate-egiten daben ertza, lerroa? Horren antzeko dozu nire guraria bere: neu itsaso naizelarik zeruaren zatiari heldutea, oratutea. Ames hori iristekotz, itsas-barrura ioan ta ioan egin arren, muga hori eztot egundo esku-ratu. Iñoiz, heldu-hurren uste izanik, bertara... eta beti iges egin ohi daust. Ba al dakizu itsasoa nor dan?.... Neu naiz; Xirido da.... Itsaso latz, gogor, arriskutsua. Eta ez al dakizu zerua nor dan, edota, nor litzakidan? Zerua.... zerua.... Zuriñe izeneko bat.

Eta hori esanik, ganean eroian zama handi astuna lurrera egotzi izan bai luean, arnasaz bete zan, hatsandi egiñaz.

Neskatillearen masailletan koloreak dantzaketa zoroan hasi ziran. Zumardira helduta, Abaroa zaldunaren arrizko iduriaren ondoko arri-pillaretan gelditu ziran, eta esion gaithean besoak tolestuz, urrunera begira egozan alkarri so-egiteke.

Xirido-k aspaldian bolbol erabillezan gogoetak bigunjiro kanporatuaz, azkenean, bere barruan eztanda ez egitea lortu eban. Bare bare gelditu yakon barrena, ekuruz bete, denfuz losia, Tala-aldean ebiltzan kaio zuri-arreak orekan geldi ohi diran bezela.

Zuriñe, ostera, amaika bidar ezereztzat utzitako ames gozoak egia bihurtu eitekezala ohartutzean, konorta erdi galdurik edo, tentel samar egoan, barruko taupadak nekatua.

Plazako zugatz-ostoa orbeldurik mordoka lurreratzen ziran aroan, gazteon maitetasunak lenengo kimu ta niniak izateko zori zoritsu eban.
-Benetan al diraustazu, Xirido? -galdegin eutsan lagunak zertxubait adoretu zanean.

- Iaungoikorako! -erantzun eutsan mutillak baketsu ta sendoro, errantzale bulartsuak ohi daben hizkera gozo ta artetsuz.

Hori entzunik, zeruan sartu zan neskatu urrezko uleduna; eztitan egoan, eztegutuan arean bere, nahiz eta kanpo hainbeste ez agertu.

Zumardiko ta Loretegiko zugatzetan milla txorik eten zituen ezterriak maite-kantak loten. Uhiñak, Karraspio ta Izuntzako ondarzabalak begiztatuaz etozan itsas-barrenetik, legorraren ezpanak atergabeko iardunean lantanduaz.

Izadiaren maite-abestia zan.

Egun batzuk lehenago Zuriñe-k Lumentxa tontorretik ikusitako aurkientza eder baketsua, haxe zan. Bere sorterri polit zoragarria, bere ametsen tokia, maitetasun-kabi epel izango zan, ziñez. Etorreko zana, heldu bide zan. Behar eban laguna, urreratua zan. Aldameneko izango ebana, alboan eukan, ta ~~maite-kantak~~ maite-itz erionez samurturik, hatan bere.

Olerkariak, geienik, illunabarreen dakiez loten maite-minduen zinkuriñak; arratsean ei dira alkar-beharrez diranen aitorpen bigunberak. Baleiteke

73

- 3 -

Baiñan alkarren billa dabiltzanak edonun eta edonoiz dakie barruko min eta gurariak agertzeko beta eta ereti egokia surkitzen, iturriko ur gardenak maite-soiñuketan gauzez nahiz egunez isiltzeke iardun ohi dauan lez.

```

oooooooooooooooo
  oooooooooooo
    ooOoo
      oo

```


24

74

("BIZI NAI", A. Salvatore Michelena)

ATAURREKO

Obe izango zan, bearbadax poemaren III zati au I ta II
kin argitara ba litz. Yendearen gogoko izango zan, eta lozorroaren
ernarezgarri. Zer esanik ez, berriz, poemaren oro-tankerak asko
irebaziko zula gain-soiñeko onekin.

Artarsko, banun gobernuaren edo gobernutar baten baimena.
Baiña, damurik, ez nintzan ausartu. Gela arrisketua zalako, esa-
mesak eta agian salatak ere sortu zitezkele-ta, ez zitzaidan zuzen
iduritu baimen-mesede egin zidanaren agintea ta uste ona koloka-
reztea.

1.949 ezkeru ("Arantzazu" argitara zan ezkeru, alegia)
yendearen suminkortasuna spur bat baretzen doala ematen du, ta sa-
latalari-arriskua zertxobait urritzen, setakeriari artu diogun naz-
kari eskerrak. Ala uste dugu, edo uste nai beintzat. Arrezkeru,
sortu diran euskal giro nebermeneko beste libururik. Oientzat
orten ez da muziñik izan, zorionez. Ez al da izango BIZI NAI onen-
tzat ere?, irrikez galdetzen nun nik, itxaropenari leioak zabalduz.

Bestalde, berriz, zenbait adixkidek ez ninduten pakean
uzten. Amer-ambin bat kopla ateresk bae omen dituzte, nere azya-

75
kiñean. Tai gabe eskatzen zidaten Ibar'ek bein idatzia: "nik esan bear ba'nu, e'tzenduke luzerago izkutuan eduki bear, poemsren sailik deigarrien dezun orixe". Berebat, Prantzitik ibilli naizeneko udara ontan berotu didate maskarra, lengoz gañera.

Orrenbeste igurtzi ta loxintxekin, azkenean, esia ertu dut eta, bildur-zelantzak astinduz, emen natorkizu plazara... Zezen ala toriatzaille? Nik el dakit, geroak esango. Nere gogokako, orratio, ez bat eta ez beste. BIZI NAI gutxienik orixe gogo dizu: zezenke-ta. Ta geienik orixe bildur: aderra yoko ote dioten.

③ ③ ③
Sinistuko el didate, susmo txarrez nondik arrapatuko le-tozkidaken eta beti izaten diran irakurle aiek ere. Nik ez dut emen iñortxori miñik emen nai izan. Orregatik karlistetako gerratean tinkatu da BIZI NAI, ia gelago luze gabe gure egunetara, gaurko sentipen larrianak antxe asbenakin kokatuz. Bitars yarriak datozen gaurko euskal partiduen batasuna bidegurutze artantxe bakarrik topa eta kanta bait-diteke. Arabera, egiñale guzian saietu naiz iñor ez minberatzen, arloe txirristagarris izanagatik.

Desagun: egon diteke emen ikuspegi okerra. Egon diteke maitasun geiegiaren lillura, atsekabe aundiegiaren itxumena; edo, baita, zirritu bakarretik dakusanaren ertsikeria. Baño ez, arren, iñorenganako igui, iruzur edo beste orrelako txarkeririk. Nolansire beintzat, barkakizun ditezela, maitasun geiegiak lekerzken ajeok.

Euskaldun ilzorlok gure gauzei ta pertsoneri zor diegun ongineia ta leguntza, ori baitipat erbilli ta suspotu bear dula derizkiot gaurko literaturak, politika oroz gaiñetik, euskaitasunari eutsi nai ba'dio. Batasuna billa ta ez aiderdikeris; alde bat eta

besteko utsegiteen barkapena erein eta ez kontrako etsaikerien zabalakunde zalapartatsua. Bi aldetarako partiduak daukagu ortan zer ikasi, ta zer damutu. Adibidez, zehbait abertzale ez gaitzela billakatu aberri-ausle, arrazaren izanari alderdiaren izena obetsiz edo lenetsiz. Ein ontan ere, egia bait-dugu arako ura: quod caesaris, caesari; quod Dei, Deo. Euskalerrri lenego, barruko edozein alderdi baiño.

Iltzen dagon emari laguntzeko orduan, seme aserratuak adiskidetu bear dute ta beren arteko liskarrak aztu. Inoren utsegiflak gogoratzekotan, norgereak aitor. Gero, dana galdutekoan, errezena bait-litzake Pilato-rena: eskusk garbitu ta auzoari kulpa.

@ @ @

Besteak beste, neri Isaias'ena eskatzen zidan barruak: gurutzeren eraman duten Baten eriotza aldarrika. Eta Yeremias'ena: intziri-mintziri illeta yo, pesimistegi naizela dasatenei entzungor.

Pesimistegi! Ta ez dizut ukatuko arrazoi-erdi, adiskide. Neu ere irrikatzen nago, irrikatzen, beste zerbait alaigarriego egunen batean antolatzeko. Alare, nik zuri ta zuk neri, arrazoia erdibantzea dukegu zuzenena.

Tori lenbizi zuretzat. Neroni ere tristura galanta ematen bait-dit, poemak onen larri buka bearrak, noiz eta orain, Arantzazu eliza-berriz, yazen ari zaiguneko ontan. Oraitxe aurki izango dugu Arantzazun, Y.l., inoizko basilika ederrena, lenago erroiztutako txikiaren lekuan eta ordez. Eta praille kentsauriarrok ez dugu nekerrik barkatuko, alegin guzian saiatzen ari gera, orain arteko elizaxoaren arnasa ta euskaltasuna berri onek ere oifordetu ta luza dezan itxaso ta legor, izate ta erti, eliyio ta yakite.

Sortarriatzaz ere tori nai duzun aifla arrazoi, ta bat. Urte-tik urtera kaleak edertzenago, biztanleak ugeritzenago, bizikere ya-

sotzenago, fabrika-olak lan geiago, kirolketan nagusiago, kanpotar-
rengandik txalo areago...

Baño, ez uka.... erdera ere yabetzenago. Bat bezela bes-
tea. "Amaya de asiera": daseigu Billoslada k VIII garren mendea-
tzaz; giño ontan, gaurregun alderantzira bildurretsi bearra gendu-
ke: "asiera de amaya". Euskoterriaren asiera, Euskalherri zarraren
amaia; Arantzazumere Basilika berriaren asiera guk ezaguturiko eliza-
txoaren amaia izan dan legetxe. Datorrenari, ongietorri; baiño di-
yonaren azken-agur orrek ez dit batere pozik ematen. Are poz gutxi-
ago, berriz, lur-ematerakoan zenbaitzuk egotzi nai dizkioten bi-
rauek eta dongeltsiek; ots, erdaldundu izan geran neurrian "zibi-
lizatu" izan gerala, alegia, euskera bai-litzen yakiterako oztopo.

Ondo poliki azaldu zidan bein gure Iratzeder mistikoak:
* "zeruan, zeruan erdietsiren dugu elkargo ederrenean gure Euskal-
herri". Egan zuzaren ezpañeten, bai zoragarri ateraldia! Baiño ar-
keradunon oronaiak, baezpadan...., Alta-gureko amets eta gogo:
"zeruan bezela lurren ere".

@ @ @

Milla bider lasaiago biziko giñan; ez giñan ain aguro
gazteartuko; erriz-erri gabiltzala euskeraren atzerapenak aztertzen,
ez genun naigabea naigabearen gain pillatuko; baldin, biotzari
beingoan tiro bat emanda, euskaltzaletasun ori utzi izan be gendu,
zenbaitzuk euskaltzale izenekoan artean berten ere, egin duten beze-
la; mingañez goraipa te praktikan ostikoka uxatu, arik eta urru-
tiñ. Zeuk topa ditza kezku, irakurle maite, amaikatxo guraso, oso
abertzale arrandiz eta arpegiz, surrei Euskera irakasteko lain ar-
dura ertu nai izan ez dutenak.

Ta gero, oietxek etorriko zaizkizu esanaz pesimistegi zerala, beren aspaldiko axolaksbeak iltzatnemana iltzen dagola izuz diozulako. Bai bizkorrak, azalzuriok. Gu giza jo gu, sentipena ezin itoz ora indik biotzerekin pentsatzen dugun Kijote ez bestelakuok. Biotza igo zaigu nunbeit burura; argatik gauzkate erotzet.

@ @ @

Azalkerian, itxurakeri ortan, yo bear dugu gure nai ta ezin aren etsairik txarrena, ta gaurko gizadieren minbizi zabalena. Itxurá gorde ezkeru, gaiterakoak ez bide-du balio estul bat. Ederrik ederrena dedilla ataria, naiz sukaldetan eltzeak oliorik ez. Zuri-gorria dezala segerrak ezela, naiz barrutik errak yena egon. Yakin-tsuarens egin, naiz ez izen. Zintzoarens egin, Españi-zale edo Euskaltzale-arena egin, naiz kontrako senti. Ori da buruz yokatzea. Ori, gaurko mandamentu bakarra. Itxura, itxura. Ez dago itxura bezelako mutilik, ez bestelako garaipide edo "éxito"rik, ez politikan, ez ertiketan, ez erlijio-gintzan. Ta "amen-Yesus" derantzu mundu guziak bere kolkorako. Ume gorriak, begi bat iriki orduko, ikasia dute filosófi orren protxus ta bost. Ta zuk ezetz diozula, irakurle? Erruki zaitut. Aurki ipiñiko zaituzte zu ere "esto txuri baten gaitheen", gurekin bat geiago Sante Agedarako.

Nere baitako Santagedan, orratio, ez da berealekoan "amen-Yesus" ori errezatuko. Euskerak kilo gutxi irabaziko dula nago izu arau ortako errebero-aparrarekin, urrezko katilluan edanagatik.

@ @ @

Gagozkion zintasuneri. Zintasuna euskaltzalean. Zintasuna ertigintzan ere. Gatozen, bada, orain ertigintzara. Zintasunik-eze peka-

tu aundixkos bait-dugu arlo onten ere.

Zenbait estetika-liburuk detsaigute, geurko ertigintzaren krisi ezaguna (musikan, margozketan, irudigintzen, elertian, zernaitan) teknika gelegiatik dala, teknika gelegiak gotargia presatzen eta itotzen dulako dala. (Ez teknika ta ez eze gabeko ~~gotargiazpresaz~~ ~~erri-~~ izeneko berrikeri aztu ezker), egi derizkiot baiña ez zuzen esana. Ez dago teknika gelegirik, bere yomugatik okertzen ez ba da. Yomuga edo eginkizun ori betetzeko, ordea, leio-kristalaren gardena bear du teknikak naiz estilok: eziñikusiago ta ordun be. Etxebarrutik kanpora begira gaudenean, tarteko daukagun leio-kristala badanik ere konturatzen ez ba gers, ordun da leiarra bere eginkizunean yotorrena, oberena, miragarriena. Orrela bear du ertigintzak. Orrela erlijioak. Orrela benetako politikak ere, ~~Sor~~terriaganako maitazareen zifia izen nai ba du. Ezin ikusiago ta obe.

Ez esan, bada, gure yendeak teknika zaillik ez dula nai euskal-liburuetan. Zailla ez-ezik zaillena, teknika gorena, eskatzen digu idazlerioi: norgere burua zearo izkutatzerañokoa; ezeren lausorik, trabarik eta aldapagorarik gabe, gotargiari (ta irakurleari) bidea errezten ta argitzen diona. Ar zagun lege: ez nekak eman irakurleari, baizik norberetzat artu idazle bakoitzak, arik-eta gelegirik ez dun erreztasunzail ori lortu arte, lanaren lanez eta abildadez.

Gure artean oraindio askotxo dira, artikulatu bat, sisa ulertzen dutenean, arintzat, illuntzat jotzen dutenek; eta ulertu ez ba dute, edo beintzat nekearen nekez zerbeit ulertzera iritxi ba dira, ordun us sakon, berak bai al dekite gaixuok, noraiñoko kaltegerri zaizkigun. Bai gauze bait-dira, oso bi, illuntasuna ta sakona. Oso bi, klarua ta arifia. Milla bider errezago bait-da illunki idaztea, zoli ta gardenkiro baiño. Oiarzun-sagardoaren dirdai-barbarra zolia lausotzeko asko dugu edontzi edo baso zoldatsua ez garbitzea.

Edota, edontzi zikiña zikin eskaintzea ote dugu, ba, ain zuzen, er-
tigintzaren meritu gorena?

Gorendu bai, ari dugunez gorendu ta yaso ta aberastu deza-
gula gure idazketa gaurko ertikera berriaren moldera ta maillara.
Baiña ez dezagula galdu Bilintx baten biotz-ixuri aratza, Otaño-ren
unkigarrizko zer ura, bertsolarien berezko etorria ta gatza, lapur-
tarren edersena ta eufoni delako ori, Arrese-Beitia-ren arnasa ta
galda, ta, gainera, galaren "piper" pixka edo delgarria. Bestela gu-
re erria lengo maixu-erdi-malleko oekin geldituko zaigu, surrera-
penik edo obemiñik gabe; edota, su makurrago, idazkarion buru-yimna-
si biurri nabarmenari igesika, erdal liburuetara yosngo zaigu, bedoa-
kigunez, eñito-tarren tipula billa... "Petierunt panem et non erat
qui frangeret eis". Aitor zagun norgere errua, besteena bestezantzat
utziz; eta euznar, Eidasoz onuntzakuko beintzet, Aleixandre-ren
irakatsi su, euskaldunontzat ezin obeto datorren skarra ta solkua:
"erriarentzat idazten ez dun idazlee suizida bat da".

@ @ @

Ta aski dut onezkero. Estetika-gaiok, eta estetika uña ez di-
tanok, "Au ta ura" liburuen sakontxoago zederritu ta erabiliko diz-
kizut patxera zabalagoz. Liburuxka onen neurri txikiari ez dagokio
itzaurre luzerik, eta bai, ~~zuzen~~ onako agoni-deadar etengarriari
zintasunezko mindura, mindura ixil eta egikorra.

Ez nintzaizun ausartuko, irakurle anai, geure arteko akatsok
aitatzers, premizko irudituz bez balitzaida. Neu bait-neiz kulpadun,
beste edozein aña. Ezin txuritu dut nere burua, batzuentzat erri-
koñegi ba ñaiz besteentzat gorenegi omen nabil-eta. Bi oartxo eman
nai nizkizun itzaurreon, soilik: zergatik berandu ta zergatik ain
negarti datorkizun BIZI NAI, alegia, ta luma lgei yun zait esitik
kanpo. Ta bi oartxo okin arren bat ere bai irarri nai zun. Irarria

dut, baezpadan: ots, ez dezala iñork artu edo salatu alde okerretik onako euskaltasun apoli tikoaren garraztasuna eta asalda urduria. Iñoren kontra ekin bearrean negar ixillari demaion olerkariak (eta olerkariarekin, batez ere Erri gaixo onek) beti merezi bear digu, arrazoi ez ba da ere, beintzet kupira.

Erri gaixogorik...! Iparragirre batek eraman nai izan zun mundura bere oñszez; eñtzioten ulertu, arlotetzat yo zuten. Santa Kutz apaiza, Zumalekerregi... saia ziran alegiñe bere alde; batek atzerrira iges egin bear izen zun eta besteak gudian yausti. Usenditzaga, Abanditerra, Lizardi, Loramendi, gure Aita Leta..., danek gazterik il, Yesukristo antzo, zitu ematen esi orduko. Lurrean etsia gailen; eta goien zeru goibela ixil; Eliz-Jerakkiak, aldiz, bekozkoz. Lau aldiz guduari itsatsi; ta lauretan eskumuturrak zirgillagotuago. Yabetasuna galdu ta erritsauna zabertzen. Illobi-zuloak dagozkie, herriz, nuntitik zemaigarri. Itxaropen bakarra Andre Mari-gan dakuskiot soilki. Ogei urte onten entzuten nagokie Mendi Santuon:

-Baiña Zugandik alde
biotzek ezin du;
Zuregana diyoa
Zugan bizi nai du....

Bizi nai du! Gaurregun Arentzazura erdaldunik gutxi doakizu, turista antzo ez ba da. Ara diyozen erromesak arrezaren ondakiñak dituzu: nekazari, arrantzale, langille yende, ta olako ezandizkiak geinbat. Ta zer nai duzu?, oien aboan deadar orrek, BIZI NAI orrek, negargura eman izen dit neri, ta poemagille sentieraz niñun....

Kristo ren eraille yudatarrei berai beti zillegi izan zaie illeta-eresia, Yerusalem seneren murralla zarrean burua etzanda. Eta

Arentzazuko praille gizajo oni, eroetsi bati, olerkari miñeritu bati, ez al zaio utziko, gure ta aurrekoen malko-zapi izandako basilika xer erroiztu ontatik erostari, negar yotzen euskal-agoniari buruz?

@ @ @

Te bitartean, ez dut aztu nsi, Goliat zenkarra menderatzeko Dabid txikiari inderra eman zionaren itxaron-itza: "besti qui lugent, quoniam ipsi consolabuntur...."

poz. Gaur negar darigunok kanta dezagula bier, garaipenean,

oooooooooooooooooooo
ooo000ooo

25

83

("ALOS-TORREA", Etxaide tar Jon; 49-55 orr.)

Beltran gazteluratu zanean, jauregitarrak areto nagusian aperiten ari ziran. Beltranek morroiari bere nortasuna azaldu zion atea zebaltzean, baño etxekoai bere etorrera iragartzen etzion utzi. Bera azalduko zitzaieen ustekabeki.

Jangelara urreratu eta Usoari buruz ezer ezpailekikean ozenki agurtu zitun berak oi zunez:

- Gabon, etxekoak!

Etxekoak txunditurik gelditu ziran Beltranen abotsa entzun eta bere soña aurrez-aurre ikustean. Maikideak, zurbildu xamarririk, altxe ziran eta bat-batean biotzak eragindako pozaldiaren gezur-irudi egiñez, urreratu ziran bane-bana aita besarkatu ustez. Onek ordea, nazkak eraginda zapuztu zitun azalutsok eta Uso egon oi-zan leku utsari zorrotz begira, galdegin zien salakor:

- Nun da Usoa?

- Gaixorik datze. -Erantzun zion emazteak izukor.

- Gaixorik? Ez ote dago illurren? Enaramazute bertantxe beragana zai
-diotsa aginkor emazteari.

- Ez al-dezu surrena apaldu nai? Nekaturik eta goseturik etorri bide zera, gaixo ori.

- Gauza guzien aurretik ikusi bear det.

- Bai, Beltran, bai, ubertzen dizut. Elitzake egoki ordea zure alabek soñeko zar orrekin ikustea. Jantzi garbiak aterako dizki....

Etzun bukatzerik izan. Beltran konturatu zan bere emaztea luzapen alien bitartez denbora irabazi naiean zebillela ta beso batetik eldú ta astinduz esan zion zorrozki:

- Ez neri txintik atera gero! Goazen!

Senar-emazteak joan ziran zurubian gora Bela-Beltz eta bi aizpak alkarren artean zizaka gelditu ziran artean.

Lenengo bizitzara eldu ziranean, Otxandak bigarren bizitzara igotzeko zurubia artu zun. Beltran erriturik gelditu zan eta galdetu zion emazteari espatsu:

- Zertara nararamazu bigarren bizitzara?

- Ez al dezu Usoa ikusi nai?

- Noski. Baña ni gazteluan niñunean artean -erantzun zion zuketaren leuntasuna urratu gogoz-, Usoak lenengo bizitzan lo egiten ziñan.

- Orain azkenean bada -erantzun zion zakar bere emazteak bere okerkeria ezkutetzerik etzula ikusirik.

- Zer dion?

- Entzun dek. Ganbaran zeukat.

- Sorgiñasa!!!

- Entzun zak iñori irañik egin baño len. -Bota zun Otxandak dibruzko asmamen batek bere buruan argi eginda-. Aspaldi ontan eroaldiek izaten dizkit Usoak eta eskuan aiztoa, aizkora edo atzematen dikana artuta, surrena ikusten dunaren ondotik il bearrez joaten dek. Azkenengoan, oraintsu illabete bi, Xemenerean atzetik joan

uken eta Matxin alboan egokitu ezpalitzako, labankadaz josita...
- Etzen jarraitu, abo ustel orrek, bestela neronek josiko aut-eta labankadaz. Amaika eldiz iruzur egin didan bañan ez didan amabigarrrenik egingo.

- To giltza ta ikusi erorrek, nik eztiat inundik bere atzaparretan erori gogo.

Beltranek giltzatzar erdoitua emazteari eskutik kenduz esan zion:

- Ganberan eta giltzapeturik! Urdakumea! Ua, ez aut begien surrean gelago ikusi nai-ta, baña Usoa entatik bizirik ateratzen ezpaden, erorri joango akion atzetik illobira.

Beltran bedijoe laisterka torreko ganbarara, sartzen du giltza zerrallan eta biurtzen du emeki. Zerralla erdoiak jana zegoen ta idikitzerakoen karraska gorratz bat egin zun. Giltzaren karraska soñua entzutean, abots eme sul bat atera zan gelaren barrutik eskañikor. Beltran gelditu zan pitin bat ats kupidagarri arrek zerion itza entzutearren:

- Ama... ez, ez! Berkatu!... Ez jo... ama!

Beltranek igarri zun orduantxe zergatik aldendu zitzaion emaztea. Gaixorik eta ia iltzear zegola oraindik, bere emazteak txarkeri beltzenek esaten zizkion eta jo egiten zun gañera. Ai, une artan emaztea alboan izan balu! Lepoa biurritu ta bertan txin-txilletuko luke!

Beltranek piztu zun kandel bat eta ateorpoak kirri-karrake karagarria egiñez zabaldu zun stea. Kandela gora jasoz argitu zun ganbara aal ainbat. Jostaketan zebiltzan arratoi aundiak argia nabaitzean igesiari eman zioten eta aurki, pereta bazter batean, oltzer batzuz egindako kamaña koxkor bat nabaitu aal izan

zun; berten, belarrez betetsako lastai izkin baten gañean gorputz eme bat arnas-estuki zetzan. Ikuskizun erdiragarri arrek Beltrani biotza ler jarri zion eta bere alabatxo gaxoagana urbilduz:

- Ez bildur izan. maiteño -esan zion, enaiz zure ugazama gaiztoa. zure aita maitea baizik, gudatik elduberririk dan zure aitatxo.
- Aita! -Oju egin zun Usoak aita besarkatzeko bere beso medarrak luzatuz.

- Usoa! Nere biotza! -Esan zion aitek bere besotan estutuz ezur besterik etzam gorputz zurbil ura.

Aitek ezin ezagutu zezakean kandelaren argipean garai bateko bere Usoa begi urdin ederduna. Arpegia margul zeukan sei illabete aunditan eguzkiaren eta egunaren argi izpirik ezagutu gabe. Soin enborra eta soin adarrak zur-zuri baten antzo argal eta medar; beso-arpegiak autsez eta krakaz estalirik, azkazal luze-zikiñak sorgin baten gisa ta ia gerrirañoako txima luzeak sorbald a gañean sakabanatuak. Gorputz guzitik, iguin egiterañoako izerdi ta zikin usais zerion eta soñean zeramen atorra ta oleko mañdirea etzizkioten aldatu gaixotu ezkeroz. Beltranek bere mesallaz alaba gaxoaren kopeta ikutu zunean, sukar aundi baten mende zegola berealaxe antz eman zion.

- Jainkoarren etzaitz il, alabatxo kutun ori! Jarraitu zion aitek eztiki.

- Ez, aita, enaiz ilko, zu emen ikusteak bizi berri bat ematen dit. Egun batzu geiago luzetsi izan bazenu nereak egin luke. Zuk ordea bizitzeko indarra damaidazu.

- Gaurgero, etzaitut geiago ugazamaren mendean utziko. Arekikoa egin det eta zu ezkondu artean etxe maderikatu ontetik kanpora biziko gera.

- Bai, aita; arren, sendatu nadinean atera nazazu gaztelu ontatik,

ormatzar auek ber-bertan ito ez nazaten.
 - Sukarrak alde egin bezain aguro, txikitan bezela, trakatan-trakatan zaldi gañean, gogoratzen al-zera? eramango zaitut zuzpertzute zaitez, zure biririkak bear-bearreko duten gezalez eta mendiko aize guriaz ase ditezen eta zure masail margulak eguzkiak bizitu ta beztu ditzen. Aurki sendatuko zera ta orduan Alostorrean ezagutu diran ezteirik bikañenak egingo dira zure ospez. Jaungoikoak ez al-du gaitzetsiko zure jaiotegunean bezelaxe!

```

@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@
 @@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@@
  @@@@@@@@@
   @@@@@@@
    @@@@
     @@@
      @@
       @
  
```


Krutwig-tar Karol. (René Lafon Jaunari ^{en) omezez} (egindako itzalditik)

Euskaldun batek bere arbasoen hizkuntza ikasi ta irakatsi beharr du, bere nazional-hizkuntza delakotz. Euskalherria maite izatea ta euskararen ez-erabilitzea eztoaz elkarrekin; euskaraz mintzatzeke eztago euskalzaletarzunik. Euskalherria maite duenak' egin beharr dituten gauzetarik lehena' euskaraz mintzo izatea da. Zergatik, zer dala ta, zerarren humeai euskaraz irakatsi? Zio bat gatik: arbasoen hizkuntza delakotz. Hola holarik ba dagoz bertze zio handi batzuk ere. Euskaraz mintzatzan zen lekhetan' euskara itzaltzen denean' horr' lurralde hoien semeakgan izpiritua itzaltzen da. Ba dirudi euskara gabe' euskotarrek heuren pentsamenduak emateko bidea galtzen dutena. Euskalherriaren seme ospetsu oro' euskaldun zan. Jon Doni Xabierr, Loiolatarr Eneko, Elkano, Unamuno, Garaziko Uhartetarr Ioanes, Oihenarte, Zumarragarr Aphezpikua, Legazpi, Ertzilla ta bertze asko' euskaldunak ziran. Euskara uzten den lekhetan' lurra malkhortzen lizatekeien bezala' lehen seme ospetsuak zemazkien lurraldeak frukturik eztema. Ba dakit aipatu ditudan euskaldunetan' batzuel irazleak izanarren' errdaraz izkiriatu zutena; bainan burura dezagun' eusko lurralde hoiek' euskaldun zireno' mundu guztian ezaguturik diren eusko-seme ospetsuak eman ditutela' ta orain zein mal-khor, zein herbal, zein frukturik gabe lurralde hok dagozen! Euskotarrik askok' euskara aphala ta beharrtsua dela dio; berhain eztute gure literaturaren obrarik irakhurrten. Egiatan gure literatura prankarakoa baino tipiagoa da; bainan dadukagun literatura irakhurr eta argitara ezpadezagu' tipiagotzen dugu.

Gure literaturaren obrak argitarazi beharr ditugu. Hori egiteko ziorik asko eduki daduzkagu. Egun' askotan' euskaldunek elkarri ezin hulerr liezakeiotela entzuten dugu. Gure obra ederrenen irakhurrtearen bidez' behaztopo haur laisterrkhen genezake, elkarri hulerrtzeko hizkuntzak literaturaz jaioten bai-tira. Orduan' egungo egunetan' askok dadukaten euskararen erabilteko ta ikasteko lazturak berez iges egingo luke' ta euskara bere herriaren egiazko hizkuntza izango lizateke. Gure literatur zaharr liburu haukiek erraztarzun hori dadukate, Euskal-

herri guztian edozein euskaldunek erraz hulerr litzakela. Mende honen irazleek beren liburuetan heuren herrietan, basetxetan erabilten diren berezduak eta dialektismuak darabilzkitelarik' antxinako irazleek' euskaldun guztientzako liburuak izkiriatu nai-baitzituten. Halakotz hekiek demakute gure nazionalidatearen lakioa. Gure literaturaren irakhurteaz ikhusiren dugu zein gai den euskara, zein zalhoin, zein ederr!

Broussain zenak' Akademia jaió ledin' lehen pausu egiten zirelarik' Azkue jaunari guthun bat izkiriatu zeraukon eta honetan Akademiak' Euskalherriaren burjesia ta aristokratia, Euskalherriaren intelektual eta jakindunak irabazi beharrizituela ziotsan, haukiek' euskaraz ikas eta erabil lezaten' eta heuren humeai irakats. Hizkuntza bat' bere mugetan atzeratu den arren, populuak errdararen bat ikasi ta erabili arren, baldin herri baten gizarteko mota kulturdunek' heuren nazional-hizkuntza on harr eta gora badezate' lehen beharr ba da' jente arruntena baik etzan mintzoara' nazionalidatearen symboltzat herri guztiaren bihotzetan altxa badadi' hizkuntza haur salbaturik egonen da' hizkuntzen artean' Gizartea zuzentzen duten kultureek ethorrkizuna determinatzen dute ta. Euskaldun guztiek, kulturdunek batez ere' elkharri bethi euskaraz mintzatu beharr deraukote; bertzenaz euskara "patois" bat bilhakaturen zaiku.

Plants du: 113.

- 4 -

Erskalzak, 1885-05-tik⁹⁰
jaroa

- Nire esatean egitea balego, laster egingo litzeteke gauza
ori.
Au esanaz iges egin eustan Goseak.

oooooooooooooooooooo
ooooo0oooo
oooooo
ooo

- 1 Mundilum 2
- 2 Mogel 4 ¹
- 3 Gerukto 2
- 4 B. Apviri 3
- 5 Anilbarro 10 ²
- 6 Frai Bartolome 3
- 7 Zetusta 14 + dantzi ³
- 8 Zhorriaga 3
- 9 Mogel 2 + ?
- 10 Lardizabal 3 + ?
- 11 Agirre 19 ⁴
- 12 Buzintzu 3 + ?
- 13 Olabide 3
- 14 Azkine 19 ⁵
- 15 Eguiztegui 3
- 16 G. Muriketa 2 ⁶
- 17 Agirre y M. 15 ⁷
- 18 Alube 5
- 19 Garro 4
- 20 Letuona 3
- 21 Ormatar 10 ⁸
- 22 Antezubieta 3
- 23 Zuhaitza 3 ⁹
- 24 Michelena 19 ¹⁰

125. Staide 15
 126. Kuntz 3
 118 f. de 300 mots
 -50



Morceaux choisis
auteurs du Sud -

Literaturako paragrafoak (ez da Lafitte?)

~~M. ANDIAZABAL PIERRE
GRAND SEMINAIRE
AV DARRIGRAND
64100 BAYONNE~~

MISSION SANS
FRONTIERE
5, rue de la Mission

75-PARIS 06
-2 5.88

REPUBLIQUE
FRANCAISE
0370